

BELAR NATURALEKO ZELAIAREN AZKEN HATSA

Zapatuan jokatu dute azkeneko partidua Agorrosinen, belar naturaleko zelaian –Bergarak eta Urolak–; izan ere, obrak egingo dituzte bertan: belar artifizialeko zelaia jarriko dute, datorren denboraldiari begira / 29



Ibrahima Toure, Bergara Kirol Elkarteko langilea, Agorrosin futbol zelaian zaintze-lanetan, oraingo astean. XABIER URZELAI



Bergarako hainbat athleticzale Vanesa Gimbertekin, joan den domekan Lezaman. BERGARAKO ATHLETIC ZALEAK

Merezitako omenaldiak Vanesa Gimbert futbolariari / 39

Argazki erakusketa eta berbaldiak Arizmendiarieta gogoratzeko

Belaunaldien arteko harremanak sustatzea du helburu Etxaluzen (Arrasate) bihar irekiko duten erakusketak / 4



Arizmendiarieta, eskuman. MONDRAGON



Ukrainako gerrako testigantza izugarriak

Miren Agur Meabe idazleari elkarriketa

SINADURAK

	IGOR ARIZMENDIARIETA / 8		UXUE MONTERO / 35
	ANDER GARAY / 11		MARIA AGIRRE / 48

2 MÓ 99€
GRADUATU
+
ukipen-lenteak doan hilaibete baterako
+
premium azterketa bisuala,
erretinografia barne

Kontsultatu optikan konpainaren ezaugarriak.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen



Debagoieneko pentsiodunak, Gasteizen. HILARIO AZKARGORTA



Arrasateko pentsiodunak, manifestazioan. H.A.



Oñatiko pentsiodunak, aldarrikatzen. H.A.



ULMA Embedded Solutions, S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DE I A L D I A

Eguna: 2022ko maiatzaren 26a
Ordua: 14:30etan lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Lekua: MU-Enpresagintzako auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDAA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE EZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO

2. 2021EKO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2022KO GESTIO PLANA BERRESTEA HALA BADAGOKIO

3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA

4. 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO

5. AUDITOREA EZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA

6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2021EKO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA

7. 2021EKO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA

8. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO II. TITULUKO 1.3.2 ETA 1.3.3 ATALAK ETA III. TITULUKO 2.3.5.2 ATALA, "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOA, ALDATZEA

9. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO III. TITULUKO 2.2. ATALA ALDATZEA, ESTATUTU SOZIALETAKO 64. ARTIKULUAN HAMABIGARREN ATALA SARTZEA, ETA 65.BAT ARTIKULUA ALDATZEA, ERABILGARRI DAUDEN SOBERAKIN GARBI POSITIBOAK BANATZEARI, BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTSA APLIKATZEARI ETA DERRIGORREZKO ERRESERBA FUNTSERA EGOZTEKO MUGA MALGUTZEARI DAGOKIENEZ

10. HALA BADAGOKIO, HONAKO HAUEK ALDATZEA: POGU III-KO I. TITULUKO 4.4 ATALA, II. TITULUKO 2.1. ATALA ETA III. TITULUKO 1. ETA 2. ATALAK, KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEI ETA DEPARTAMENTU ZENTRALEI ESLEITUTAKO BAZKIDEEN EGOERA ANTOLATZEARI BURUZKOA, ETA, HALA BADAGOKIO, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEA ETA EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIOETARA EGOKITZEA, BAI ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN TESTU BATEGINA ONARTZEA ERE

11. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUTARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA

11.1 2021ean ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako emaitzari buruzko deskargua

11.2 2022an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena

11.3 ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKekin eratutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea

11.4 ULMA Fundazioak 2022rako aurreikusitako jardura sozialaren ildoan azalpena

12. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK

13. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA

14. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA

15. AHALMENAK ESKUORDETZEA

16. GALDE-ESKEAK

OHARRAK Bazkideei proposatzen zaie Kooperatibaren egintzen edozein erabakia erabaki lekuak, erabakiak aplikatzeko proposamena eta lekuak lantze desakabazko erabakia geroz lekuak. Batzarr Nagusiaren deialdiaren aurretik erabaki erabaki duzue izan dituzte. Hala, bazkide guztiak jakingarria zaie Kooperatibaren egintzen edozein erabakia Erabakietan, Kooperatibaren Barne Arazoak eta POGU IIko proposatutako aldiaketa testu orria eta aldiaketa berria justifikazio txostena, eta horiek desakabazko erabakia edo bazkideei erabaki dezakete.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2022ko maiatzaren 13a



ULMA Manutencion, S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DE I A L D I A

Eguna: 2022ko maiatzaren 27a
Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30etan bigarrena
Lekua: MU-Enpresagintzako auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDAA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE EZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO

2. 2021EKO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2022KO GESTIO PLANA BERRESTEA HALA BADAGOKIO

3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA

4. 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO

4.1 2021eko ekitaldiako Urteko Bazarako Kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio

4.2 2021eko ekitaldiako Urteko Kontu Bazaratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio

4.3 2021eko ekitaldiako informazio ez-finanzario bazaratuaren egokira aztertzea eta, hala badagokio, onartzea

5. AUDITOREA EZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA

6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2021EKO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA

7. 2021EKO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA

8. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO II. TITULUKO 1.3.2 ETA 1.3.3 ATALAK ETA III. TITULUKO 2.3.5.2 ATALA, "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOA, ALDATZEA

9. HALA BADAGOKIO, POGU III-KO III. TITULUKO 2.2. ATALA ALDATZEA, ESTATUTU SOZIALETAKO 64. ARTIKULUAN HAMABIGARREN ATALA SARTZEA, ETA 65.BAT ARTIKULUA ALDATZEA, ERABILGARRI DAUDEN SOBERAKIN GARBI POSITIBOAK BANATZEARI, BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTSA APLIKATZEARI ETA DERRIGORREZKO ERRESERBA FUNTSERA EGOZTEKO MUGA MALGUTZEARI DAGOKIENEZ

10. HALA BADAGOKIO, HONAKO HAUEK ALDATZEA: POGU III-KO I. TITULUKO 4.4 ATALA, II. TITULUKO 2.1. ATALA ETA III. TITULUKO 1. ETA 2. ATALAK, KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEI ETA DEPARTAMENTU ZENTRALEI ESLEITUTAKO BAZKIDEEN EGOERA ANTOLATZEARI BURUZKOA, ETA, HALA BADAGOKIO, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEA ETA EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIOETARA EGOKITZEA, BAI ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN TESTU BATEGINA ONARTZEA ERE

11. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUTARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA

11.1 2021ean ULMA Fundazioak IPDKetatik egindako emaitzari buruzko deskargua

11.2 2022an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena

11.3 ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKekin eratutako fondoarentzat aurreikusitako aplikazioa azaltzea

11.4 ULMA Fundazioak 2022rako aurreikusitako jardura sozialaren ildoan azalpena

12. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK

13. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA EZENDATZEA

14. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA

15. ZAIINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA

16. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA

17. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA

18. AHALMENAK ESKUORDETZEA

19. GALDE-ESKEAK

OHARRAK Bazkideei proposatzen zaie Kooperatibaren egintzen edozein erabakia erabaki lekuak, erabakiak aplikatzeko proposamena eta lekuak lantze desakabazko erabakia geroz lekuak. Batzarr Nagusiaren deialdiaren aurretik erabaki erabaki duzue izan dituzte. Hala, bazkide guztiak jakingarria zaie Kooperatibaren egintzen edozein erabakia Erabakietan, Kooperatibaren Barne Arazoak eta POGU IIko proposatutako aldiaketa testu orria eta aldiaketa berria justifikazio txostena, eta horiek desakabazko erabakia edo bazkideei erabaki dezakete.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2022ko maiatzaren 13a

Pentsiodunak, helburua lortzeko "esperantzaz"

Gasteizen izan dira, baita Debagoienetik joandakoak ere, alderdiei 1.080 euroak eskatzen

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, 1.200 pentsiodun baino gehiago elkar-tu ziren aurreko egunean Gasteizen, Legebiltzarreko taldeei euren aldarrikapenen berri zuzenean emateko. Bertan izan ziren Arrasate, Bergaratik eta Oñatitik joandako pentsiodunak ere.

Bilerak egin dituzte azkenaldian EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemosekin, eta, haietan bezala, egunean alderdiei emandako gutunetan aldarrikatu zuten 2023ko aurrekontuetan gutxieneko pentsioak 1.080 eurora arte –hamalau pagararekin– osatzeko beharrezko partida sartzea; baita gaia lantzeko Legebiltzarrean ponentzia bat sortzea ere.

Arrasateko ordezkari Juanito Saizar itxaropentsu agertu da, euren borrorak emaitza eman-go duelakoan: "Diru sarrerak Bermatzeko Errenta 834 eurotik 934 eurora igo dute, eta hori ere izan da, neurri handi batean, pentsiodunen borrokatik; baina ez da nahikoa". Beste herrietan bezala, eros ahalmena mantentzearen alde sinadurak batzen ari dira Arrasaten, eta bihar, zapatua, dute hurrengo hitzordua, Seber Altuben.

Askotariko emakumeak Topagune Feministara

Emakume, trans eta bollerak Oñatira deitu ditu Bilgune Feministak ekainaren 11 eta 12rako. Egitarau zabala antolatu dute atzera elkartu eta erakundearen hogeigarren urteurrena ospatzeko. Anariren kontzertuarekin amaituko dute bi eguneko jarduna

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE
"2001ean, emakume abertzaleen topaketa feminista batzuk egin ziren Leitzan, eta agerian geratu zen antolakunde feminista nazional bat behar zela Euskal Herrian. Hortik sortu zen, 2002ko apirilean, Bilgune Feminista". Horixe erakundearen sorreraren azalpena, Amaia Etxabe kide arrasatearraren hitzetan. "Buru-jabetza feminista" jomuga, nazio mailako erakundeak, dena dela, herriz herriko taldeak ere baditu sostengu; Debagoiengan, Arrasatekoa –nahiz eta beste herrietan ere eduki bidelagunak–, eta bertan egin zuten, duela aste pare bat, ekainaren 11n eta 12an



Arrasaten, Oñatirako dei egiten, duela bi aste. ARRASATEKO BILGUNE FEMINISTA

Oñatin egingo den Topagune Feministarako motorrak berotzeko saioa.

"Egindako bidea ospatzeko hitzordua da Oñatikoa". Baita elkartzeko ere, Amaia Etxaberen arabera: "Azken bi urteetan, herri mugimenduak apalduta egon dira. Eta horri erantzunez ere badator leloa". *Eztandak dardara gaitzala* da aukeratu dutena, "esnatze bat" irudikatu nahian: "Helburua da Euskal Herriko hamaika txokotako feministak Oñatin biltzea".

Egitarau zabala

Topaguneak aukera ugari eskainiko ditu bi egunez: "Zapato goizean mahai-inguru nagusi bat egongo da, eta burujabetza feministaren gainean arituko gara bertan. Arratsaldean, berriz, burujabetza feminista hori errealitate bihurtzeko praktika, go-goeta eta sormenerako jarduerak pila bat egongo dira. Hainbat gai landuko dira: bizitza erdiguinean jartzea, zis-hetero arauari desobedientzia, borroka ekologista...". Gaiok lantzeko moduak askotarikoak izango dira, esan bezala, eta, honela, "bertso saioa,

musikarien elkargunea, Euskal Herriko Neska* Gazteen hitzaldia, soinu teknikari tailerra, zumba tailerra"... izango dira. Eta zapatuko beste zenbait ekin-tza ere nabarmendu ditu Etxabek: "Jule Goikoetxeak *Estallidos* liburua aurkeztuko du, eta Arantza Santestebanen *918 gau* filmaren emanaldia eta horren inguruko solasaldia ere izango dira". Eguna amaitzeko, ekitaldi nagusia eta kontzertuak egingo dituzte, Ginger (Euskal Herria), Ira (Espainia), Chocolate Remix (Argentina) eta DJ Miaurekin (Euskal Herria).

Domekarako utzi dituzte emakume sortzaileen azoka, bazkari herrikoa eta Anariren kontzertua, besteak beste.

Topagunerako bonoak Oñatiko Arrano tabernan eros daitezke, eta baita sarean ere (*tickets.kutxabank.es*). Furgonetentzako aparkalekuan lekua gordetzeko bonoak ere badaude. Hiru aste barrurako deia, beraz, emakume, bollera eta transei: "Bilgune Feministak saretzen dituen askotariko pertsona eta kolektiboekin elkartu eta elkarrekin gozatzea nahi dugu".

Erronka berriei
aurre egiteko,
aldatu beharra dago.
Iritsi da **TicketBAI**.

Enpresek aurrera egiten dutenean,
Gipuzkoak aurrera egiten du.



Gipuzkoako
Pura Alkandía
Española, Fond
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
da Futuro



TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai



Arizmendiarieta, San Jose Kontsumo kooperatibaren lehen dendaren inaugurazioan. MONDRAGON KORPORAZIOA

Arizmendiarieta gogoan Arrasateko erakusketan

Maiatzaren 21etik ekainaren 6ra egongo da argazki erakusketa ikusgai Etxaluze gizarte zentroko lehenengo solairuan, eta ekainaren 9rako eta 16rako hitzaldiak antolatu dituzte. Belaunaldien arteko harremanak sustatzea da ekimenaren helburua

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Jose Maria Arizmendiarietaren gaineko argazki erakusketa izango da ikusgai maiatzaren 21etik ekainaren 6ra Arrasateko Etxaluze gizarte zentroan. Martitzen, eguen eta egubakoitzetan 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Katalogoa sortu dutela adierazi du Aitor Orobengoak, ISEA Coop.-eko ikerkuntza zuzendaria: "Katalogo horretan agertzen dira On Jose Mariaren lan nagusiak". Argazkiek ere azalpena izango dute testuinguruan jaritzeko. "Horrekin batera, Arizmendiarietaren bizi-ibilbidea eta haren obraren ezagutza hizpide izango dituzten bi hitzaldi ere antolatu dira. Alde batetik, ekainaren 9an, Copreciren sorrerari buruzko saioa emango dute enpresaren sortzaileetako bik, Pedro Mendietak eta Jose Maria Ortubaik. Bestetik, Arizmendiarietaren pentsamendu eta bizi-bideari buruz arituko

da Arizmendiarietaren Lagunak Elkarteko Jose Maria Larramendi, ekainaren 16an.

Arizmendiarieta, ezezagun

Orobengoak azaldu duenez, "duela pare bat urte, On Jose Maria Arizmendiarietaren Lagunen Elkartek halako inkesta bat egin zuen, eta Arrasateko %10ek ezagutzen du, gaur egun, Arizmendiarieta nor izan zen. Deigarria da hori, ze bailarako jende askok egiten du lan hark sortutako enpresetan". Copreciko sortzaile Pedro Mendietaren hitzetan ere, "hori oso tristea da, baina horrela da. Hala ere, halako ekimenek laguntzen dute ezagutarazten".

Copreciren sorrera

60ko hamarkadan sortu zen Copreci, eta Arrasatek kanpo sortu zen aurreneko kooperatiba izan zen. Haren sorreran ere badu lekua Arizmendiarietak. Aitor Orobengoak adierazi duenez, "oso ezezaguna da nola

sortu zen Copreci, eta hitzaldia interesgarria izango da, ze historia oso aberasgarria izan zen".

Sortzaileetako bat da Pedro Mendietak, eta Arizmendiarietak hura nahiz beste gazte batzuk lan batzuetan sartu zituela aitortu du. "On Jose Mariaren aldetik jaso genituen balioengatik sortu zitzaizkidan enpresagintzan sartzeko gogoak. Aretxabaletan enpresa bat sortu nahi genuen, eta asmoak hari planteatu genizkion. Elkarlanean egindako enpresa sortu genuen, hori baitzen Arizmendiarietak planteatu zigun eskema".

Copreciren sorreraren inguruan, sorreraren zergatiaz eta testuinguruaz arituko dira hizlariak ekainaren 9an izango den

ARRASATEN EGINIKO INKESTA BATEN ARABERA, %10EK EZAGUTZEN DUTE ARIZMENDIARIETA

saioan. Hala ere, Mendietak garbi dauka gazteei zer adierazi nahi dien egun horretan: "Garai hartan lanera joan behar nuen eta aldi berean ikasi. Trebetasun eta jarrera kontua zen. Horrek eta familiaren egoerak nahiz lan egiteko premiak hazi egiten zaitu eta nagusi egiten zara, baita gaztea zarenean ere. Hori helarazi behar zaie gazteei".

Balioak sailkatzen

1970etik 1976ra Arizmendiarietak idatzitako artikulak aztertzen dihardu Arizmendiarietaren Lagunak Elkartek. Jose Mari Larramendi elkartearen sortzaileetako eta kideetako bat da, eta hark egingo du hitzaldia; haxe aurreratu dio GOIENARI: "1970etik 1976ra Arizmendiarietak idatziriko artikulak aztertzen ari gara, eta zertan gabiltzan azalduko dut. Alde batetik, idatzietan dauden balioak identifikatzen ditugu, eta, bestetik, horiek sailkatzen ari gara. Gaur egun bizi ditugun erronken inguruan idazten zuena aztertzen dugu". Guztira, 35 balio identifikatu dituzte: "Baina gero, maiztasunaren arabera sailkapena egin dugu".

"Aurkezpen txartelik gabeko lider sakon" bezala definitu du Larramendik Arizmendiarieta: "Momentu hartako egoeraren aurka errebelatu zen norbait izan zen, nire ustez; ez hitzekin bakarrik, baita ekintzekin ere".

Jose Ramon Elorza ere oroitu nahi du, ordea, Larramendik hitzaldian: "Lan garrantzitsua egin zuen gure lanean. Askok lagundu zigun orain egiten ari garen lana garatzen, harreman zuzena eta pertsonala izan zuelako Arizmendiarietarekin. Haren jarraitzailea zen gaztetatik".

Herritarren erlazioa sustatuz

Erakusketa Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Gipuzkoa Belaunaldi Arteko proiektuarekin lotuta dago, baita Etorkizuna Eraikiz ekimenaren testuingururekin nahiz Adinberri Fundazioaren *Bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako estrategia* egitasmoarekin ere. Ezagutza transmititzea eta komunitatearen garapenerako belaunaldien arteko harremana bultzatzen ditu proiektu honek; lankidetzak eta balio-zahartzea ere sustatu nahi ditu, "herritarren arteko belaunaldi trukaketa gauzatze gune bat sortuz".

Euskaraldirako ariguneak osatzeko izen-ematea, zabalik

Joan den eguaztena ezker eman dezakete izena Euskaraldirako ariguneak sortzeko asmoa duten entitateek. Euskaraz lasai aritzeko guneak sortzeko dei egin diete era guztietako erakundeei Euskaraldiaren antolatzaileek. Aurtengo udazkenean egingo den ekimenaren hirugarren edizioak, berriro ere, ariguneak izango ditu protagonista, *belarriprest*-ekin eta *ahobizi*-ekin batera.

Euskaraldiaren bigarren edizioan ariguneak sortu eta izena eman zuten entitateek haien parte hartzea berretsi beharko dute ariguneak.euskaraldia.eus/izen-ematea webgunean; lehenengoz izena ematen dutenek ere helbide bera erabili ahal izango dute izena eman eta arigune kopurua zehazteko. Aurtengo izen-emate prozesua erraztu egin dutela azpimarratu dute antolatzaileek. *Ahobizi* edo *belarriprest* roletan izena emateko epea edo parte hartzea berresteko epea irailaren 28an irekiko da.

Ikus-entzunezkoetan euskarak "presentzia duina" izatearen alde

Atzo hasi zen Ikus-entzunezko Lege berriaren inguruko eztabaida Espainiako Kongresuan, eta maiatzaren 26ko osoko bilkuran legearen bozketa egingo dela aurreikusten da. Horrek "euskararen etorkizunean izango duen garrantzia" aintzat hartuta, agerraldia egin zuten, eguaztenean, euskararen eta ikus-entzunezkoen sektoreko zenbait eragilek; tartean, TOKI-KOM. Hala, legeak jaso beharreko ardatzak proposatu zituzten eta euskararen "presentzia duina bermatzeko gutxieneko neurriak jasotzeko" eskaera egin zieten euskal alderdiei.

2020ko abenduan aurreproiektua aurkeztu zenean, ekarpen bateratuak egin zituzten hainbat eragilek, euskararen presentzia bermatzeko kuotak eskatuz, baina, horien esanetan, "ekarpenak ez ziren kontuan hartu". 2021eko azaroan, ordea, Espainiako Gobernuak egindako lege-proiektuak ere ez zuen "al-daketa esanguratsurik".

"Menu eskaintza zabala dugu atzera ere gurean"

XEGUN ALTOLAGIRRE OÑATIKO ETXE AUNDI HOTEL BOUTIQUEKO ARDURADUNA Etxea eraberritu ostean, askotariko eskaintzara itzuli dira Torreauzoko jauregi etxean. Xegun Altolagirre legazpiarrak inaugurazioa iragarri du datorren egubakoitzerako

Oñatiko Torreauzo paraje zoragarria da, eta bertako harribitxi arkitektonikoetako bat da Etxe Aundi. Bi urtez itxita egon ondoren, ilusioz ekin diote etapa berriari, eta zabalik dituzte ateak era guztietako bezeroendako. Horrela azaldu du Xegun Altolagirrek.

Noiz ireki zenituzten ateak?

Abenduan ireki genituen ateak; hotelean jarri genituen indar guztiak, eta orain da garaia jatetxeari bultzada emateko. Hala, menuak ematera itzuli gara, eta aukera zabalagoa dugu orain, bai aste tartez bai aste bukaeretan. Mota eta prezio askotako menuak ditugu.

Orain, gainera, askotariko espazioak dituzue jatetxean. Buelta handia eman diozue bai hotelari bai jatetxeari.

Horrela da, bai. Jangela eroso, atsegina eta dotorea dugu. Gainera, lehen aipaturiko terraza eder bat dugu kanpoko aldean orain. Hori ere eraberritua; eguzkitik babesteko estalpe batekin, eta egur-labearekin eta parrillarekin, hain zuzen ere. Terrazaren bueltan daude, baita ere, garai bateko zaldi-tegiak. Garbitu, txukundu eta atondu egin ditugu guztiak, eta jangelak dauzkagu bertan orain. Edozein motatako ospakizune-



Altolagirre, eraberritua izan den terrazan, labea eta parrilla atzean dituela. L.Z.L.

tarako pribatutasuna eta gozotasuna eskaintzen duten espazioak dira, eta egokituta daude bi, lau, sei, edo zortzi pertsonarendako.

Eta ze sukaldaritza mota egiten duzue Etxe Aundi jatetxean?

Sukaldaritza tradizionala egiten dugu, Euskal Herrian betidanik kozinatu eta jan den hori. Baina berritua eta XXI. mendera ekarria; tradizioa eta berrikuntza ederki uztartzen direlako, eta, azken finean, sukalde tradizionalari dirdira emateko modu bat delako berrikuntza.

Gure erronka handienetakoa dira zero kilometroa eta gertutasuna; hau da, bertatik bertakoak diren produktuak. Konfiantzazko ekoizleen produktuekin lan egitea atsegin dugu. Gurera etorriko direnei istorio bat transmititu nahi diegu, nola

"KARTA ZABALA ETA ASTE BARRUKO ZEIN ASTEBURUKO MENUAK DITUGU ORAIN ETXE AUNDIN"

herri honetan lurra eta itsasoak eskaintako elikagaiekin egindako sukaldaritzak iraun duen, eta nola belaunaldiz belaunaldi horiek zainduz, mimatuz eta maitatuz heldu den gureganaino. Hori zerbitzatu nahi diegu bezeroei platerean; lehen mokaduan hori guztia sentitzea da gure helburua. Betikotasuna, modu berrian.

Baditugu parrilla eta egur-labea, eta nahi dugu horiek ere gure bereizgarria izatea. Eskaintzen ditugu bertan erretako Kantauri itsasoko arrainak, gertuko baserrietatik ekarritako arkumeak eta abar.

Karta zabala duzue, hortaz.

Karta zabala eta erakargarria dugu, gutiziaz eta sorpresaz betea, baina baita menu eskaintza ere. Aste barruko menu bat dugu, eta asteburuetarako menu berezia ere bai. Ospakizunetarako egokitutako menuak ere eskaintzen ditugu, eta, nola ez, astero badugu karta txikia, plater bereziak, sukaldarien iradokizunak... Hauek, batez ere, gau parterako. Ardo karta ere nabarmentzekoa da, eskaintza zabala delako txakolin bereziekin, sagardoarekin...

Hotelean ere goitik beherako aldaketa egin duzue.

Logela kopurua handitu egin dugu. Erabateko aldaketa egin dugu distribuzioari eta diseinuari dagokionez, eta hamabi logela izatetik 21 izatera pasa gara, guztiak ere eraikinaren berezitasunera egokituta eta zerbitzu mota guztiekin. Izan ere, egon izan denak jakingo du lehenengo solairuan jangela gurea lehen, eta orain, bederatzi logela ireki ditugu espazio horretan. Erabilera askotariko gela ere badugu bileretarako. Informazio guztia

Inaugurazioa hilaren 27an

Etapa berriaren irekiera ospatzeko inaugurazio ekitaldia antolatuko dute Etxe Aundin. Hilaren 27an egingo dute, 20:00etan. Egur-labean arkume bat erretzeko asmoa dute, joango direnen artean banatzeko. Ateak zabalik izango dituztela esan dute.

dago ikusgai etxeaundi.com atari digitalean.

Eta zein da zuen bezero mota?

Debagoieneko indarguneetako bat enpresaritza da, eta aste barruko gure bezero profiletako bat bada lan kontuak tarteko etortzen den hori. Bilerak egitera datozenak, komertzialak... Aste bukaeretan beste bezero profil bat da nagusi. Inguru hau oso erakargarria da natur-gunea delako, Arantzazuko santutegia bertan dagoelako, Oñatiko herria ere interes handikoa delako... Bi bezero mota horiek izaten ditugu, gehienbat.

Etxe Aundi, bestetik, eraikin oso berezia da. Historia handikoa, gainera.

Lazarragatarren jauretxea izan da XIII. mendetik. Gero, baserri bihurtu zen eta 80ko hamarkadan ireki zen hotel eta jatetxe gisa. Bai, leku oso berezia da.

"HOTELEKO JANGELAZ GAIN, ATERPEA DUEN TERRAZA BERRIA ZABALDU DUGU KANPOKO ALDEAN"





EtxeAundi

Torreauzo, 10 Oñati

www.etxeaundi.com

restaurante@etxeaundi.com

Tel.: 647 79 83 41





60. urteurrena ospatzen ari da Soraluce enpresa

Besteak beste, ate irekiak eta Soraluce Summit jardunaldiak egin dituzte asteon, kooperatibaren azken berrikuntzak eta proiektuak aurkezteko. Hainbat herrialdeetatik etorritako bisitariak izan dira Mekolaldeko plantan, makina berriak ezagutzen


Uxue Igarza Loiola BERGARA

60 urte bete ditu Soraluce kooperatibak, eta aste honetan ari dira ospakizuna egiten. Astelehen eta martitzenean Munduko Sare Komertziala izan zen formakuntza eskaintzen. Eguaztenetik egubakoitzera arte, berriz, ateak zabaldu dituzte bezero, hornitzaile, erakunde nahiz ikasketa zentroetako bisitariarentzat, Soraluce Summit izenpean. Eta bukatzeko, bihar, familiei zuzendutako eguna izango dute. Nolanahi ere, aipatzekoa da apirilaren 27an hasi zirela ospakizunak, Soraluceren fundatzaileak omendu baitzituzten.

Ate irekietan, bezero bakoitzari egokitutako proposamenak aurkeztu dituzte. Rafael Idigoras kooperatibako zuzendariak adierazi duenez, hiru alorretan banatutako berrikuntzak jarri dituzte eskura: makineria berria, soluzio teknologikoak eta zerbitzu digitalak.

Makina bat, Alemaniara

Hiru egun hauetan, 30 makina berri aurkeztu dituzte Soraluce Summiten edizioan. Idigorasek azaldu du enpresak 60 urte daramatzala makina-erremintaren sektoreari "irtenbide berritzaileak" eskaintzen, baina Alemaniako Krones enpresarentzat



Alemaniako Krones enpresarentzat egindako funtzio askotariko makina. U.I.L.

egindako funtzio askotariko makina nabarmendu du: "Alemaniako Krones enpresa 20.000 langile dituen multinazionala da, eta edariak botilaratzen ditu. Haiantzat egin dugun makina berritzaile hau mundu osoko hiruzpalau enpresak bakarrik egin dezakegu".

Makinak fresatzeko eta torneatzeko hainbat buru eta bi mahai ditu -40 tona arteko piezetarako gaitasunarekin-, eta baita 500 erremintako biltegi robotizatua ere. "Ekoizpena bizkortuko dute, eta eraginkortasuna eta erren-

dimendua handitu; gainera, makinak pieza handiagoak lantzeko aukera emango die", zehaztu du Idigorasek.

Ekoizpen indize eta zehaztasun handiagoa lortzea, eraginkortasuna hobetzea, errendimendua handitzea eta kontsumoa eta emisioak murriztea; horiek dira, Idigorasek esanetan, makina berriekin lortu nahi dituzten helburuak. "Garai eta behar berrietara egokitzen ari gara; izan ere, makinaren %90 esportatzen ditugu. Gure gama oso zabala da: makina merkeenak 350.000 euro balio

du eta garestienak, 6 milioi euro. Zubi-makinak dira arrakasta handiena dutenak".

Digitalizazioa, erronka

Egun gizarteak eta industriak duen erronka handienetakoa da digitalizazioa Soralucerentzat ere. Hala, jardunaldietan, makinez gain, horiek kudeatzeko teknologia adimenduna eta enpresentzako zerbitzu digitalak ere erakutsi dituzte.

Adibidez, moteltze aktiboko DAS sistema aurkeztu dute: "Mekanizazio prozesua gainbegiratu eta bibrazioa ezabatzeko alternatiba teknologikorik onena aukeratzen du; horretarako, DWS moteltze aktiborako gailua du. Hain zuzen ere, horri esker irabazi genuen 2020an *Prize a Quality Innovation of the Year* saria".

Bestetik, enpresei My Soraluce monitorizazio integralerako plataforma aurkeztu diete lehen aldiz. "Sistemak makinari buruzko informazio guztia zuzenean eskuratzeko bidea ematen dio bezeroari, eta haren makinaren egoera une oro eta edozein lekutatik kontrolatzeko aukera", azaldu du Soraluceko Zerbitzu eta Soluzioen zuzendari Alejandro Martinezek.

Bailarako sarea, indartsu

Teknologia eta digitalizazioaren abangoardian egoteko gakoetako bat "Debagoieneko sarea" dela azaldu du Idigorasek: "Elkarlana geroz eta sendoagoa da gure artean. Debagoienean, erakundeak, enpresak, hornitzaileak eta ikasketa zentroak batera gaude, eta hori da bidea".

Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapeneko sailburuak ere ideia horretan jarri zuen azpimarra eguazte-

nean, Soralucera egindako bisitan: "Debagoiena beti izan da industria kontzentrazio handia izan duen eremua, eta, hein batean, bailaratik garatu da Euskal Autonomia Erkidegoko sarea; Soraluce da horren eredu. Enpresa aurreratu eta lehiakorra da mundu mailan".

Egungo testuinguruaz ere jardun zuen sailburuak: "Pandemiarekin eta Ukrainako inbasioarekin egoera ezegonkor dago, baina, arazoak arazo, enpresak aurrera doaz, inbertsioak eginez. Zorionak emateko eguna da gaur; bereziki, enpresa honi".

500 bisitaritik gora

Aurreratu bezala, bihar, familiei eskaintako eguna egingo dute. 10:30ean, Osintxun, duela 60 urte lehenengo harria finkatu zen lekuan, harri horren erreplika jarriko dute Soraluceko bazkide berrienek eta fundatzaile batek. Ondoren, 11:15 aldera, bisita gidatua egingo dute, eta ostean, argazkia. Bukatzeko, luntxa izango dute. Aurreikuspenen arabera, langileen 170 senitar-teko espero dituzte.

Bestetik, eguaztenetik egubakoitzera arte, 350 bisitari inguru izan dira Mekolaldeko plantan. Hala, guztira, 500 lagunetik gora izan dira Soraluceren 60. urteurrena ospatzen.

"HEMEN, ENPRESEK, ERAKUNDEEK, HORNITZAILEEK ETA IKASTETXEEK BATERA DIHARDUGU LANEAN"



RAFAEL IDIGORAS
SORALUCE
KOOPERATIBAKO
ZUZENDARIA

Dagoeneko iritsi dira Brasilera Arizmendiko ordenagailuak

Arizmendiko ikasleek hemengo ordenagailuak eraberritu dituzte, Brasilgo ikastetxe ibiltarira bidaltzeko

U.I.L. DEBAGOIENA

Arizmendi Ikastolako Mikroinformatika Heziketa Ziklokoko ikasleek ordenagailu zaharkituak eraberritu dituzte, Mundukide Fundazioaren bitartez, Brasilgo Caminhos de Saber

eskola ibiltarira bidaltzeko. Ikastetxeak azaldu duenez, proiektua ikasleek garatu dute oso-osorik: "Ordenagailuaren hardwarea aztertu eta konpondu behar izan dute lehenengo, eta ondoren, sistema eragile

egokia aukeratu eta instalatu". Aurreko ikasturtean hamabost ordenagailu konpondu zituzten eta aurtan ere beste hainbeste egokitu dituzte.

Hain zuzen ere, bederatzi dira Brasilera iritsi diren ordenagailuak; Mundukideko kooperanteen bidaia baliatu dituzte bidaltzeko. Arizmendiko kideen esanetan, ikasle brasildarrak "oso eskertuta" daude, eta "ordenagailu gehiago jasotzeko prestutasuna" adierazi diete bailarako ikasleei.



Ikasle brasildarrak, Arizmenditik bidalitako ordenagailuekin. ARIZMENDI

Bihar, euskararen aldeko mobilizazioa Donostian

Gazte Euskaltzaleen Sareko kideek azaldu dutenez, pandemia sasoiaren ostean euskararen normalizazioan "atzerapausoak" atzeman dituzte. Hala, mobilizazio nazionala egingo da bihar: 17:30ean Donostiako Antiguako tuneletik abiatuko da

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA
Euskaraldiaren atarian, Euskal Herriko hainbat gazte eta euskara talde batu ziren euskararen egoeraren inguruan hausnartzera. *Gaztealdia* izeneko ariketa abiatu zuten: bederatzi egunez Euskal Herriko hainbat txokotako bederatzi gaztek euskara hutsean jardutea. "Ez genuen erronka lortu", azaldu dute.

Hori horrela, eta pandemiaren ostean sumatutako "atzerapausoen" harira, mobilizazio nazionala egitea erabaki dute bihar-ko, hilak 21, *Euskara aurrera* lelopean. Maialen Arteaga sustatzaileak azaldu duenez, hainbat faktorek bultzatuta egin dute deialdia: "Pandemiak aurretik zeuden arazoak azaleratu ditu, alor guztietan; baita hizkuntza gutxituen esparruan ere. Gainera, datuen arabera, euskararen erabilerak beste apur bat egin du behera".

Mobilizazioa euskarak jasan-dako erasoak salatzeke baliatzeaz gain, "baldintza sortzaile" izatea nahi dute; inflexio puntu, alegia. "Aurrera begira euskalgintzaren bidea erraztuko duen martxa izatea nahi dugu; etorkizuna euskaraz irudikatzen dugun guztion topaleku; harrotasuna-ren erakusleihu; eta ekimen gozagarri", dio Arteagak.

Bidelagun ugari dituzte
Euskalgintzako eta bestelako hainbat eragile ari dira Gazte Euskaltzaleen Sarearekin elkar-lanean, eta dagoeneko asko dira ekimenara atxikitu direnak.

Bergarako Xaxau konpartsa da horietako bat; gainera, mobilizaziora joateko autobusa ere badago Bergaratik. Pol-Pol tabernan eman behar da izena. Arrasatetik ere antolatu dute autobusa, Arrasateko EHEk bultzatuta. Horiez gain, Mondragon Unibertsitateko Ernaik, La Furiak eta Markel Irizarrek ere bat egin dute ekimenarekin.



Bergarako Xaxau konpartsako kideek ere bat egin dute ekimenarekin. XAXAU



ULMA Medical Technologies, S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A

Eguna: 2022ko maiatzaren 26a
Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena
Lekua: ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE EZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO

2. 2021EKO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2022KO GESTIO PLANA BERRESTEA HALA BADAGOKIO

3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA

4. 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO

5. AUDITOREA EZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA

6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2021EKO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA

7. 2021EKO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA

8. HALA BADAGOKIO, ESTATUTU SOZIALEN 28. ARTIKULUAREN LEHENENGO ATALA ALDATZEA, ULMA TALDEKO KOOPERATIBEN ARTEKO IREZPIDIA APLIKATZEARI BURUZKOA.

9. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA

9.1 2021ean ULMA Fundazioak IPDKetarik egindako erabilerari buruzko deskargua

9.2 2022an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena

9.3 ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKrekin eratutako fondoarentzat surreikusitako aplikazioa azaltzea

9.4 ULMA Fundazioak 2022rako surreikusitako jardura sozialaren ildoan azalpena

10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK

11. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA

12. AHALMENAK ESKUORDETZEA

13. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzorde proposatzen du Kooperatibaren egintza erabilerari buruzko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak lagun-erabilerari buruzko kontuak, Batzar Nagusiaren deialdiaren oinarri gisa hartu behar izan direnak.

Batzar, bazkide guztiak jakinarazten du Kooperatibaren egintza eta interesen deialdi erabilerari. Estatutuetan proposatutako aldatutako testu berri eta aldatutako lehen justifikazio testuak, eta horiek denak berri den emaitza edo baliatutako erabilerak.

KONTSEILU ERREKTOREA

Oñati, 2022ko maiatzaren 13a



ULMA Forja, S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A

Eguna: 2022ko maiatzaren 27a
Ordua: 14:30ean lehenengo deialdia eta 15:00etan bigarrenen
Lekua: MU Enpresagintzako auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE EZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO

2. 2021EKO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2022KO GESTIO PLANA BERRESTEA HALA BADAGOKIO

3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA

4. 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO

4.1 2021eko ekitaldi Urteko Bazarreko Kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio

4.2 2021eko ekitaldi informazio er-finantziazioaren egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.

5. AUDITOREA EZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA

6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2021EKO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA

7. 2021EKO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA

8. HALA BADAGOKIO, POGU III KO II. TITULUKO 1.3.2 ETA 1.3.3 ATALAK ETA III. TITULUKO 2.3.5.2 ATALA, "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA" RI BURUZKOA, ALDATZEA

9. HALA BADAGOKIO, POGU III KO III. TITULUKO 2.2. ATALA ALDATZEA, ESTATUTU SOZIALETAKO 64. ARTIKULUAN HAMABIGARREN ATALA SARTZEA, ETA 65. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, ERABILGARRI DAUDEN SOBERAKIN GARBI POSITIBOAK BANATZEARI, BORDONATEZKO ERRESERBA FUNTSA APLIKATZEARI ETA DERRIGORREZKO ERRESERBA FUNTSEK EGOZTUTAKO MUGA MARGUTZEARI DAGOZKIEZ

10. HALA BADAGOKIO, HONAKO HAUEK ALDATZEA: POGU III KO I. TITULUKO 4.4 ATALA, II. TITULUKO 2.1. ATALA ETA III. TITULUKO 1. ETA 2. ATALAK, KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEI ETA DEPARTAMENTU ZENTRALEI ESLEITUTAKO BAZKIDEEN EGOERA ANTOLATZEARI BURUZKOA. ETA, HALA BADAGOKIO, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEA ETA EUSKADIKO KOOPERATIBEN ARIENDIAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEA, BAI ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN TESTU BATEGINA ONARTZEA ERE

11. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA (IPDK) APLIKATZEA

11.1 2021ean ULMA Fundazioak IPDKetarik egindako erabilerari buruzko deskargua

11.2 2022an Kooperatibaren IPDK aplikatzeko proposamena

11.3 ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKrekin eratutako fondoarentzat surreikusitako aplikazioa azaltzea

11.4 ULMA Fundazioak 2022rako surreikusitako jardura sozialaren ildoan azalpena

12. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK

13. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA EZENDATZEA

14. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA

15. ZAIINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA

16. KONTSEILU SOZIALIKO KIDEAK BERRITZEA

17. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA

18. AHALMENAK ESKUORDETZEA

19. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzorde proposatzen du Kooperatibaren egintza erabilerari buruzko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak lagun-erabilerari buruzko kontuak, Batzar Nagusiaren deialdiaren oinarri gisa hartu behar izan direnak.

Batzar, bazkide guztiak jakinarazten du Kooperatibaren egintza eta interesen deialdi erabilerari. Estatutuetan, Kooperatibaren Barne Araudia eta POGU IIIa proposatutako aldatutako testu berri eta aldatutako lehen justifikazio testuak, eta horiek denak berri den emaitza edo baliatutako erabilerak.

KONTSEILU ERREKTOREA

Oñati, 2022ko maiatzaren 13a



ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

Elektrizitatearen argi-ilunak

Badira pare bat urte argiaren prezioen eta tarifen gainean burua nahastu eta zalantzas betetzen ari zaizkigula hainbat argindar konpainia eta komunikabide: orduko megawatt bakoitza hainbeste dela gaur, bihar beste kopuru bat izango dugula, garbigailua ipintzeko ordu egokienak goizaldeko orduak direla, inork ulertu ezin ditzakeen ordurako tarifak jakitea komeni dela eta abar. Informazio hau guztiau bezero guztiondako baliagarria izango balitz bezala helarazten digute. Eta horrek ez dit grazia-rik egiten. Denok ez dugu merkatu arautuko tarifarik, eta ez diegu zertan aholku horiei kasurik egin. Aholku horiek tarifa horren jabe diren bezeroendako baino ez dute balio.

Inkestek diote hamar familiatik seik ez dakitela zer alde dituen merkatu arautuak merkatu librearekiko. Gogora dezagun gaur egun argi elektrikoa kontratatzeko bi aukera ditugula: alde batetik, merkatu librea deritzona, non

TARIFA BERRIAK ONGI AZTERTU, ETA GURE BEHARRETARA ONDOEN EGOKITZEN DENA AUKERATU

argindar-hornidura familiek –egunero aldatzen da, orduka, argiaren prezioa–. Neurri batean, gizartearen –batez ere, adineko jendearen– ezjakintasunaz baliatzen dira haien intereserako. Honek dakar, adibidez, ikustea merkatu libreko tarifa duen jendea burua hausten telebistak esan duelako garbigailua zein ordutan jarri behar den, inongo beharrik ez dutenean.

Ez ahaztu, ordea, aurrezteko era bat dela tarifa berriak ongi aztertu, hausnartu eta gure beharretara ondoen egokituko dena aukeratzea. Edo, bestela, argiaren erabilpen arduratsua egin; modu horretan, poltsikoari mesede galanta egiteaz gain, maiz ahazten dugun ingurugiroari ere mesede galanta egingo diogu, bide batez.

enpresek erabakitzen dituzten bezeroei argiagatik kobratzen dizkieten prezioak. Betidanik izan dugun tarifa, esango nuke, tarifa finkoak. Eta, bestalde, merkatu arautuko tarifak, non Gobernuak araututako tarifarekin jaso dezaketen

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Ausazkoa

ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Azal ilun eta bizar kizkurra duen lagun batek esan dit "ausazko aurpegia" daukala: aireportu, errepide edo kaleetan polizia-ak ausazko kontrolak egiten dituenean, nortasun agiria berari eskatzen diote beti.

Behobiako muga 1995ean kendu zuten Schengen akordioaren ondorioz eta Frantziak 2015ean berrezarri zuen, jihadistek Parisen 131 lagun erail eta gero. Itxierak eta kontrolak salbuespenezko neurriak zirela adierazi bazuten ere, terrorismoa eta pandemiarengatik mantendu

eta gaur arte luzatu dituzte. Baina zeinentzako: ni hamaika aldiz pasa naiz Behobiako zubitik, jendarmeen aurretik, eta ez naute behin ere gelditu. Frantziako Eskubideen Defendatzaileak salatu zuen kontrolak bost aldiz gehiago egiten dizkietela “beltz edo arabiartzat hartzen dituzten pertsonen” eta errespetu gutxiagorekin tratatzen dituztela –hika mintzatzen zaizkie, iraintzen dituzte, zakarkeriaz eta bortizkeriaz hartzen–. Biriatun jendarmeak autobusetara igo eta bidaiari beltzei bakarrik eskatzen zizkieten agiriak. Etorkinak Espainiako mugaren bestaldera botatzen zituzten, legeak eskatzen duen

prozedura indibiduala bete gabe, abokatu baten laguntzarik gabe, adin txikikoez arduratu gabe eta giza eskubideen urraketak jasan zituzten biktimei asiloa eskatzeko aukerarik eman gabe.

Ukrainako errefuxiatuentzat harrera mugagabea erabaki du Europar Batasunak lehenengo aldiz. Martxoaren 12an Ibrahima Diallo gazte senegaldarra Bidasoan ito zen, 2021az geroztik ibai horretan edo inguruetan hil den zortzigarren afrikarra, lege- z pertsonen zirkulazio librea bermatzen duen lurralde batean. Ausazko salbuespen batekin: azalaren kolorea zein den.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Edurne Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Denok egin beharko genioke planto LGTBIfobiari"

JOSEBA GABILONDO MARQUES EHGAM-EKO KIDEA

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE
LGTBIfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izan zen martitzena. Sexu orientazioarekin lotutako gorroto-delituen ugaritzeaz ohartarazi dute hainbat kolektibok, eta, horren harira, saretzeko eta antolatzeke dei egin diote gizarte osoari. Joseba Gabilondo Marques eskoriatzarra EHGAMeko kidea da.

Aldarrikapen egun honen bueltan zein da zuen mezua?

Antolatza, saretza, artikulatza eta indartza deitzen ditugu LGTB+ kolektiboko kideak, baina ez hori bakarrik; izan ere, sexu askapena denontzat da, eta denok egin beharko genuke planto LGTBIfobiaren aurrean. Hau ez da soilik sexu disidenteon kontu bat, eta aurre egiten zaio deitzen diren mobilizazioetan parte hartuz, entzuten ditugun komentarioak isilaraziz eta abar.



Joseba Gabilondo Marques, martitzenean, Arrasaten. L.Z.L.

Ze irakurketa egiten duzue gorroto-delituen gorakadaren inguruan?

Halako fenomeno sozialek hainbat faktore eragile izaten dituzte, baina guretzako kezkarriena gorroto-

diskurtsoen igoera da; azken finean, erasoak legitimatzen dituzten diskurtsoak dira. Eta gorroto-diskurtso horiek gaur egun Parlamentuan gertatzen dira. Ultraeskuina eta eskuina jo eta su doaz LGTB+

eskubideen kontra. Eta ez hori bakarrik, emakumeen kontrako diskurtsoa dute, eta baita ere diskurtso arrazista eta xenofobia. Are gehiago, gaur egun euren burua feministatzat duten hainbat pertsona trans baztertzailak dira. Kurioso da ikustea nola diskurtsoak elkartu egiten diren.

Beldurraren diskurtsoa desagitea garrantzitsua da.

Horregatik ematen diogu garrantzia elkarteari, saretzeari eta nolabaiteko espazio seguruak sortzeari. EHGAMen joan den urtean prozesu bat egin genuen eta lortu dugu jende berriarengana heltzea eta Euskal Herriko geografian zehar pertsona talde ezberdinak artikulatzea. Batzuetan, baina, badut sententzia jende oso atomizatuta edo indibidualizatuta dagoela. Horregatik, besteak beste, elkartzeko, kolektibo berriak sortzeko eta kolektibo horietan sartzeko deialdia. Militatzeko modu asko daude, eta ez dago beti lehen lerroan egon beharrik. Badaude militatzeko beste modu batzuk.

Azken asteotako gertakariak eta horien trataerak estigmatizazioa areagotu dute?

Jendarte sexofobo batean bizi gara, eta testuinguru hori da kezkarria. Azken asteotan ikusi duguna da toki batzuetan –sare sozial digitaletan, esaterako– estigmatizatu egiten direla gay kolektiboaren bizitza moduak eta Internet bidez ligatzearena... Baina ez baduzu ingurune seguru bat eta ezin baduzu zure izatea lasaitasun guztiz adierazi, askotan horrelako aplikazioetara jotzen duzu, eta beharrezkoak dira. Berriro diot, testuinguru homofobia da kezkarria.

Lege egokiagoak beharko lirateke?

Foro bat egon zen EAE mailan LGTB lege integral bat sortzeko, baina herri mugimenduan artikulatzen garen kolektibo asko eta asko mahai horretatik altxatu egin ginen, uste genuelako hor zeuden agente batzuk ez zeukatela tokirik bertan; zehazki, polizia osatutako LGTB kolektibo batek. Plazaratu genuen gaia, ez zen heldu eta erabaki genuen mahaitik altxatzea. Prozesu horrek aurrera egin duela uste dugu, baina ez dakigu ze balio izan dezakeen, kontuan hartuta eguneroko lanean dihardugun kolektibok hor egon beharko genukeela.

ITURRI ONETIK

Bitorianatxoren jaitsiera zuzenean Goienan

Asteon aurkeztu dituzte Bergarako Pentekoste jaiak. Eguenean hasiko dira banatzen etxerik etxe egitaraua; Xaxau konpartsak eta Bergarako Zezenak elkarrekin ere argitara eman dituzte euren kartelak. Musikari dagokionez, Kerobia –plazan– eta Pasadena –txosnagunean– azpimarragarri. Goienak saio bereziak egingo ditu eta zuzenean emango du, Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en, Bitorianatxoren jaitsiera, plazatik bertatik, hilaren 3an, 19:00etatik 20:00ak bitartean.

ALBISTE IZAN ZEN

2016-05-17

Ikasleak ere LGTBQfobiaren aurka kalean

LGTBQfobiaren aurkako nazioarteko eguna gogora ekarri zuten eskualdeko hainbat ikastetxek. Aretxabaletan, Kurtzebarri eskolakoek, esaterako. Hala, 2 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoek LGTBQfobiaren kontraktasuna irudikatu zuten plazan, ostadarraren koloreak puzgarrien bidez irudikatuz. Eskola horretan pertsona ororekiko errespetua bermatzeko –hizkeran...– abiatutako ekimenen berri ere eman zuten.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Landaren jarraitzaile sutsuak hizpide

Italiako Giroan lehian dabil Mikel Landa ziklista arabarra, eta #landismo traola *trending topic* izan da asteon:

@kolpezkolpe: "Landismoa ala basakeria!"

@mikelarregiaska:

"Landismoa ulertzen ez duenak, bizitzetik ez du!"

@heliosAEK: "#Landismoa sumendi bat da, gogotsu".

@pedalkolpeak: "Erortzea ez da arazo, altsatzen dakizunean. Landismoa bizirik!"

@antxon_jaialai:

"#Landismoa Italia konkistatza! Egurre Mikel!"

@leguren: "Landismoa, bizitza ala heriotza!"



Bi herritar, Seber Altubeko lore eta landare azokan, duela urte batzuk. IMANOL SORIANO

Tailer berezia landare eta lore azokaren baitan

Hileko hirugarren zapatuarekin batera, bertako produktuen azoka egingo dute bihar Seber Altube plazan, eta ortuko landareak eta loreak izango dira protagonista; halaber, lorategiak eta ortu bertikalak etxean egiteko tailerra egingo dute, 10:00etan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Maiatzeko hirugarren zapatua da bihar, eta, hori hala izanik, bertako produktuen azoka egingo dute Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara.

Garaiko produktuak izan ohi dira protagonista azoka horretan, eta bihar, landareen eta loreen txanda izango da. "Maiatzean, sasoiaren denez, saiatzeko gara landareen eta loreen azoka egiten, herritarrek gura izaten dutelako balkoia berritu eta apaindu. Bestalde, ortuko hainbat landare sartzeko garai ona da hau: tomateak, piperra, berenjena eta abar", azaldu du Nerea Lazpiur Toki Garapeneko udal teknikariak.

Bi ekoizle bakarrik egongo dira biharko azokan, baina "landare eta bestelako produktu asko" izango dituzte. Batetik, Debagoienean oso ezaguna den Arrasateko Ekoudalatx. "Lanpetuta ari direla esan didate, jendea zain daukatela", dio Lazpiurrek. Bestetik, Usurbilgo

Urtinea mintegia. Enkarguak egiteko, telefono zenbakiak ere jarri dituzte herritarren eskura: 626 15 25 10 (Ekoudalatx) eta 632 19 32 39 (Urtinea).

Landare eta loreez gain, beste hainbat produktu ere egongo dira, ohi moduan. Hemezortzi postuk osatuko dute azoka: pastelak, ogia, marmelada, haragi ekologikoa, gazta, Venezuelako elikagaiak, eztiak eta abar.

Tailerrean izena eman behar da Ekoudalatx eskutik, "lorategi bertikalak etxean egiteko eta lorategiak hobeto aprobetxatzen ikasteko" tailerra egingo dute azokaren baitan. "Letxugak, sukaldean erabiltzeko landareak edota piper txiki batzuk landa-

tu gura izan ezker, nola egin daitekeen erakutsiko digute, baita ze landare diren proposenak eta ze modutan jarri daitezkeen, askotariko euskarri eta teknikekin", azpimarratu du Lazpiurrek. 10:00etan hasita, ordu eta erdi inguru iraungo du eta parte hartzeko, izena eman behar da, udal webgunean edota 943 25 20 00 telefonora deituz.

Artisauak ere egongo dira

Aurrerantzean, gainera, Arrasateko artisauak ere egongo dira bertako produktuen azokan. "Parte hartzeko eskaera egin ziguten, egiten dutena herrian gehiago ezagutarazteko, eta aldiro pare bat artisau egongo dira haien produktuekin".

Biteriko parkinga, doan

Azkenik, autoan datozenek aukera izango dute Biteriko parking publikoan bi orduko egonaldia doan izateko, baldin eta azokan erosketak egiteko baldin bada. Tikitarekin frogatu beharko da.

TAILERREAN PARTE HARTZEKO, IZENA EMAN BEHAR DA, 943 25 20 00 TELEFONOAN EDO UDAL WEBGUNEAN

'Andrezaharraren manifestua', taula gainean, maiatzaren 27an

Mari Luz Estebanek bere poesia liburua moldatu eta antzezlan bilakatu du, Metrokoadroka kolektiboarekin

E.A. ARRASATE

Mari Luz Estebanek *Andrezaharraren manifestua* poesia liburua argitaratu zuen 2019an, Pamie-la argitaletxearen eskutik, zahartzaroaren inguruko proposamen politiko eta poetikoa eginez. Gerora, Metrokoadroka kolektiboarekin elkartu da idazlea eta ohol-tza gainerako moldaketa egin dute elkarrekin, hilaren 27an Kulturaren ikusi ahal izango dena, 19:00etan.

Mari Luz Estebanek eta Metrokoadroka kolektiboak elkarrekin egindako emanaldiak

liburuko poemak dakartza ohol-tzara. Era berean, irakurketa momentuak uztartu dituzte poema bisual eta antzeztuekin. Biolinaren musika, pintura, antzerkia eta koreografia performatiboak eta abarrak modu umoretsu zein aldarrikatzailean tartekatuz, emanaldi hunkigarria osatu dute. Mari Luz Estebanekin batera, Ainhoa Alberdi, Idoia Beratarbide, Iraia Elias eta Jordana Otxoa dira artistak.

Eako Poesia Egunaren harira sortu zen kolaborazioa, eta Ean bertan estreinatu zuten lana.

Kubako medikuntza eta kooperazioa, argazki bidez

Debagoieneko Ezker Kultur Gunean erakusketa bat irekiko dute asteon. Kubako kooperazio medikoa eta Milagro Operazioa ditu ardatz, eta hilaren 31ra arte egongo da ikusgai. Programa horren bitartez, operazio oftalmologikoak egiten dituzte Latinoamerikako eta Karibeko 30 herrialdetan, baliabide gutxiko herritarrei zuzendutakoak.

Euskadi-Cuba erakundeak egindako erakusketa da, beste hainbat eragilerek elkarlanean. Ebakuntza jaso duten pertsonak agertzen dira erakusketan, baita Kubako Medikuntzako Eskola Latinoamerikarrean formatutako langile argentinarrek eta boluntarioak ere.

Jostailu truke azokarako bilketa maiatzaren 27an

Udan ere jostailu truke merketa egingo du Txatxilipurdik, bigarrenetaz. Iaz egin zuten lehengoz uda garaian, eta aurten errepikatzea erabaki dute. Hala, ekainaren 3an izango da azoka, baina aurrez jostailuak jasoko dituzte, maiatzaren 27an, hainbat gunetan: 16:30etik 17:30era, Seber Altube plazan; 17:45etik 18:45era, Santa Marinako ludoteka aurrean eta 19:00etatik 20:00etara, Arimazubi plazan. Ohi moduan, jostailuen truke, txartelak banatuko dituzte; zenbat jostailu, hainbeste txartel. "Jostailuek egoera onean eta osorik egon beharko dute. Indarkeria sustatzen dituzten jostailuak ez dira onartuko".

OHARRAK

Krosa dela eta, trafikoa moztuta domekan

Domekan, santamas krosa egingo dute. 11:00tan hasiko dira gatzetxoak eta 12:30ean, helduak. Beraz, herri erdigunean eta ibilbidearen gainontzeko gunetan trafikoa moztu egingo dute.

Donostiako manifestaziora joateko deialdia

Bihar, zapatua, Gazte Euskaltzaleen Sareak bultzatuta, *Euskara aurrera* manifestazioa izango da Donostian (Ikus 7. orria). Ttak gazte taldeak bat egin du manifestazioarekin, joateko dei eginez.

Defentsa pertsonaleko ikastaroa, hilaren 28an

Saioa gimnasioan egingo dute, 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko, deitu 661 10 83 05 telefonora. Plaza mugatuak dira.

'Euskararekin gara, euskara gara!', San Juan jaietarako leloa

'Golasu' taldearen proposamenak irabazi du AEDren lelo lehiaketa; lau finalisten artean bozkatuena izan da

Eneko Azurmendi ARRASATE

Zazpigarren urtez, San Juan jaietan euskararen aldarria plazaratzeko lelo lehiaketa antolatu du AEDk, eta "erantzun polita" izan du, beste behin ere, 53 proposamen jasota. Aurten, berrikuntza modura, lau finalisten artean aukeratu ahal izan dute herritarrek, Instagram bidez, eta hauek izan dira bozkatuenak, hurrenez hurren: *Euskararekin gara, euskara gara!; Hauspoa suari, ekin euskarari!; Magaletik makalera!; eta Itzartu, hitza hartu!*

Bestalde, AED elkarteak "irakurzaletasuna eta euskarazko sorkuntza sustatzeko asmoz" antolatzen dituen Arrasate literatur lehiaketek 35 urte bete dituzte aurten, eta "aspaldiko erantzun onena" izan dute. Izan ere, 383 lan aurkeztu dituzte –iaz, 159–. Ekainaren 21ean egingo banatuko dituzte sariak, Kulturategi areto nagusian, 18:30ean, eta Helena Azkarragaurizar izango da gonbidatua. Uneotan, hainbat irakasleren eta sortzailearen laguntzarekin osatutako epaimahaien esku daude lanak.



NIRE USTEZ

ANDER GARAY

ART: 50 urte eta geratzen direnak

Arrasate Rugby Taldea 50. urteurrena ospatzen dabil egun hauetan, eta zoriontzeko aukera baliatu nahi dut idatzi honen bitartez.

1972. urtean sortu zuten kluba, eta azken 50 urteetan Arrasate eta inguruko errugbi-zaleei aukera eman diete kirol hau praktikatzeko eta ikusle bezala gozatzeko. 50 urte hauetan makina bat boluntario egon da klubean eguneroko lana aurrera ateratzen, eta hauei guztiei merezi dituzten aitortpen eta zorion hitzak bidali nahi dizkiet.

50 urtean azpimarratzeko ekintza asko egin dituzte: 1992. urtean emakumezkoen taldea sortu izana eta garagardo festa egitea duela 20 urte baino lehenagotik. Baina nik bat aipatu nahiko nuke, bereziki: 2020. urtean errugbi inklusiboko talde bat sortu izana. Eredugarria da klub batek egunerokotasunean inklusioko talde bat izatea, benetan txalotzekoa.

Honegatik guztiagatik, zorionak ART familia osatu duzuen etaosatzen duzuen guztioi, 50 urte hauengatik eta gutxienez beste 50 urtez errugbiaz gozatzeko aukera izan dezagun guztiok.



Amerika elkarteak Seber Altube girotuko du bihar ilunkeran

19:00etan hasita, pintxoak eta edariak eskainiko dituzte eta musikaz, dantzaz eta poesiaz gozatu ahal izango da

E.A. ARRASATE

Kultura Aniztasunaren Nazioarteko Eguna da bihar, zapatua, eta Amerika elkarteak aldarrikatuko du inor ez dela ilegala. Horretarako, gastronomia eta kultura latinoz beteko dute Seber

Altube plaza. Mario Benedettiren, Clarice Lispectorren eta Cesar Vallejoren poemak errezipitatu dituzte, Cristian Vergarak zuzeneko musika joko du eta Maya irakasleak Kolonbiako dantza folklorikoak erakutsiko ditu.

Horrez gain, etorkinen erregularrizazioa bizkortzeko sinadurak biltzen jarraituko dute.

Bestalde, Aniztasun Astearen egitarauarekin jarraituz, Ekin Emakumeak elkarteak grabatutako dokumentala eskainiko dute Kulturategi aretoan, 18:30ean: *IKRAM: Emakume bat, istorio bat, eredu bat*; martitzenean, 18:00etan, *Gazte migrazioa integrazioa* hitzaldia egongo da Kulturategi aretoan; eta ekainaren 8an, 18:00etan, *El tren de la memoria* zine foruma.



Aurrezten
laguntzen dizugu

Maiatzak 20 ostirala

Maiatzak 21 larunbata



BEZa*

oparituko dizugu

elikagaietan, freskoetan, drogerian eta lurrindegian.

Edariak, parafarmazia eta haurtxoentzako produktuak barne.

*EROSKI hipermerkatuetan 60 €tik gorako erosketengatik Kulturazko EROSKI club txartela pasatzen baduzu, egindako erosketaren BEZari dagokion zenbatekoa sartuko dizugu lotutako EROSKI club kontuan. Gehienez sartuko zaizun zenbatekoa: 250 €. Kontsultatu gainerako baldintzak zure dendan.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE 

Tel.: 943 71 10 30 



Eguaztenean aurkeztu zuten erakusketa ASPACEko ordezkariak eta udal ordezkariak. E.A.

ASPACEren urteurrenako erakusketa Kulturaten da

SPACE Gipuzkoaren mende Erdiko ibilbidea jasotzen duen erakusketa, '50 urte inklusioa bermatzen', bailara zeharkatzen ari da. Bergararik pasa ostean, Arrasaten egin du geldialdia eta ekainaren 1era arte egongo da ikusgai, Kulturateko klaustroan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Erakusketa ibiltariak ASPACEren 50 urteak jasotzen ditu, "modu didaktiko eta pedagogikoan", Rosa Iglesias elkarteak idazkariak azaldu duenez, garun-paralisia duten pertsonen eta haien senideen egunerokotasuna erakutsiz. "Elkartea sortu zutenen omenez ari gara lanean, haiei esker daukagulako daukaguna", nabarmendu du.

"Lan handia" egin dute erakusketa osatzeko, baina, Igleziasek adierazi duenez, "merezi izan du", elkartearen bizitza jasotzen baitu. "24 panelez osatuta dago erakusketa eta elkartearen historia jasotzen du, nola joan diren zentroan eraikitzen, eta mugarri garrantzitsu batzuk ere batzen ditu. Udalerrri bakoitzak bere panela du, eta hori jasotzea ere garrantzitsua da. Kulturateko klaustroa leku ederra da; beraz, herritarrek goza dezatela erakusketa".

Gipuzkoako ASpacek 490 lagun artatzen ditu eta 361 pro-

fesionalek jarduten dute lanean. Boluntario taldea 126 pertsonak osatzen dute. Lukene Igartuak, erabiltzaileen guraso elkartearen izenean, eskerrak eman dizkie duela 50 urte "hainbeste lan" egin zuten familiei. "Garai hartan ez zegoen zerbitzurik garun-paralisdun pertsonentzat, eta hutsetik hasi ziren lanean".

Era berean, eskaera garbi bat egin du Igartuak instituzioentzat eta gizartearentzat: "ASPACEko erabiltzaileen sozializazioa familien eta profesionalen esku geratzen da -asteburuak, aisialdia, kirola eta abar-. Beraz, udalei eta gizarte eragileei dei egiten diegu laguntzeko gure erabiltzaileak sozializatzen eta kalera ateratzen".

ASTELEHENETIK ZAPATURA EGONGO DA IKUSGAI, 17:30ETIK 20:00ETARA, KLAUSTROAN

Udalaitz zentroa, 2009tik

Arrasateri dagokionez, 2009. urtean zabaldu zuten Udalaitz zentroa. Gaur-gaurkoz, eguneko zentroa izateaz gain, etxebizitza ere bada eta arreta jasotzen dute garun-paralisia dutenak. "Lokala udal jabetzakoa da eta 2043. urtera arte daukagu lagapenean ASpacearentzat", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak. Horrez gain, institutuan gela egonkorra dago, Tximeleta Gela, Bigarren Hezkuntzako gela.

Nerea Otxoa Udalaitz zentroko erabiltzailea eskertuta agertu da: "Jendea inguratuta nago. Lehen ez nintzen autonomia, eta, ASpace-ri esker, orain nire kabuz joaten naiz igerilekura, ile-apaindegira edo beste edozein lekutara. Asko eskertzen diet gure laguntza egiten duten laguntzaileak".

Alkateak, halaber, nabarmendu du "lan izugarria" egiten duela ASpacek. "Halako elkarte bat gure gizartearen izatea altxorra da. Inklusioaren esparruan lan itzela egiten dugu".



Ekimenaren berri emateko atera duten argazkia, Monterronen. NATURAN JOLASEAN

Jolasaren bidez naturari balioa eman gura diote bihar eta etzi

Hainbat eragilek bat eginda, Naturan Jolasean jaialdia egingo dute, zazpigarrenez, askotariko ekintzekin

E.A. ARRASATE

Leintz Eskola Kirolak, Besaide Mendi Elkartek, Gaztetxe Guraso eta Haur Asanbladak, Udalako Ingurumen Eskolak, *Guraso.eus*-ek eta Txatxilipurdik elkarlanean antolatu dute.

Bihar, 10:00etan eta 12:00etan, espeleologia txangoa egingo dute Montxongo koban, LHko 3. eta 4. mailetak haurrei zuzendua eta bi txandatan banatua. Bestalde, 11:00etan, orientazio txangoa egingo dute, Santa Barbarako dragoitik hasita, eta LHko 5. eta 6. mailetakoei eta kirol egokituko taldeari zuzendua.

Etzi, egun osoko egitaraua

Domekan, 11:00etan, kale hegaziak ezagutuko dituzte, Maiatzaren Bata plazatik hasita, Naiara Corcuera gidaritzapean -prismatikoak eraman-. Gero, Monterronen hainbat ekintza egingo dituzte: 12:30ean, arte auzolana, Pook artista kolektiboko kideek bideratuta; 14:00etan, bazkari libre, *zeuk ein zeuk jan* formatuan; 16:30ean, haurtzaroko yoga saioa, Sara Miguelez gidatuta; eta 18:30ean, kontzertu akustikoa, Leire Etchezarreta eta Pello Herizen eskutik. Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en.

Barbakoa Festa egingo dute zapatuan Arbolapetan

Ibai-arte eta Ezkiña tabernak Barbakoa Festa antolatu dute biharko. "19:00etatik aurrera, kontsumitzeagatik, txorizo, txistor, txerri-saiheski edo hirugihar pintxo oparituko dugu", azaldu dute. Era berean, Asier Antiak "sukaldaritzarako eta brasa menderatzeko duen talentua" plazaratuko du.

Gainera, Ezkiña tabernak, Azpilikueta, Landaluze, Otamendi eta Saburdi harategiek eta Ibai-arte indarrak batu dituzte Geraldine musikaria Arrasatera ekartzeko. "Bossa nova musika onarekin giro gutako ekitaldi ahaztezina izango da, eta *HÓ BÁ LÁ LÁ* lana eskainiko digu", nabarmendu dute.

Herria kantari ariko dira bihar Arizmendi Ikastolako ikasleak

Herria Kantari jaialdia egingo du Arizmendi Ikastolako bihar, eta, 11:30ean hasi eta 13:00ak arte, ikasleak Arrasateko erdigunean kantuan ibiliko dira: abesti herrikoi eta ezagunak. Ekitaldi horrek azken hogeita hamar urteetan egin izan duten Abesbatzen Topaketa ordezkatu du. Azken topaketa 2019an izan zen, Amaia antzokian; beraz, aurtengoa ezberdina izango da, kalean. Eguraldi ona egiten badu, Portaloian, Arbolapetan, plazan, Laubide plazan eta Biterin egongo dira. Euria egiten badu, berriz, Uarkapeko arkupean, Jokin Zaitegi plazan, udaltxe arkupean, Parrokiako arkupean eta Biterin.

SUV gama Hibridoa eta elektrikoa

Merkatuko ECO gama osatuena

Hyundai BAYON
Hilean

130 €-tik aurrera

- 130 €-ko 47 kuota
- Sarrera: 3.285
- Azken kuota: 9.608,49
- UTB: %9,01*
- TIN: %7,50



Hyundain badakigu zein garrantzitsua den zuretzat modu iraunkorrean mugitzea.

Horregatik aurkezten dizugu merkatuko **SUV Gama Hibrido eta Elektrikoa** osoena. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

Bayon Hibridoa (48V): merkatuko osatuena. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

KONA Gama: ezagutu Hyundai KONA Gamaren aldakortasun harrigarria eta gozatu haren bertsio hibrido eta elektrikoarekin.

TUCSON Gama: ohikotasunetik haratago joango zara TUCSON Hibridoaren eta TUCSON Hibrido entxufagarriaren diseinu ausartarekin eta azken teknologiarekin.

SANTA FE Gama: gozatu beste maila batean SANTA FE Hibridoarekin eta SANTA FE Hibrido entxufagarriarekin, eta halen 7 plaza zabalekin.

Hyundain lanean ari gara karbono-aztarna ezabatzeko. %100 gama elektrikoa European 2035erako.



HYUNDAI MUGARRI OARSO CAR
San Andres kalea 6 • Arrasate
943 79 70 06



5 URTE Km-en mugarik gabeko
Bermea

8 URTE **Bateriaren**
bermea



Malen Ruiz de Azua eta Jonathan Perez entrenatzailea, martitzenean, Mojategiko lan-saioan zuzenketak egiten. X.U.

Marka egin, eta zakua puntuz betetzera

Malen Ruiz de Azua Iberoamericano txapelketan lehiatuko da gaur, egubakoitza, 19:00etan. Txapelketa hori Perun egin zuten azkenekoz, 2018an. Arrasatekoak 4,40ko marka egin nahi du, eta Europako txapelketarako puntu kopuru polita lortu

Xabier Urtzelai ARRASATE

Gauean dira aire libreko hitzordu handiak, eta Malen Ruiz de Azua (Arrasate, 1995) gogor dabil udako sasoiaren prestatzen. Gaur, egubakoitza, izango du hitzordu handietako bat, 2018az geroztik antolatzen ez zuten nazioarteko Iberoamericano txapelketan Espainiako federazioarekin egoteko aukeratua izan da arrasatearra. Duela lau urte Peruk hartu zuen txapelketa hori antolatzekeko ardura, eta egunotan La Nucian –Alacanten– batuko dira nazioarteko atleta onentsuenak. Arrasatekoak garbi dauka zein den helburua. "Marka egin nahi dut. Neguan ez ditut nahi nituen emaitzak lortu eta aire libreko denboraldian nahi dut hori zuzendu", adierazi dio arrasatearrak GOIENARI, aste barruan egindako entrenamendu saioan.

Eta halaxe da, 2022 honek ez du, oraingoan, iazko urtearekin zerikusirik. Iaz 4,47ko marka egin zuen neguan –marka per-

tsionala– eta gainera, Polonian jokaturako Nazioen Txapelketan zilarra jantzi zuen. Udan, berriz, Espainiako txapelketan izan zen Madrilen (4,43).

Aurten, berriz, entrenamenduetan egindako lana ezin izan du txapelketa handietan erakutsi. Arrasatekoak 4,31-ko saltoa egin zuen apirilaren 30ean, Andujarren egindako Iberdrola txapelketan. Eta marka hori gainditu nahi du, pista estalian ere 4,30eko egin zuelako. "4,40ko saltoa egitea sinatuko nuke, gutxiagorekin ez nintzateke konformatuko, marka horrekin podiumaren bueltan ibiliko nintzateke, aurtengo marka egingo nuke eta puntu dezenterekin itzuliko nintzateke. Hala, La

**IBEROAMERICANO
TXAPELKETAN
LEHIATZEKO
AUKERATU DUTE
ARRASATEKO ATLETA**

Nuciako pistan behin bakarrik lehiatu naiz, eta ez nuen emaitza nabarmenik lortu baina sentsazio onak izan nituen, ea zer moduzko txapelketa egiten dudan".

Puntuak daude jokoan

Iberoamericanon, baina, marka ona egitea ez da helburu bakarra: "Iaz nazioarteko txapelketetara sailkatzekeko sistema aldatu egin zuten, bai Europako txapelketara joateko, Mundialera, Olinpiar Jokoetara... Hala, aukera bat da gutxienean marka egitea, baina hori gutxi batzuek lortzen dute, eta bigarren aukera da txapelketetan ahalik eta puntu gehien batzea. Eta Iberoamericanon eta Espainiako txapelketan –sanjuanetan izango du hitzordu hori– puntu mordoan egongo dira jokoan.

Aurreratu moduan, emakume pertsona-jauzilariak gaur, egubakoitza, dute hitzordua (19:00), eta txapelketa Teledeporten jarraitu ahal izango da.



Irene Murua, baloia babesten. GOIENA

Lehenengo mailara igotzeko txartela dute jokoan, etxean

MUko neskek lau finala jokatuko dute asteburuan, Iturripen; Getxo gainditu beharko dute bihar, zapatua

X.U. ARRASATE

Lehenengo mailara igo gura dute Mondragon Unibertsitateko neskek, eta txartel hori asteburuan egongo da jokoan, Ointxe!-k etxean antolatuko duen lau finalen. Hala, aurrez aurre izango dira MU, Maristas Logroño, Askartza Claret eta Getxo, eta, hain zuzen, MUren eta Getxoren arteko partidua erekin hasiko dute saskibaloia jaialdia zapatuan (18:00). Ondoren jokatuko dute Maristas Logroñok eta Askartza Claretetik (20:00). Onenak domekako finalerako sailkatuko dira (18:00).

Moreak dira faboritoak

Liga erregularrean ikusitakoak ikusita, *Arri*-ren neskak dira faboritoak, eta, gainera, etxeko zaleen aurrean jokatuko dute. Baina partidu bakarreko kanporaketak beti dira arriskutsuak. "Urduri egongo gara, seguru,

eta presioa sumatuko dugu, baina nortasunez jokatu behar dugu", adierazi du aste barruan, Arrasate Irratian, Izar Bedia. Biharko kontrario Getxori ligan etxean eta kanpoan irabazi die (88-67, 65-87), baina egia da, baita ere, Maristasen kontra gehiago sufritu zutela; Logroñon arrasatearrek galdu egin zuten (69-64). Horrek erakusten du etxekoek gauzak ondo egin beharko dituztela, baina kantxan erakutsi dute kontrarioak baino gehiago direla, eta, horrez gain, lehendik zuten talde onari Irene Murua azken txanpan batu izanak bultzada eman die.

Seniorrek finala dute

Lauko finalaren aurretik (Iturripen, 16:00), hirugarren mailako seniorrek finala jokatuko dute Easoren kontra. Arrasatekoek dagoeneko lortu dute mailaz igotzea.

Santamas krosak aldaketak izango ditu ibilbidean

Ibilbideari dagokionez aldaketak izango ditu domekan egingo duten santamas krosak, nahiz eta txikiak izango diren. Kua-drillen Arteko Krosa –42. edizioa– 12:30ean hasiko dute, 11:00etan hasita gaztetxoendako lasterketak izango dira eta, nagusien lasterketako irteera plaza izango bada ere, helmuga Garibai etorbidean jarriko dute.



2018ko lasterketako irudi bat. GOIENA

Txistu-doinuek txalotuko dute zikloaren bukaera

Heldutasunera iritsi da Udaberriko Musikaldia, aurten 18. aldiz antolatu baitu Udaleko Kultura Sailak, herritarrei "askotariko proposamenak" eskaintzeko helburuarekin. Domekan, 19:30ean, Harribitxi bikoteak borobilduko du egitaraua, Kulturaten

Hasier Larrea ARRASATE

Iker Alvarez bilbotarra eta Aitor Urquiza burlatarra dira Harribitxi izenaren atzean dauden musikariak. Goi-mailako ikasketak egindakoak, txistu-irakasleak dira gaur egun, baina elkarrekin konposizio propioko kantutak sortu eta interpretatzera ere dedikatzen dira. Lankidetzaren horren emaitza da Harribitxi proiektua. "Instrumentu ugari nahasten ditugu, txistuari soinuak danbolin, pandero, gitarra, mandolina eta ezohikoak diren beste hainbat musika tresna harrigarriekin uztartuta", adierazi dute. Horiekin guztiekin euskal folklore tradizionala,



Urquiza eta Alvarez, emanaldi batean. HARRIBITXI

musika zelta, tangoa, balsa, *choro* brasildarra eta dantzarako piezak lantzen dituzte.

Erronkak betetzen

Haien emanaldiarekin amaituko da Musikaldiaren XVIII. zikloa. Kultura Saileko teknikari Karmelo Alberdiren esanetan, "musika proposamen desberdinak erakusteko plaza aproposa" da Musikaldia, "betiko konposizio klasikoetatik harago doazen artistak ekartzea" baitu helburuetako bat. Eta herriko musikariei tokia egitea, noski. "Aurten, Alberto Urretxoren banda eta Arrasate Musikalen hari-orkestra gonbidatu ditugu, eta entzuleek hobere erantzun duten kontzertuak izan dira; pozgarria da herriko harrobiak babes zabala jasotzen duela frogatzea", azaldu du Alberdik.

Atzera begiratu eginda, "emakumeei begirako sentsibiltatea" asko hazi dela nabarmendu du, "lehen arraroagoa" egiten zela emakume musikariak oholztan ikustea. Dagoeneko datorren aldirako "ideiak hartzen" jarriak direla gaineratu du.

Astebururako bi hitzordu Arrasate Musikalen eskutik

Familien arteko kontzertua egingo dute gaur Kulturaten, 18:30ean hasita. Hala, musika eskolako ikasleen senitartekoek aukera izango dute haien dohainak erakusteko. Bihar, 11:00etatik 13:00etara, Biteri plazan arituko dira, *Ginkana musikala* delakoan; jokoan bitartez, askotariko musika-tresnak ezagutuko dituzte adin guztietako neska-mutilek.

Transexualitatea ikusarazteko filma diruz lagundu daiteke

Itsulapikoa plataforman diru-bilketaren ari dira MUn Komunikazio Gradua ikasten ari diren sei lagun, *Ni horrelakoa naiz* film laburra grabatzeko. Dioteenez, LGBTBIQ+ kolektiboari ikusgarritasuna eman nahi dio proiektuak: "Desinformazio handia baitago gai horrekiko". Trans neska baten trantsizio-prozesua kontatuko dute.

Gelmako azkeneko etxeak!



4 logelako etxebizitzak
Gelman (Arrasate)

obenerreka

BIBAI
INMOBILIARIA

943 253 821

info@inmobibai.com

Deba kalea 3 Arrasate

www.inmobibai.com

309.000 €-tik+BEZa
Garaje itxia barne



Aramaioko Musika Eskolako ikasleen emanaldia, 2021ean. A.E.G.

Musikaren ertz guztiak ezagutzeko aukera

Musika Astea egingo dute datorren astelehenetik aurrera Aramaion. Denetariko musika eskaintza antolatu dute: musika zineman, jazz-rock eta musika klasikoko kontzertuak, erretiratuen eta musika ikasleen emanaldiak, Ikusiz Gozatu eta abar

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaioko Musika Eskolak, beste zenbait talderen laguntzarekin, Musika Astea antolatu du. Herriarrek musikaz gozatu eta, era berean, herrian egiten diren ekintzak ezagutzeko modua izango da.

Aste osorako egitaraua prestatu dute. Herriko taldeek eta kan-

potik etorritakoek izango dute lekua egitarauan. Martitzenean, esaterako, Alaiak erretiratuen kantu tailerreko abeslariak ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute Sastiñan. Emanaldia baino lehen, eguneko zentrora egingo dute bisita, eta, emanaldiaren ondoren, kalean zehar ibiliko dira kantu tradizionalen

herria alaitzen. Ikasturtean ikasitakoa erakutsiko dutenak ere musika eskolako ikasleak izango dira. Bakarka eta taldeka igoko dira taula gainera, egunean, kultura etxean.

Musika kontzertuak

Askotariko musika estiloek izango dute lekua Musika Astean.

Musika emanaldiak bi egunetan izango dira aurtengo jaialdian

Eguzkierripa rock jaialdia egingo dute aste bukaeran, Gazte Asanbladak antolatuta, plazan eta Andra Marin

A.E.G. ARAMAIO

Musika protagonista izango den aste bukaera antolatu dute Gazte Asanbladako kideek. Eguzkierripa rock jaialdiko XIII. edizioak aldaketa txiki batzuk izango ditu: bi egunera zabaltu dute egitaraua; baina, bestalde, zapatuan ez da bazkaririk egongo. Gaur, barikua, hasiko dira musika emanaldiekin.

Hip-hop, rap eta trap doinuak izango dituzte gaur, iluntzean, 22:00etan hasita Bizente Goikoetxea plazan. Gasteizko Do No Shit taldeak rap doinuak



Jon Izaga, Mutiko. GOIENA

ekarriko ditu; ondoren, Aramaioko eta Arrasateko musikarien txanda izango da: Mutiko, Tatta, Denso eta Etxepe izango dira musikariak; eta emanaldia amaitzeko ardura izango dute An2an eta Eteranal disko-jartzaileek.

Bihar, zapatua, ohiko emanaldien txanda izango da Andra Mari ermitaren kanpoaldean. Arrasateko Cristian&Olatz bikoteak formatu akustikoan egingo du emanaldia; ondoren, Broken Legacy, Bordan Bizio, Ballarasa, Saia Goait, The Clayton eta Lukien taldeen txanda izango da.

Musika emanaldiak 18:00etan hasiko dira. Antolatzaileek esan dute Andra Mari ermitaren kanpoaldean txosna jarriko dutela, eta, horrez gain, ogitartekoak ere salduko dituztela.

Atzo ziren hastekoak goiko taberna inguruko lanak

Nardeaga eta Pedro Ignazio Barrutia kaleen arteko irisgarritasun lanek hilabete inguru iraungo dute

A.E.G. ARAMAIO

Promociones y Pavimentaciones Bajorza enpresari esleitu dizkiote lanak, 74.755,92 euroko aurrekontuarekin. Atzo ziren hastekoak hilabete inguru iraungo duten lanak.

Helburua da Nardeaga eta Pedro Ignazio Barrutia kaleen arteko elkargunea guztiz irisgarri egitea. Besteak beste, ondorengo lanak egingo dituzte: oinezkoentzako pasabideen eremuetan dauden espaloien egungo behe-eratzak aldatuko dituzte; ondoren, behe-eratzetako pasabide horiek

trumentu ezezaguna joko dute. Ekiñe Casado arrasatearrak, aldiz, solasaldi musikatu egingo du.

Musikarekin lotuta bi film ere emango dituzte: astelehenetan eta domekan.

Musika Astea Aramaion

Ondoko egitaraua prestatu dute.

Maiatzak 23, astelehena

- **19:00** Musika zineman. *El blues del Teherán* filma, kultura etxean.

Maiatzak 24, martitzena

- **18:00** Alaiak kantuan, Sastiñan.

Maiatzak 25, eguaztena

- **16:00** Ate irekiak Musika Etxean, 17:45era arte.
- **18:00** Ekiñe Casadorekin solasaldi musikatu, Sastiñan.

Maiatzak 26, eguena

- **18:00** Musika eskolaren emanaldia, kultura etxean.

Maiatzak 27, barikua

- **19:00** Jazz-rock kontzertua: Lorena Aisa Quartet, parkean.

Maiatzak 28, zapatua

- **19:00** Musika klasikoko kontzertua: zeharkako txirula eta marimba, kultura etxean.

Maiatzak 29, domeka

- **19:00** *La familia Belier* filma, Ikusiz Gozatu taldearen eskutik, kultura etxean.

Oharra: eguraldi txarra bada, parkeko kontzertua kultura etxean izango da.

trumentu ezezaguna joko dute. Ekiñe Casado arrasatearrak, aldiz, solasaldi musikatu egingo du.

Musikarekin lotuta bi film ere emango dituzte: astelehenetan eta domekan.

Beteranoen mailan Espainiako txapeldun

Maiatzaren 15ean Santsoainen (Orbaibar, Nafarroa) jokaturako Espainiako plater tiroketa txapelketan nagusi izan ziren aramaiorak: Juan Luis Nafarrete lehenengo geratu zen eta Enrique Ullibarriarana bigarren, beteranoetan, mini fosa modalitatean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Espainiako plater tiroketa txapelketa jokatu zuten domekan Nafarroako Santsoain herrian. Aramaioko lau tiratzaile izan ziren han, eta emaitza onekin itzuli ziren: mini fosa modalitatean, beteranoen mailan, Juan Luis Nafarrete txapeldun izan zen; Enrique Ullibarriarana, aldiz, txapeldunorde. Aitor Abarrategi eta Ramon Gonzalez – Aretxabaleta – izan ziren beste bi tiratzaileak.

"Irabaztea oso zaila izaten da, lan ona egitera joan nintzen, eta iaz Enriquek irabazi zuela ikusita, norbait podiumera igotzeko itxaropenarekin joan nintzen", azaldu du Nafarrete. Mini fosa modalitatean lehiatu ziren aramaiorak: hiru txandatan 75 plater botatzen dituzte modalitate horretan. "Urduri hasi nuen lehia. Lehenengoan, 25etik 23 bota genituen, bai nik eta baita Enriquek ere; bigarrenean, haizeak gogor jotzen zuen arren, 24 bota genituen bakoitzak; eta, hirugarrenean, 25ak lortu nituen nik", adierazi du Nafarrete. Beteranoen maila lortuta, sailkapen orokorra erabakitzeko beste tiraldi bat egin zuten: "Tentsio handiarekin, gaizki aritu nintzen", dio. Orokorrean 8. egin zuen -120 partaide-.



Juan Luis Nafarrete, garaikurrarekin. A.E.G.

DOMEKAN, ARRATEN, EUSKADIKO KOPA JOKATUKO DUTE ARAMAIOKO TIRATZAILEEK

Kurtzeta Gain taldea

Nafarrete bere kabuz joan zen txapelketara; Ullibarriarana, aldiz, beka batekin. "Irunen jokaturako Euskadiko kopan lortu nuen Espainiakorako beka", esan du Ullibarriarana. Pozik

itzuli zen aramaiarra, laguna den Nafarreteren garaipena ikusita.

Aramaioko tiratzaileek hainbat txapelketa izango dituzte hurrengo egunetan: domekan, Arraten, Euskadiko kopa jokatu dute; eta maiatzaren 28an eta 29an Valladoliden lehiatuko dira. Euren zaletasuna dela diote: "Helburua gozatzea izaten da". Kurtzeta Gain plater tiroketa taldean 40 bat bazkide dira, baina txapelketetan ibiltzen direnak 15 bat dira. Gero eta gazte gutxiago daudela diote, penaz.



Escolako ikasleak, diplomarekin. JAGOBA DOMINGO

"Mimo handiz" sortutako lanak aurtengo literatura lehiaketan

Mikroipuinen modalitatean, Ilargi Bengoa eta Maite Gomez de Segura izan dira irabazleak

A.E.G. ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak barikuan banatu zituen literatura lehiaketako sariak. Azkeneko bi urteetan sari banaketa ekitaldiak moldatu egin behar izan zituzten; aurtun, betiko formatura itzuli dira. Literatura lehiaketara 48 lan aurkeztu dira eta horiek irakurri eta baloratu dituzte Itziar Blazquezek, Irene Txurrukak eta Ainhoa Bikuñak.

Euskara elkarteak kide Ane Arrizabalagak dio pozik daudela lehiaketaren mailarekin: "Oso lan txukunak aurkeztu dituzte, mimo handiz sortutakoak. Nahiz eta egia den urtetik urtera gero eta jende gutxiagoren lanak jasotzen ditugula".

Mikroipuinen modalitatea

Iaz estreinatu zuten mikroipuinen modalitatea, gehienez 100 hitzekin osatutako lanen saila. "Eran-tzun polita izan du mikroipuinen

modalitateak, ez gura bestekoa, baina polita". Hiru lan jaso dituzte mikroipuinen modalitatean: nerabeen mailan bat eta helduen mailan bi. Nerabeen mailan, Ilargi Bengoaren *Gazte baten paranoiak* lanak irabazi du lehenengo saria; eta helduen kategorian, Maite Gomez de Segurak, *3ber3* lanarekin. Bigarren saria jaso du Ane Arriolabengoaren *Banoa eurekin* sormen lanak.

Escolako gaztetxoak

Ipuinen sailean, LH-1eko eta LH-2ko gaztetxo guztiek diploma jaso zuten. LH-3 mailan, Haizea Kortabarria eta Ur Agirre izan ziren irabazleak; LH-4 mailan, Maia Armendariz eta Lide Abarrategi; LH-5 mailan, June Nafarrate eta Haitz Torres; eta LH-6 mailan, Izaro Ezpeleta eta Manex Astola. Aurtengo sari banaketara ezin izan dute ipuin kon-talaririk ekarri.

Iaz, Ullibarriarana txapeldun

2021ean ere Aramaiora ekarri zuten Santsoaingo garaikurra. Orduko hartan, Enrique Ullibarriarana izan zen txapeldun beteranoen mailan. Bitxikeria moduan, 2021ean Nafarrete joan zen bekadun eta Ullibarriarana bere kabuz. 2021a urte ona izan zen Ullibarriararenarentako: fosa olinpiar modalitatean Espainiako txapeldun ere izan zen.



Iazko Santsoaingo Espainiako txapelketako podiuma. E. ULLIBARRIARANA

Laudion jokatu da Señora sariketako bigarren saioa, bihar

II. Señora sariketako bigarren saioa izango dute bihar, zapatua, Laudion, 18:00etan. Sei bertolari ibiliko dira kantuan; tartean, Andere Arriolabengo aramaiorra. Aurtun, aldaketa kualitatibo bat gertatu da sariketan: emakumeei eta ertzeko genero identitateei zabalik dago sariketa. Belaunaldien arteko sare-tzea ere bada helburua.

San Martin jaiak iragartzeko lelo lehiaketa deitu dute

Udalak San Martin jaiak iragartzeko lelo lehiaketa abiatu du. Hori dela eta, jaien inguruko esaldi bat eskatuko dute: esaldi bakarra eta euskarazkoa. 12 urtetik gorako edonork parte har dezake lehiaketan, bakarka edo taldeka. Maiatzaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira lanak, udaletxean edo itxasokultura@gorbeialdea.eus helbidean.

Beste proiektu batzuei heltzeko dirua geratu da

2021eko gerakinetik 2,2 milioi euro aurrekontuetan jasota ez dauden hainbat lan eta gastutara bideratuko ditu Udal Gobernuak: Txarapeako hegala egonkortzea, komentu ingurua berrurbanizatzea eta igogailu bat eraikitzea daude proposamenen artean

Mirari Altube ARETXABALETA

Bost milioi euroko diruzaintzako gerakinarekin itxi du 2021eko aurrekontu-ekitaldia Aretxabaletako Udalak. Hala iragarri du Udal Gobernuak prentsa-ohar bidez, eta, era berean, diru horrekin zer egiteko asmoa duen berri eman. 2022ko aurrekontuan jasota ez dauden proiektu berrietara bideratu gura du ia erdia, eta abian dituen proiektu estrategikoetara beste zati handi bat; ezustekoetarako ere gorde gura du.

Atzeratutako proiektuetatik

Soberakin horri esker proiektu berriei heldu ahal izango diete, Unai Elkoro alkateak azaldu duenez: "Bizitzeko eroso, erakargarria eta irisgarria izango den herri bat eraikitzen jarraitu ahal izango dugu. Bestalde, irtenbide bat behar duten zenbait jarduera gauzatzeko aukera ere emango digu; esaterako, Txarapeako mendi-hegala egonkortzea".

Gerakin hori nondik datorren ere azaldu dute Udaletik; batez ere, hainbat proiektuk izan duten atzerapenagatik gauzatu ez diren partidetatik dator, eta aurreikusitakoa baino handiagoak izan diren jasotako diru-sarreretatik ere bai.

Proiektu estrategikoetarako

Diruzaintzako gerakineko bost milioi euro horietatik bi milioi erabiliko dituzte Udal Gobernuarentzat estrategikoak diren bi proiektu ordaintzeko: Santa Kurtz kalean martxan dauden lanak eta komentuan kokalekua izango duen adinekoentzako gizarte zentroa.

Gainerako hiru milioietatik 2.200.000 euro 2022ko aurrekontuan sartzea proposatu dute "proiektu berriak" bideratu ahal izateko eta beste hainbat gasturi aurre egiteko –taulan jasota guztiak–.

Ezustekoetarako

Geratzen diren 800.000 euroak, oster, gordetzea planteatu dutela adierazi du alkateak, ezustekoei eta aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko: "Zuhurrak izaten jarraitu behar dugu. Errusiak Ukraina inbaditu izanak eragina du ekonomian, eta, gainera, pandemiaren ondorioak

pairatzen ari gara oraindik, azken aurrekontu-ekitaldiak baldintzatu baitizkigu. Ezegonkortasun honen aurrean, ezustekoei eta beharrei erantzuteko prest egon behar dugu".

Astean aurkeztu duen proposamen hori hurrengo osoko bilkuran aurkeztuko du Udal Gobernuak, onartua izan dadin.

Sei proiektu

Gerakinaren 2.200.000 euro honako proiektu hauetara bideratzea proposatu du Udal Gobernuak:

- **Arkupeko klimatizazio sistema** berria –eguzki plakak eta aerotermita–: 100.000 euro.
- **Igogailu publikoa**, Iturrizar plazan, ibaiaren ertza eta Txarapea ibilbidea lotzen dituen pasealekua lotzeko –proiektua eta eraikitzea–: 416.300 euro.
- **Txarapeako etxebizitzaren hegala** egonkortzea –obra osoaren inbertsioa 650.000 euro–: 273.483 euro.
- **Komentu ingurua berrurbanizatzea** –urbanizazioa eta zubia eraikitzea ibaia inguratzen duen pasealekura–: 640.000 euro.
- **Ibarra futbol zelaia** ureztatzeko sistema berria: 22.651 euro.
- **Elektrizitatearen, gasaren eta zaborraren prezioaren** igoerei aurre egitea: 403.000 euro.



Komentu ingurua Deba ibaiaren alboan. MIRARI ALTUBE



Uribarren, Agirrezabalaga eta Isasmendi garai hartako argazkia erakusten. H. LARREA

Afizionatu mailako Espainiako txapelkun izandakoei omenaldia

1971-1972ko denboraldian jokalaria izan zirenek urrezko intsignia jasoko dute domekan, futbol zelaian

M.A. ARETXABALETA

Orain dela 50 urteko denboraldia UDAko futbol sailaren denboraldirik onena izan zela diote. Izan ere, "txapelketa guztiak" irabazi zituen Juanito Arriaran arrasatearrak gidatutako talde hark. Garrantzitsuena izan zen afizionatu mailako Espainiako Txapelketa; Murtzian jokatu zen bueltako partida, 1972ko uztailaren 16an, eta garaipena lortu zuten luzapenean.

Talde hartako jokalaria omen duko dituzte datorren domekan, hilaren 22an; Ohorezko Erregionaleko taldeak Allerruren aurka jokatu duen partidua atsedendian izango da (17:15). UDAREN 75. urteurrenaren baitan antolatutako ekitaldia da.

Bazkaldu eta partidura

Jokalaria onak, lesio gutxi eta zorte handia izan zutela dio Jose Inazio Isasmendik, jokalaria-

ko batek. Gainerakoak honako hauek izan ziren: Jabier Viteri, Julio Esteban, Miguel Garcia de Iturrospe, Pello Unzueta, Juan Apellaniz, Agustin Corral, Patxi Agirrezabalaga, Joseba Etxagibel, Santi Idigoras, Miguel Camara, Isidro Vicente Calvo, Jose Antonio Murgotio, Antonio Buceta eta Joxe Migel Uribarren. Bat edo beste dagoeneko hil da, baina gainerako gehienak izango dira omenaldian, eta hildakoen senideak ere bai. "Aurretik elkartuko gara; batzokian dugu bazkaria, eta gero, elkarrekin joango gara partidua ikustera", dio Isasmendik.

Harreman polita dutela onartu du, eta horri eusten saiatzen dira, urtero elkartuta: "Azken urteotan Aretxabaletan egiten dugu hitzordua, eta aurtan ere badugu asmoa; uztailaren 16an, partidua jokatu genuen egun berean izango da".

Batzar orokorra egingo du Basotxok maiatzaren 26an

Erretiratuek batzar orokorra egingo dute datorren egunean (17:00) elkartean bertan. 2019ko eta 2020ko ekitaldietako aktak onartuko dituzte lehenengo, baita 2021eko memoria ere. 2022rako aurreikusitako jardueren berri emango dute gero, eta zuzendaritza batzordea berritzea da asmoa; galderak egiteko tartea ere izango dute bazkideek.

Hiru-txirlo bola-txapelketaren kanporaketa bihar

Gipuzkoako 51. hiru txirlo txapelketaren barruko bola-joko lehiaketa jokatu da bihar, zapatua, bolatokian. 17:00etan hasiko da, baina aurretik zabalduko dute –11:30etik 13:30era eta 16:00etatik aurrera–. Txirlo gehien botatakoek honako sari hauek jasoko dituzte: 65 euro, 50 euro, 35 euro, 20 euro, 10 euro eta ezustekoa.

Berdegunerako "aukerak" aurkeztu ditu EH Bilduk

Oposizioak uste du Markole auzoko zelaian zer egin erabakitzeke abiarazitako parte-hartze prozesua "aurretik" egin behar zela, baina lanean jarraitzeke gertu agertu da; inguru osoa kontuan hartuta garatutako hiru proposamenen berri eman du

Mirari Altube ARETXABALETA

Kiroldegiaren aurrealdeko berdegunean zer egin erabakitzeke Udal Gobernuak abian jarri duen parte-hartze prozesuaren harira EH Bilduk bere iritzia agertu gura izan du, eta egindako ekarpenen berri eman.

Parte-hartze "prozesu espres" hori skate-parkea egin baino lehen zergatik ez zen planteatu galdetu zuten EH Bilduko zinegotziek: "Era desordenatuan eta inprobisatuan egin zen dena, eta orain, planifikaziorik ezaren ondorioak datoz". Eta "hamabost egunetan" egindako prozesu baten bidez "urte askotarako" izango diren kirol ekipamenduak erabakitzeak zalantzak eragin dizkie.

Jolasa eta kirola "uztargarri"

Ibarra kiroldegiaren eta futbol zelaien inguru hori guztia kontuan hartzea gura dute, eta ez berdegunea bakarrik. Eta ingurua "humanizatzearen" alde agertu ziren: "Egun-pasarako, jolaserako edo kirol arautua egiteko gunea izatea guztiz uztargarria delako: gauza ezberdinak batera egiteko aukerari balioa ematen diogulako". Horregatik, herritarren interesak zeintzuk diren aztertzea jo dute interesgarritzat: kirol mota gustukoena, espazioen erabilera –autoen zirkulazioa, kirol ekipamenduak–...

Udal Gobernuari "aspaldi" proposatu zizkietela zenbait aukera adierazi zuten: "Eta oraintsu, hiru aukera posible horiek zehaztasun handiagoarekin jarri dizkiogu mahai gainean. Orain, herritarrei helarazi gura diegu, erabakitzeke orduan ahalik eta informazio gehien izateko".

Joan den astean egindako parte-hartze prozesuan jasotako informazioa, teknikarien ekarpenak eta esku artean dituzten ideiak kontuan hartuta, hiru aukera proposatu ditu EH Bilduk:



Ion Albizu, Jone Ojea eta Gorka Gabilondo zinegotziak. MIRARI ALTUBE

Hiru proposamenak:

Lehenengo aukera

- Berdegunean kirol ekipamenduak jarri: estalitako kirol-gunea eta irekiak: ur-jolasak...
- Ingurua –errepidea, aparkalekuak– bere horretan mantendu.

Bigarren aukera

- Berdegunea mantendu, kirol ekipamenduei lekua eginda: ur-jolasak, mahaiak...
- Bi futbol zelaien arteko errepidea noranzko bakarrekia: aparkalekuak alde batean, bidegorria bestean.
- Futbol zelai handiaren atzealdean estalitako kirol-gunea.
- Kiroldegiaren eta futbol zelai txikiaren artean plazatxo bat: ping-pong mahaiak...

Hirugarren aukera

- Berdegunea mantendu, kirol ekipamenduei lekua eginda: ur-jolasak, mahaiak...
- Bi futbol zelaien arteko errepidean –autorik ez– estalitako kirol-gunea.
- Kiroldegiaren eta futbol zelai txikiaren artean plazatxo bat: ping-pong mahaiak...

"Ez dira aukera itxiak, haien artean hainbat elementu trukatu daitezke". Irizpide moduan honako hauek hartu dituzte kontuan, besteak beste: kirol edo aisialdi ekipamendu mota; berdegunearen erabilera –bere

horretan mantendu edo ez–; eta oinezkoen lehentasuna, segurtasuna eta aparkalekuak.

EH Bilduko zinegotziek lanean jarraitzeke gogoia agertu dute, "nahiz eta parte hartze prozesuak gabezia asko izan".

Kultura arteko bazkaria egingo dute domekan, komentuan

Zenbait herrialdetako jakiak dastatzera eta dantzak eta ohiturak ezagutzera gonbidatu dituzte herritarrek

M.A. ARETXABALETA

Jendea ezagutzeko, zenbait herrialdetako jakiak probatzeko eta kantuan eta dantzan egiteko aukera izango da etzi, komentuan; izan ere, kultura arteko bazkaria bueltan dator. Gu Haziak Gara eta Loramendi elkarteek antolatu dute, Udalaren laguntzarekin.

Ondoetorria egingo dute 13:00etan, elkar ezagutzeko unea eskainita. Bazkaria komentuko lorategian izango da, 14:30 bueltan; mahaiak eta aulkiak Aretxabaletako Udalak jarriko ditu

eta ontziak, Oñatiko Udalak. Jatekoa norberak eroan behar du eta elkartutakoekin partekatu hori.

Bazkalostean, 16:00 inguruan, kantuen txanda izango da, eta, ohitura duten legez, *Habibi mai-tea* abestuko dute. Dantzan egiteko musika ere egongo da; cumbia doinuak, esaterako.

Argibide gehiago gura duenak edo izena eman –egunean bertan ere bai– telefonoz deitu dezake –681 65 59 39 edo 645 70 88 63– edo mezu bat bidali: auzoko.lora-mendielkarte@gmail.com.

II. Kuartel Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude

Maiatzaren 27an eta 28an ospatuko dute II. Kuartel Eguna, eta kontzertu mordoa iragarri dituzte ordurako –sarrera, 5 euro–. Egubakoitzean, esaterako, John Dealer And Coconuts, Rodeo eta Etxekalte taldeak izango dira, eta zapatuan, Jotabe, Inalektrik, Dear Flakutxo, Trigger, Oihul, Lehen Lerroa eta Eten. Musika elektronikoari dagokionez, Joe Pieman & Gusilu eta BRGS izango dira, besteak beste.

Mahaiaren bueltan elkartzeko asmoa ere badute, eta bazkarira joan ahal izateko txartelak erosi behar dira aldeaz aurretik; Urbaltz eta Ezkutu tabernetan dituzte interesatuek, 15 euroren truke.

OHARRAK

Euskaraldia bilera

Euskaraldia gertatzen hasteko bilera irekia egingo dute astelehenean (18:00) udaletxe zaharrean; lehenengo izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Musika emanaldiak

Leizarra musika eskolako ikasleen emanaldiak egingo dituzte Arkupen (18:00); haize-metal eta haize-egur instrumentuena astelehenean eta perkusiokoena eguaztenean.

Odol ematea

Astelehenean odola emateko aukera izango da Durana kalera etorriko den autobusean (16:45-20:00).

Jou Díaz
Karakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Danborradako entseguak hastear, berritasunekin

Maiatzaren 31n hasiko dira San Pedro bezperako danborrada prestatzeko entseguak, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Horrekin batera, batailoi berria izango da aurtengo danborradan, eta baita Eskoriatzako musika bandak sortutako bi pieza ere

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Ekainaren 28an hasiko dira San Pedro jaiak, eta bi urte hauetan ohi moduan egin ez den arren, San Pedro egun bezperan, herriarren artean hain gustukoa den danborrada izango da. Hori horrela, ordurako prestatzeko entseguak maiatzaren 31n hasiko dituzte parte-hartzaileek. Hortik aurrera, martitzenetan eta eguenetan, 21:00etan batuko dira danborrada osatuko duten konpainietako kide guztiak, Joseba Iñurrategi pilotalekuan, piezak errepasatu, berriak ikasi eta bezperako hitzordura ondo prestatuta joateko.

Espazio falta

Zazpi konpainiak osatzen dute nagusien danborrada, eta horietako azken batailoia 2017an batu zen: hain zuzen ere, Eskoriatza Kirol Elkartearen Batailoia. Talde handia da, eta, horrekin batera, urtez urte geroz eta kide gehiago dituen Presoen Aldeko Batailoia ere bada konpainia jendetsua. Azkenengoz danborrada egin zenean, Fernando Eskoriatza plaza txiki geratu zen parte-hartzaile guztiak bertara iritsi zirenean, eta aurreneko gertatuko den aurreikuspena dago.

"Aste barruan ospatuko da danborrada, eta horrek eragin dezake parte-hartzean. Hala ere, izen-emate kopurua handia bada, zerbait pentsatu beharko dugu Fernando Eskoriatza plazara iristen garenerako. Oraindik ez dakigu zenbat lagun batuko garen, baina azken edizioan jende asko batu ginen, eta plaza txiki geratu zitzaigun. Aurreneko, ondo antolatutako beharko dugu, plazan denok ondo sartzeko eta, bide batez, ikuskizun bikaina emateko... Hala ere, hasiera batean, entsegetarako ez dugu arazorik", adierazi du Andoni Motok, Eskoriatzako danborradako zuzendariak.



Andoni Moto, Eskoriatzako banda zuzentzen. GOIENA

SANPEDROTXIKI BATAILOIA SORTU DUTE AURTENGO DANBORRADAN PARTE HARTZEKO

SanPedroTxiki Batailoia

Hori gutxi balitz, San Pedro auzotik Olazarrena, handik Dorletara eta Aranburuzabala kaltetik barrena Fernando Eskoriatza plazan bukatuko den ekitaldirako konpainia berri bat izango da aurtengo danborradan: San Pedro eta Intxaurtxueta auzoen baturatik sortutako San PedroTxiki Batailoia, hain zuzen ere. "Bi urteko geldiunearen ondorioz, jendea gogotsu dago danborradarako. Hori horrela, iaz, iraileko bigarren asteburuan San Pedro Txiki jaiak ospatu genituenean, auzotar batzuek mahai gainean jarri zuten auzoko festetan danborrada txiki bat antolatzea. Ideiak ez zuen aurrera egin, baina, herriko festetarako taldetxo bat eta taldea osatzera animatu dira, eta, gaur-gaurkoz, 30 lagunek izena eman dute batailoi berrian

parte hartzeko", adierazi du Motok. Bertan izena eman nahi duenak Ilargi tabernan du aukera horretarako.

Bi pieza berri

Batailoi berria estreinatzeaz batera, pieza berriak ere eskainiko dituzte aurtengo danborradan, urteroko *Marcha San Sebastián, Diana, Tatiago, Iriyarena, Gau Ibilera (Txis Pun), Katiuska, Viejas martxa* eta *Debako martxa* piezekin batera. Izan ere, maiatzeko lehenengo asteburuan, Eskoriatzako musika bandaren udaberriko kontzertua izan zen, Zaldibar antzokian, eta bandako musikariek pieza berrien estreinaldiak eskaini zituzten herriarren aurrean. Hori horrela, bertan eskainitako *Mario* eta *Esko aurrera* pieza berriak izan dira hautatuak aurtengo danborradako egitarauan txertatzeko. Bi pieza horiek "herriarentzako piezak" direla eta "eskoriatzarrei zuzendutakoak" direla adierazi zuten bandako musikariek. Hain zuzen, horietako bat, *Mario* pieza, Mario Padilla txistulari eskoriatzarrari omenaldi gisa egindakoa da.

Esaldiak sortzeko prozesua hasi da, pegatinak ateratzeko

San Pedro jaietako esaldi lehiaketan parte hartzeko azken eguna ekainaren 5a izango da

I.B. ESKORIATZA

Azkeneko bi urteetan ez da San Pedro jairik egon, eta ezta jaietako pegatinarik ere, baina aurreneko jaiak bete-betean ospatuko direnez, martxan da aurtengo esaldi lehiaketa. 22. edizioa izango da, eta urteroko baldintza berberak bete beharko dira parte hartzeko.

16 urtetik gorako edozeinek hartu ahal izango du parte, baina hiru pertsona edo gehiagoko taldeak osatuz eta taldean gutxienez eskoriatzar bat baldin badago, eta talde bakoitzak gu-

txienez esaldi bat eta gehienez bost aurkeztu beharko ditu. Ez dago esan beharrik ez direla onartuko neurritz kanpoko kontsumoa edo jarrera sexistak bultzatzen dituzten esaldiak. Whatsappez 636 78 59 71 zenbakira bidalita edo posta elektronikoz euskara@eskoriatza.eus helbidera bidalita aurkeztu daitezke esaldiak, eta bi sari izango dira: batetik, irabazle nagusiarentzat, 100 euroko saria; eta, bestetik, pegatinetarako egokiak diren esaldiak, 50 euro esaldi bakoitzeko.

GORA ETA BEHERA



Herria argindar gabe geratu zen astelehenen

Astelehen gauean poste elektriko batean izandako arazo bat tarteko, argindar gabe gelditu zen herria. Goizaldean itzuli zen elektrizitatea etxe askotara, baina, bizilagun batzuek jakinarazi zuten, martitzen goizean ere argindar gabe esnatu ziren hainbat eraikin.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Elizate guztiak oinez zeharkatzeko martxa

Domekan, 07:00etan hasita, Zazpi Elizateen Martxa egingo da, Fernando Eskoriatza plazatik hasita. Parte hartzeko ez da aurrez izenik eman behar, eta, Apotzagan jarriko duten anoa-postuaz gain, amaieran ere jana eta edana izango dute parte-hartzaileek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Elizate guztiak zeharkatzen dituen eta bi urtetik behin egiten den Zazpi Elizateen Martxa domeka honetan izango da. Fernando Eskoriatza plazan hasiko da, 07:00etan, eta ibilbidea honako hau izango da: plaza, Mazmela, Zarimutz, Marin, Apotzaga, Gellao, Mendiola, Bolibar eta Fernando Eskoriatza plaza; 30 kilometro inguru. Anoa-puntua, berriz, Apotzagan jarriko dute, eliza parean, eta amaitzean ere izango da mokadutxo bat jan eta zerbait edateko aukera. Izen-ematea, berriz, doan izango da, eta, era informalean antolatuta, antolatzaileek parte hartza animatu nahi dituzte herriarrak.

Hamarretakoa, Apotzagan Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia bi urtetik behin egiten da, Zazpi Elizateen Martxarekin txandakatuz, eta bietan ibilbidearen norabidea aldatu egiten dute. Edizio batzuetan, plazatik Mazmelara joanda hasten da eta beste batzuetan, plazatik Bolibarrera igota, alderantzizko norabidea eginaz. Aurten Mazmelara igota hasiko dela bidea adierazi du Edorta Barandiaranek, Atxorrotx Kultura Elkar-terko lehendakariak. "Parte-har-



Zazpi Elizateen Martxaren edizio batean, Apotzagako anoa-postuan. GOIENA

tzaileak plazatik Mazmelara abiatuko dira, eta handik Zarimutzera joko dute. Marinera igotzeko, berriz, Kruzetako aldapa igo beharko dute. Horren ostean, San Adrian ermitatik Apotzagara jaitsiko dira. Han hamarretakoa emango diegu parte-hartzaileei, eta, atsedean hartu ostean, Gellao auzoraino jaitsiko dira, eta handik, Aretxabaleta aldetik, Mendiolara igo beharko dute. Horren ostean, Bolibar aldera, Lete eta Eraña zeharkatuz, eta Eskoriatzako herriko plazan bukatuko dute".

Egindakoari balioa emateko Barandiaranek dioenez, aitortza gisa egingo da aurtengo martxa: "Jose Manuel Crespo *santanderino*-a nagusi dago, eta beste batzuek hartu dugu egitasmoa antolatzeko ardura. Haren ekimenez abiatu zen elizateen martxa, eta lehenengo ediziotik era informalean, lagunartean, egin denez, oraingoan ere modu berean egingo dugu. Crespoz gain, Juan Carlos Altunak ere asko laguntzen zuen martxa honetan, eta, beraz, bien lanari balioa emateko edizioa izango da".

Berbalagunak, museoan

Eguazten honetan izan da Museoen Nazioarteko Eguna, eta, hain zuzen, joan den astean, Eskoriatzako Berbalagunak taldeko kideak Eskoriatzako Ibarraundi museo bisitatzen izan ziren. "Saioa Altzuak emandako azalpenak entzuten hamabost lagun izan ginen", adierazi du Eskoriatzako Berbalagunak taldeko koordinatzaileak, Nerea Zugastik.



NEREA ZUGASTI

LEINTZ GATZAGA 21



2019ko udalekuan egindako irteera batean. GOIENA

Udaleku irekiak prest dituzte, irteera bereziak antolatuta

Uztailaren 4tik 15era bitartean aisialdirako aukera paregabea izango dute Gatzagako neska-mutikoe

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Aurtengo udalekuak antolatuta dituzte Gurel Guraso Elkarteko kideek, eta uztailaren 4tik 15era bitartean izango direla jakinarazi dute. Aurten, Eskoriatzako Jone Azkargorta eta Garazi Barandiaran izango dira begiraleak, eta, momentuz, 4 eta 10 urte arteko zazpi neska-mutikok eman dute izena.

Ordutegiari dagokionez, berriz, goizez 11:00etatik 13:00etara bitartean eta 15:00etatik 17:00etara bitartean egingo dituzte ekin-tzak, eta, egubakoitzetan, soilik, goizez batuko dira.

Irteera bereziak

Aurreko urtetan moduan, irteerak ere izango dituzte astean zehar, eta horiek egiteko egunak martitzenak eta eguenak izango dira, eguraldiaren arabera moldatu daitezkeenak. "Otxandioko Hontza Extrem abentura parke-ra joateko asmoa dugu, eta baita Landara eguzkia hartzera, bainatzera eta jolastera ere. Hori horrela, **izena emateko haurren bat falta bada eta izena eman nahi badu**, aukera du oraindik horretarako", adierazi du Nerea Altunak, Gurel Guraso Elkar-terko kideak.



ANDER MONEDERO

Ekiolaren aurkezpena

Astehenean aurkeztu zuten Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba, Leintz Gatzagako kultura etxean. Bertan, Ekiola Kooperatiba zer den, nola funtzionatzen duen eta proiektuari buruzko xehetasun guztiak azalduko zituzten bertaratutakoen aurrean. Lan horretan aritu ziren Fagor Taldeko Aritz Otxandiano eta Ekiolako ordezkari Amagoia Barandiaran.



AKeko atletismo saileko neska-mutikoak Goizper aurrealdean. JOSE INAZIO GARITANO

Atletismoaren ondarea aurkeztuko dute bihar

Jose Inazio Garitanok gertu zuen herriko atletismoaren historia kontatzeko aurkezpen-saioa. Konfinamenduak, ordea, dena eten zuen orduan. Hala, bihar, testigantza-bloga eta erakusketa aurkeztuko ditu, 11:00etan, Torreosoroan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pandemiak bi urtez atzeratu bazuen ere, azkenik, *Antzuola-ko atletismoaren historia* izeneko aurkezpena egingo du bihar Jose Inazio Garitanok. Atletismoak, saskibaloia eta sokatirak herrian izan duten garrantziaz jardungo du. Gainera, argazkiak eta bideo testigantzak jasotzen dituen bloga ere aurkeztuko du.

"1961ean hasi ginen atletismoan, eskolan. Diziplina asko lantzen genituen eta herriz herri ere egiten genituen txapelketak. Ondo moldatzen ginen, gainera"; horrela gogoratu ditu hastapenak Garitanok.

Lagun taldea Danobat elkartean batzen zen eta tertulia giroan eta Donostiako lehen maratona egiteko ideia bertatik jaio zela

dio. "Bi hilabeteko prestakuntzarekin soilik, hamar bat lagunek parte hartu genuen eta denok bukatu genuen. Orduan erabaki genuen gaztetxoaren artean kirola zabaltzea Antzuolan. Auzoetako jaietan hasi ginen *challenge*-ak egiten. Ondoren, eskolako haurren aisialdia betetzeko asmoz, proposamena egin genien eskolako irakasleei eta astean



Saskibaloia hastapenak

Antzuolan sokatirak eta saskibaloia ere izan dituzte jarraitzaileak. "Sasoi hartan, saskibaloia ez zen oso ezaguna; gogoan dut astebeterako gurekin izan genuela Segundo Azpiazu, 2,10 metroko mutila. Orduan bai izaten genituela saskiratzeak".

hiru egunez egiten genuen kirola. Tarteka, gurasoak ere etorzen ziren; 90 lagun elkartzerira iritsi ginen, pentsa! Hiru ginen bultzatzaileak: Jose Mari Igarza, Luken Beistegi eta ni neu. Entrenatzaile titulua ere atera genuen". Bizitakoak, eta musu-truk emandakoak, merezi izan duela aitortu dio GOIENARI Garitanok. Gainera, atletismoa bai, baina Antzuolan sokatirak eta saskibaloia ere izan dituztela jarraitzaileak azaldu du: "Sokatiran 1977an hasi ginen eta desafioa ere egin genuen: baserritarrak kaletarren aurka. Eta baserritarrek irabazi zuten. Baina berehala konturatu ginen indarrak batu behar genituela eta elkarrekin taldea osatu. 25 laguneko bi talde osatu genituen. Espainiako txapelketan bigarren postua eta EHkoa irabaztea lortu genuen".

Erakusketa

Biharko solasaldiaren ostean, erakusketa izango da ikusgai Orlanen. Gainera, hurrengo bi asteburuetan bisitatzeak aukera izango da, arratsaldean.

Erronka

Domekan, berriz, Garitanok Gorlako igoeran jarrita duen errekorra gainditzen saiatzeko lasterketa egingo da, 11:30ean, plazan. Izan ere, 1955ean, 34 minutu eta 46 segundo behar izan zituen atleta antzuolarrak plazatik abiatuta Gorlara bidea igo eta jaisteko. Hala, marka ontzeko desafioan parte hartzeko dei egin du. "Oraingoz, Ibai Larrearen eta Ion Iturberen parte hartzea dugu konfirmatuta; ea gehiago animatzen diren". 2018ko ekainaren 2an, bi minutu eta 17 segundora geratu zen, esaterako, Aimar Larrea.

Lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Elay enpresak eta MUK

Elkarlanaren helburua sektorean erabiltzen diren piezen ekoizpen prozesua ikertzea eta optimizatzea da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Elay enpresak eta MUKo Goi Eskola Politeknikoak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Automobilgintzaren sektorean erabiltzen diren pieza metalikoen ekoizpen prozesua hobetzea da

helburua, ikerketa bidez produktuaren sendotasuna eta erresistentzia zein fabrikazioaren errentagarritasun ekonomikoa bilatzeko. "Epe luzerako" lankidetzaz hitzarmena sinatu dutela iragarri dute.

Hala, Goi Eskola Politeknikoko ikerketa-taldeak eta Elayko berrikuntza departamentuaren artean doktore-tesiak egingo dituzte ebaketa fineko "prozesu aurreratuak" garatzeko eta amaiera prozesuak "optimizatzeak". Izan ere, ebaketa fineko teknika bidez estapanazioan aritzen da Antzuolako Elay enpresa; besteak beste, automobilgintzako balazta-sistematan, transmisioetan eta eserlekuen sistemetan erabiltzen diren piezak ekoizten ditu.



Elayko eta Mondragon Unibertsitateko arduradunak. VK COMUNICACION

Aho zapore ona utzi du ohiko San Isidro festak

Herri kirolak, bertsoak, sasoiko produktuak, janari eta edari postuak, artisauak eta herriko ganaduzaleen ganadua bertatik bertara ikusteko aukera izan dute herritarrek aurtengo sanisidrotan. Guztira, 28 postuk hartu dute herriko erdigunea

Maidar Arregi ANTZUOLA

Asteburuan guztiz indartuta itzuli dira sanisidroak Antzuolara, eta, eguraldi ederra lagun, zapatu ederra pasa dute kalez kale ibili diren herritarrek. Egubakoitz gaueko bertso saioaren ostean, ganaduz eta tokiko ekoizleen produktuz josi dituzte San Isidro azokako partaideek Herriko Plaza eta Kalebarrenko kalea. Garazi Larrea zinegotzia, gustura, egitarau borobila antolatu dutela adierazi du: "San Isidro indartzeko gogoia bage-neukan eta egun osoko festan bilatzea nahi izan dugu".

Herriko produktuak

Harrera bikaina izan zuten Pikunieta baserriko Josebe Blancoren gaztek eta Amatxo gaztandegiko Txomin Alberdiren askotariko gazta motek. "Zazpi-zortzi gazta mota ekarri ditut; herritarren artean kuriositatea ere pizten dute eta harrera ona izaten dute".

Artisauen eta sortzaileen artea, nola ez, aurtun ere hutsik egin gabe emakume sortzaileen bordatuak eta kakorraz-lanak izan ziren azokan presente, besteak beste. "Astero ikastaroan batzen gara eta erretiratuei eta gazteei ere eskolak ematen dizkiegu. Azokara, berriz, beti etortzen



Herriko eta bailarako artisauen postuak Kalebarrenen. IMANOL SORIANO

HERRIKO ETA BAILARAKO ARTISAU ETA JAKI POSTUEK HERRITAR UGARI ERAKARRI ZITUZTEN

gara", azaldu zuen Juanita Urbistondo irakasleak.

Eskoriatzatik, berriz, Emakume taldeko Kristina Cardenalek, adibidez, xaboiak eta artilez egindako jantziak jarri zituen salgai: "Eskoriatzako baserrita-

rrek artilea ematen digute, eta guk artilea lantzen dugu eta artileari beste bizitza bat ere ematen diogu".

Elkartasun postuak

Anelkarrek, Ez Dot Moztuko Bizarra taldeak, pentsiodunek eta Gure Eskuk elkartasun postuak jarri zituzten euren aldarrikapenak zabaltzeko eta atxikimendua eskuratzeko. Eta aurtun, gonbidatu gisa, azokari erritmoa eta kolorea jartzeko, Bergarako Ndank Ndank elkar-tea izan zen.



AKE

Helburua, lortuta: mailari eustea

Denboraldiko helburua bete du talde gorriak eta azken unean mailari eustea lortu dute. Iker Epelde entrenatzaileak merezitako lorpena izan dela dio: "Hil edo biziko azken fasera taldea fisikoki, mentalki eta animikoki egoera onean iritsi da; nire ustez, merezimendu osoz lortu dugu kategoriari eustea. Azken partidua emozio handikoa izan da".

OHARRAK

Antzuolako triala

Euskadiko trial txapelketarako puntuagarria izango da Antzuolako trial txapelketa. Hilaren 28an, zapatua, jokatu da, 15:00etan hasita.

Carcassonne txapelketa

Jolasenea elkarrekin antolatuta, maiatzaren 28an, III. Carcassonne txapelketa jokatu da Olaranen, 17:30ean. Madrilgo finalerako txartela izango da jokoan eta 16 urtetik gorakoendako da. Parte hartzeko bidea: <http://bit.ly/carcassonne-antzuola>.

'Barberito'-ri omenaldia

Kirola eta kultura uztartzen zituen Jose Inazio Jauregi Barberito-ri omenaldia egingo dio Arrolak ekainaren 11n. Herriko txistulari taldearen eta abesbatzaren eskutik egingo da omenaldia, Torresoroan.

HAPO: bilera irekia

Hilaren 26an, 18:30ean, HAPOren saio irekia egingo da Torresoroan. HAPOaren aurrerakinak jasoko dituen antolamendu aukera desberdinak irudikatuko dituzte.

Inoiz baino ganadu gehiago

Behorrak, zaldiak, astoak, behiak eta ardiak; guztiak, Antzuolako baserritarrek eramanak. "Bazen ordua ganadua berriro ferietan ikusteko. Horrelako azokei bizitasuna eta ikusgarritasuna ematen die. Izan ere, badaude, haur nahiz heldu, ganadua bertatik bertara azoketan bakarrik ikusteko aukera dutenak".



Ganadu postu bat Antzuolako Herriko Plazan. IMANOL SORIANO

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJICA
HARATEGIA**



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Udalaitz kontzesionarioa: kalitatea, teknologia eta segurtasuna bermatzen

Seat, Audi, Volkswagen eta Skoda marketako autoak dituzte salgai Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioan. Begirada etorkizunera begira izanda, auto elektrikoek aldeko apustu sendoa egiten dute, horretarako eskaintza zabala izanda

Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioan Volkswagen etxeko marka guztiekin egiten dute lan: Seat, Audi, Volkswagen eta Skodarekin. Punta-puntako autoak dituzte, eta marka horiek duten berme osoa eskaintzen dute, automobil aukera benetan zabala dute bezeroen eskura. Auto bat erosi gura duen ororen beharretara egokitzen den ibilgailuen gaineko aholkua ematen dute bertan, betiere, segurtasuna eta kalitatea bermatuz, gidatzean lasaitasun handiagoa izateko teknologia eta gidatze-funtzio berritzaileekin hornitutako autoak eskainiz.

Udalaitzen, teknologia aurrekoiak aldeko apustu sendoa egiten dute, etorkizuna horixe dela argudiatuta. Auto elektrikoak errealitate bihurtu dira aspalditik, baina orain, gidari asko hasi dira benetan baloratzen halako auto bat erostea. Aurre-erapenak baditu abantailak, eta, etorkizuneko hiriak bizitzeko espazio hobetzat ikusi behar direla azpimarratuta, Udalaitz autoetako gama elektrikoaren lehen-tasun honekin diseinaturik dago: errekontzta-motorrek sortzen dituzten gasak murrizteko teknologien alde eginez eta 0 isuri dituzten propulsioteknologia berriak garatuz. "Gure kontzesionarioan ditugun marka eta modeloaren arabera, proposatzen ditugun autoen artean azpimarragarria eta berritasun nagusi bezala nabarmendu dezakeguna da online zerbitzuak eskaintzen dituzten auto hauek, dituzten beste hainbat ezaugarriekin batera, eta merkatuan geroz eta indar gehiago hartzen ari diren auto elektrikoak direla ahaztu barik", adierazi du Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioko Jon Galdosek.

SEAT LEON E-HYBRID

Seat etxeko Leon E-Hybrid berria energia elektrikoarekin eta gasolinarekin funtzionatzen duen ezohiko hibrido bat da. Bateria kargatu daiteke ibilgailua martxan dagoen bitartean, baina entxufatu ere egin daiteke. Auto honek duen teknologia honi esker, hibrido konbentzional edo elektriko batekin baino autonomia handiagoa lortzen du, eta, motor elektrikoari esker, emisiorik sortu gabe gidatu daiteke. 204 ZP ditu, eta 64 kilometroko autonomia elektriko homologatua, WLTP zikloan -0 ingurumen bereizgarria-. Bi karrozeriarekin dago eskuragarri: bost atekoa eta familiarra (Sportstourer). Erosoa, isila, eta azkarra da, eta oso erregai gutxi gastatzen du.

AUDI Q4 SPORTBACK E-TRON

Audi Q4 Sportback e-tron berria, berri, %100 elektriko da, SUV kategoriakoa, autonomia handikoa eta DGTren 0 etiketa duena. Aurreko modeloekin alderatuz, karrozeria desberdinarekin, sabai lerro inklinatuagoa du, zutabe etzanagoekin, aleroi handiago batekin eta luneta txikiagoarekin. Q4 Sportback e-tron berria hiru motorizazio elektrikoekin dator: 35 e-tron, 170 ZPko motor elektrikoarekin eta 52 kWh-ko bateriarekin; 40 e-tron, 204 ZPko motorrekin eta 77 kWh garbiko bateriarekin; eta 50 e-tron Quattro, ardatz

LAU MODELO HORIEK ELEKTRIKOAK DIRA ETA ONLINE ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITUZTE

bakoitzean 299 zaldiko potentzia handiarekin.

Kargari dagokionez, modu errazekoa da, eta e-tron compact sistema 26 herrialdeetara hedatuta, 200.000 karga-leku eskaintzen ditu. Hala ere, etxean bertan ere karga daiteke modu erosoan. Sistema honek eskaintzen duena baino azkartasun gehiago behar izanez gero, aldiz, wallbox sistema ere instalatu daiteke.

VOLKSWAGEN ID 4

Mugikortasun iraunkorrako batera jauzi egitea pentsatzen duten gidarientzat, Volkswagenek eskaintzen duen VW ID 4 elektrikoak ere aukera bikaina da. D segmentuko Crossover-a da, 500 kilometrotik gorako autonomia elektrikoak duena, eta diseinuari dagokionez, lerro oso arin eta dinamikoak ditu. Gainera, We Connect Go aplikazioa instalatuta Internetera konektatu, eta autoaren kontsumoa kontrolatu daiteke, eta non aparkatu den gogorarazteko aukera du, asistentzia automatikoa ere eskainiz, larrialdi egoera batean.

SKODA ENYAQ IV

Skoda markaren lehen SUV-a da ENYAQ IV auto elektriko berria, 204 ZPko potentzia eta 510 kilometroko autonomia du. 4,64 metroko luzera du eta 585 litroko maletategia, markaren indargune eta bereizgarri handienetako bat. Ibilgailuak 0 eta 100 km/h arteko azelerazioa eskaintzen du bederatzi segundo baino gutxiagoan. Skodak Cockpit instrumentazio sistema birtuala ere eskaintzen du. Abiadura baino askoz gehiago erakusten duen TFT pantaila digitala dauka.



Seat Leon E-Hybrid. UDALAITZ AUTOAK



Audi Q4 Sportback e-Tron. UDALAITZ AUTOAK



Volkswagen ID 4 elektrikoak. UDALAITZ AUTOAK



Skoda Enyaq IV autoa. UDALAITZ AUTOAK

Amets Berezaon, ametsetako ibilgailuak

Opel eta Ford marketako autoak saltzen dituzte, batez ere, eta une honetan, Opel Astra berria eta Ford Transit Nugget modeloak direla nabarmenenak diote Miren Tatiegik eta Eñaut Urzelaiak Oñatiko Amets Berezaon kontseziolarioko auto-saltzaileek

Amets Berezaon Opel eta Ford etxeetako autoak saltzen dituzte, baina, hortik haratago, besteak beste, tailerreko zerbitzu osoa eskaintzen dute, eta sare sozia-lei garrantzia ematen diete: @AmetsBerezaon Instagram kontuan aktibo dabilta, eta berritasunak ezagutarazten dituzte.

OPEL ASTRA BERRIA

Opel Astra autoak betidanik izan du arrakasta, eta "hilabete honetan iritsiko dira modelo berriaren lehen unitateak" dio Eñaut Urzelaiak, Amets Berezaon kontseziolarioko auto-saltzaileak: "Gidatze zirrargarria, itxura dotorea, funtzionamendu

kostu txikiak eta teknologia berritzailea lortzeko diseinatu-ta dago, eta ezaugarri ugari ditu hori adierazteko". Zenbait akaberatakoak daude: Edition, Elegance, GS Line eta Ultimate.

AISIA ETA EGUNEROKOTASUNA

Ford Transit Nugget furgoneta kanperizatua egunerokotasunean ibiltzeko autoa da, baina bidaiatzeko prestatua ere badago. Sabai jasogarriarekin edo sabai garai zurrunarekin, bost heldurentzako jarlekuekin eta segmentuaren zabalera handieneko bi ohe bikoitzekin hornituta, lau helduk ere lo egin ahal izango dute bertan.

Hiru eremu zabal ditu: goiko logela, egongela eta L itxurako sukaldea.

BIGARREN ESKUKO AUTOAK

Bigarren eskuko autoak ere badituzte, eta bezeroaren gustura egindako eskaerapeko autoak ere bilatu, ekarri eta aseguratzen dituzte, norberaren beharren arabera; hau da, gustura egingdakoak. "Bigarren eskuko orotariko autoez gain, bezeroak eskatutako ezaugarri jakinekin eta aurrekontu baten arabera, ibilgailua lortu, ondo dagoela ikuskatu eta aseguratu egiten dugu, nahi izanez gero", adierazi du Miren Tatiegik.



Miren Tatiegik eta Eñaut Urzelaiak Opeleko erakuslehoian. AMETS BEREZAO



Ford Transit Nugget furgoneta kanperizatua. AMETS BEREZAO



Zutaz arduratzen gara







Audi Q2

VW Caddy

VW T-Roc

Skoda Kodlaq

Seat Arona



UDALAITZ S.L.

Gipuzkoa etorbidea 36

20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71

udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com



Inspirazio aeronautikoko silueta modernoa duen Citroën C5 X berria. CITROËN CHAPIME



Kia Sportage hibrido entxufagarri berria. KIA

Teknologian eta diseinuan auto aurreratuenak dira

Chapime Citroën-en C5X berria eta Txapime Autoak-eko KIA Sportage berria dira une honetako autoak. Punta-puntako diseinua duten bi ibilgailu, teknologia modernoenez hornituta; bidaia-erantzako segurtasuna ardatz dutenak, eta gama ezberdinetakoak

Especializatutako profesionalen osatutako kontzesionarioak dira Arrasateko Chapime Citroën tailerra eta Txapime Autoak. Chapime 1988. urtean sortu zen kooperatiba bezala, eta ordutik San Andres auzoan dago kokatuta, beti Citroën markaren barruan. *Txapa, pintura eta mekanika* hitzetatik datorkio izena, eta, beraz, hiru arlo horiek uztartzen dituzte, besteak beste. 2016an, berriz, Txapime Autoak sortu zen, Kia auto markaren zerbitzu ofizial gisa, eta ordutik Kia markako autoak ere saltzen dituzte.

2018. urtean, berriz, Camper furgonetan munduan ere lehen urratsak egin zituztela adierazi du Mikel Loitik, Txapimeko gerenteak: "Spacetourer eta Berlingo autoekin hasi ginen Tinkervan eta Camper Technologies-ekin, eta aurrean, Ibiltariak Eskoriatzako enpresarekin hasi berri gara Jumper-a lantzen". Horrekin batera, 2021ko otsailetik MIDAS baimendutako tailer bezala, edozein autori mantentze-lanak egiteko prest ere badaudela adierazi du Loitik; betiere, autoaren bermea mantenduta.

Txapime Autoak kontzesionarioan, KIA modeloak dira nagusi, eta horien artean nabarmen-tzen da Kia Sportage berria. Chapime tailerrean, berriz, Citroën marka da nagusi, eta haien gomendioa Citroën C5 X berria da. Hala ere, eskaintza zabala dute bertan, eta saldu ondoko zerbitzu sakona ere eskaintzen dute: ordezkio piezak, tailer mekanikoa, elektrikoa eta karrozeriakoa, plantxa, pintura eta zerbitzu azkarra. Hori horrela, ibilgailuaren mantentze-lan egokia bermatzen dute, arreta pertsonalizatuarekin.

AERODINAMIKAN OINARRITUTA

Citroënek diseinuan jauzia eman du C5 X berriarekin. "Berlina bat da, SUV eta familia-ibilgailuaren ezaugarriak konbinatzen dituen Citroën auto honen diseinua deigarria da lehen begiratuan, inspirazio aeronautikoko silueta modernoa duelako, baina ezaugarri aipagarriena suspentsioak dira: bereziak dira, errepideari eusteko ondo lor-tuak", adierazi du Loitik.

Bertsio hibrido entxufagarrian eta gasolinan dago eskuragarri. Gasolinazko bertsioan, berriz, PureTech 130 Stop & Start eta PureTech 180 Stop & Start motorren artean aukeratu ahal izango da turbo-konpresore bertsioan. Gidatzean leuntasun eta lasaitasun handiagoa izateko, gainera, zortzi abiadurako abiadura-kutxa automatikoa duen autoa ere badago eskuragarri.

DISEINU AUSARTAREKIN

Kia autoen artean, aldiz, Sportage berria da aukera hobezina une honetan. Behar guztietara egokitzen den teknologiarik

onena duen SUVa. "Diseinuan alde handia dago Kia Sportage laugarren belaunaldiaren eta bosgarren belaunaldiaren artean, eta merkatuan punta-puntakoen artean dago", dio Loitik.

Hori horrela, auto honen ezaugarri deigarrienetako bat aurrealdeko diseinua da. Naturako forma organikoetan inspiratutako azalera dotore eta sendoak ditu, xehetasun ederrekin konbinatzen dira eredu honetan, SUV horri presentzia dinamiko eta berezia emateko errepidean, presentzia handiagoarekin. Emisioetan baxua da eta hainbat aukera eskaintzen ditu. Lau propulsioko-sistema desberdinekin, hibridoa, hibrido entxufagarria eta hibrido leuna barne, horietako bakoitza GT-line bertsioan ere eskuragarri.

CITROËN C5 X ETA KIA SPORTAGE AUTOAK ABANGOARDIAKO TEKNOLOGIAZ HORNITUTA DAUDE



IBILGAILUEN SALMENTA ETA KONPONKETA ZERBITZUA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA ZERBITZUA
ZURE BEHARRETARA EGOKITZEN GARA!





BMW etxeko i7 xDrive60 modelo ikusgarriak 2.715 kilo ditu. 1977ko lehenengo BMW Serie 7ak 1.470 kilo zituen. BMW

Auto handi eta pisutsuen amaiera gertuago dago?

Espazioaren, erosotasunaren eta segurtasunaren izenean jendeak geroago eta automobil handiagoak erosten ditu, baina baliteke joera hori azkenetan egotea, arazo izatera ere pasa daitekeelako. Teknologia berriek eragotziko dute hori

Automobil berriak geroago eta pisutsuagoak dira –eta handiagoak–, eta automobil elektrikoek gorakadak joera hori handitu egin du. Bada, BMW etxean erabaki dute joera horri etena jartzea, eta normalena da gainontzeko markak tendentzia hori heltzea. Hala, etxe Alemaneko automobil handienetako bat –BMW X7– erreferentzia moduan hartuz gero, auto horrek ia 2.500 kilo pisatzen du, eta BMW i7 xDrive60 modeloak ia hiru tona ditu. Hala, BMW Serie 7-aren lehenengo modeloak (1977an) 1.470 kilo pisatzen zuen –gaur egungoak baino %40 gutxiago– eta *motor.es* webgunearen arabera Alemanian "nahikoa da" esan dute.

Beste etxe batzuetara joanda, badira muturreko kasuak; esaterako, GMC Hummer EV autoak 4.000 kiloko langa gainditzen du. Baina zergatik dira auto berriak horren handiak eta pisutsuak? Luxuagatik, batetik, eta segurtasunagatik, bestetik. Izan ere, azken urteotan bi arlo horiek asetzeko automobilei geroago eta osagai elektriko gehiago jarri dizkiete. Eta gai-

nera, autoen homologaziorako beharrezkoa den Euro NCAPeko probak ondo gainditzeko erresistentzia handiagoko materialak erabili dituzte, eta horiek ere pisua dute. Horrekin batera, moda kontuak ere ezin dira bazterrean utzi, azken hamarkada luzean SUV automobilek harre-
ra oso ona izan dute-eta publikoaren partetik.

INFLEXIO--PUNTUA

Christoph Fagschlunger BMW etxeko gerentearen esanetan, baina, inflexio-puntura iritsi dira. "Autoen gizentze horrek amaiera izango du aurki, herri eta hiri askotako auzo zaharrak ez daude-eta prestatuta horren automobil handiendako, ezta gure etxe azpiko aparkalekua ere". Gainera, araudia ere kontuan izan behar da, Espainian B1 gidabaimena daukan pertsona batek ezin du-eta 3.500 kilo –MMA, gehienezko masa arautua– baino gehiagoko automobil bat gidatu. "Teknologia berriek ahalbidetuko dute segurtasun eta erosotasun handiagoa izateko auto pisutsuagoak egin behar ez izatea".

CITROËN C5 X BERRIA
HIBRIDO ENTXUFAGARRIA EDO GASOLINA
Berlina baten dotorezia, familiar baten dinamismoa eta SUV baten altuera

CHAPIME TAILERRAK
Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE / Tel. 943 79 45 22 /  



Penteskosteak prestatzen aritu diren eragileek agerraldia egin zuten eguazten arratsaldean, San Martin plazan. TXOMIN MADINA

Bi urteko gosetik, "menu osoa eta osatua" izatera

Indar betean itzuliko dira Bergarako jaiak, bailarako lehen festa nagusiak, eta ekainaren 3tik 7ra "adin eta gustu guztiak" asetzeko egitaraua antolatu dute; nobedadeetako bat da txosnagunea azokako parkingean jarriko dutela, Zubieta kaleko lanek eraginda

Jokin Bereziartua BERGARA

Indar betean itzuliko dira Pentekosteak, bailarako lehen festa nagusiak, eta ekainaren 3tik 7ra askotariko ekintzak iragarri dituzte. Nobedadeen artean, eskalada-zaleak batu nahi dituen *Mokoloblock* topaketa dago, eta, kontzertuei dagokionez, Kerobia eta Puro Relajo dira joko dute-netako batzuk. Gainera, badago egitarauaz haragoko beste nobedade esanguratsu bat: orain arte Bideberrin jarritako txosnaguneak Oxirondoko azokako aparkalekuan jarriko dituzte,

Zubieta kalea berriro urbanizatzeko lanek eraginda.

Ekintzak berreskuratu, eta gehitu

"Bagenuen gogoia horrelako aurkezpen bat egiteko", azaldu zuen Gorka Artola alkateak eguazten arratsaldean jaien egitarauaren berri emateko agerraldian. Udaleko ordezkariak gain egitaraua osatzen parte hartu duten herriko eragileetako ordezkariak izan ziren; tartean, suziria botako duten ASPACEko kideak eta jaietako kartelaren egile Soiartze Heras. Egitarauari da-

gokionez, kultura, kirola, gastronomia, musika eta beste hainbat arlo eskainiko dituzte; "adin eta gustu guztietako" pertsonak lekua izan dezaten saiatu direla dio Artolak: "Menu osoa eta osatua prestatu duten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, eta herritar guztiak gonbidatu nahi zaituztet Pentekosteetan antolatu diren ekime-



Jaien gaineko informazio guztirako, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

netan parte hartzera, alaitasuna partekatuz. Pandemia aurreko jaietako ekimenak berreskuratu arren, gauza berriak ere txertatu dituzte. Ekintzei begirako berritasun horien artean daude, esaterako, ekainaren 5ean egingo dituzten eskalada-zaleen *Mokoloblock* topaketa eta Jugger erakusketa; herri kirolez ere gozatu ahaliko da, puntako kirolariekin.

Barrakak, 2,20 euro gehienez

Bi urteren ostean, bueltan datoz barrakak, herriko txikien gozamenetarako. Hilerriaren ondoan jarriko dituzte barrakak eta muntaketa lanekin maiatzaren 24tik aurrera hasia dago aurreikusita; egun horretatik aurrera ezingo da bertan apartatu. Prezioari dagokionez, Udalaren planteamendua da 2,20 euroko gehienezko prezioa kobratzea gutxienez hiru minutuko bidaia bakoitzeko -2,70 euroko prezioa litzateke salbuespena berritzaile moduan ulertzen diren atrakzioetan-; sei bidaia egiteko hamar euroko bonuak eskaintzea ere eskatu dute Udaletik. Horrez gain, barraketako arduradunak behartu ditu Udalak ekainaren 6ko goizean eta ekainaren 8ko egun osoan 1,30 euroko gehienezko prezioa zehaztera -edo 1,50 euro gehienez atrakzio berritzaileetan-.

Kontzertuen itzulera

Zuzeneko musikak presentzia berezia izango du jaiak iraungo duten bost egunetan. Herriko hainbat txokotan eta txosnagunean askotariko kontzertuak eta emanaldiak izango dira; besteak beste, Kerobia, Puro Relajo, Añube, Los Zoplites Txirriak, Skabidean, Ezpalak, Lukiek, Voces Navarras eta DJ

Bull izango dira jaiak musikaz bustiko dituztenak.

Xaxau, kide berrien beharrea

Xaxau konpartsako kideak "oso gogotsu" daude "benetako jaiak begira". Bideberretik azokako parkingetara aldatzarekin gustura daude eta espero dute Bergarako zein kanpoko gazteak zubia zeharkatu eta etorriko direla: "Hainbat kartel jarriko ditugu kokaleku berriaren berri emateko; espero dugu Bideberrin izan ohi guren giroa izatea". Bideberrin izan ohi ziren elementu berak jarriko dituzte azokan, eta jaiak iraun artean ezingo da apartatu bertan. Udaletik honako hau adierazi dute: "Zubieta kalea birgaitzeko lanak egiten ari da Udala, eta, ondorioz, ezinezkoa da Bideberri ibilgailuei ixtea, txosnak bertan, eta segurtasuna bermatuz, jartzeko. Le-kualdatzeak inguruan bizi diren bizilagunei ahalik eta traba gutxien eragiteko neurriak hartuko ditu Udalak".

Xaxautarrek Ndank Ndank elkarteak omenduko dute aurten, hamar urte bete dituela eta: "Merezi dute omenaldia; domekakoa egun polita izango da. Oso pozik hartu dute albistea". Ekintza berriei dagokionez, tonbola jarriko dute, "askotariko sarietara". Amaitzeko, jende berria behar dutela diote: "Buruhauste handiak izan ditugu jende faltagatik; hala jarraituz gero, ez dakigu txosnagunerik egongo den datorren urtean..."

50 URTE BETE DITUEN ASPACE ERAKUNDEAK BOTAKO DU SUZIRIA PENTEKOSTEEI HASIERA EMATEKO

Mariaren Lagundiaren ikasturte amaierako jaia eta azoka bihar

Egun osoko jaia antolatu dute; tartean, gobernuz kanpoko erakundeen azoka solidarioa Espoloian (10:30-13:30)

J.B. BERGARA

Mariaren Lagundiak ikasturte amaierako jaia egingo du bihar, hilak 21. Egun osoko egitaraua antolatu dute: suziri jaurtiketa eta ginkana (10:30); musika eskolako dantza taldea eta udal

txistulari banda (11:15); umeendako puzgarriak (11:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara); Trekorde taldearen kantaldia (12:00); pintxo lehiaketa (12:00); mojei agurra eta ikasleen dantza ikuskizuna (13:00); ortuko ota-

rraren zozketa eta sari banaketa (13:30); bazkaria eta bingoa (14:40); magia ikuskizuna (16:00etatik 17:00etara); DJ festa Oihan Vegarekin (17:00etatik 19:00etara); eta Lagunditxoren igoera (19:00). Jarraian, batukada egingo dute eta kalera irtengo dira festarekin jarraituz.

Azoka solidarioa Espoloian

Bi urteko etenaldiaren ostean, ikasturte amaierako jaiaren egun bererako antolatuko dute azoka solidarioa, 10:00etatik

13:30era, Espoloian; helburua da gobernuz kanpoko erakundeei euren lana ezagutzera emateko gunea eskaintzea eta, salmenten bitartez, abian dituzten proiektuetara bideratzeko dirua batzea. Euskal Herrian lanean diharduten hamar bat gobernuz kanpoko erakunde bilduko dira; tartean, Mariaren Lagundiko FISC erakundea. Erakunde horiek egiten duten lanaren berri emateaz gain, askotariko produktuak salduko dituzte eta tailerrak egingo dituzte.

Erraldoiak ere batuko dira

Horrez gain, erraldoi taldekoek kalejira egingo dute goizean zehar eta DBHko ikasleek aurpegiak margotzeko txokoa jarriko dute, dardo eta bola jaurtiketez gozatzeko aukera egongo da, askotariko zozketak egingo dituzte... Taberna ere jarriko dute, 10:30etik 19:00etara, eta Ariznoa guraso elkarteak ordezkariak dei egin diote Mariaren Lagundiko hezkuntza komunitateari zapatuan ikastolako arropak jantzita irten dadin.

Artifiziala jartzea, erabaki naturala eta beharrezkoa

Urolaren kontrako partiduan agurtuko du BKEk Agorrosingo belar naturala, bihar (12:00). Talde profesionalez harago, Gipuzkoan, Hondarribia, Oiartzun, Zarautz, Azpeitia eta Azkoitia dira belar naturaleko bakarrak; bereziki espazio beharrak eraginda jarriko dute zelai berria

Jokin Bereziartua BERGARA

Bihar, maiatzak 20, jokatu da azken partidu ofiziala Agorrosingo belar naturalean. Bergarak Urola hartuko du Ohorezko Erregional Mailako azken jardunaldian (12:00), eta, belar naturaleko azken partidua izateaz gain, beste osagai batzuk ere izango ditu biharko zitak: Athleticeko jokalaria Vanesa Gimbert bergararrari omenaldia egingo zaio partidu aurretik (Ikus 39. orria) eta atsedendian Mahonero sariak banatuko dituzte.

100 urtetik gorako historia

100 urtetik gora dituen belar naturaleko zelaia –udal artxi-boan dagoen argazki zaharrena 1920koa da– heldu zaio agurtzeko ordua, beraz, eta bizitzaren zati handi bat Agorrosi lotuta egin duten lagun batzuekin egon da GOIENA. Gipuzkoako futbol federazioko presidente Manu Diaz da horietako bat: "Bergararentzat oso albiste ona da aldaketa, eta baita Gipuzkoako futbolarentzat ere. 400 jokari ditu taldeak, ezin da erabili entrenatzeko, oso garestia da mantenurako, ez dago argindarrik eta neguan oso goiz jokatu behar dira partiduak... Egungo belar artifiziala urte osoan erabili daiteke, jokalarien formazio-



Zelaiaren mantentze-lanez arduratzen den Ibrahima Toure, asteon. XABIER URZELAI

rako aproposa da, mantenua nabarmen merkeagoa... Hori bai, pena handia ere ematen du; une asko azpimarratuko nituzke, adibidez, lehen eta bigarren taldeekin lortutako bi igoerak, neskekin Realari penaltiz irabazi genionekoa, semeak 16 urterekin Imanol Aguacilek gidatzen zuen Gipuzkoako gazte mailako selekzioarekin jokatu zuenekoa..."

Bartzelona galtzaile Agorrosinen

100 urtetik gorako historian hainbat une berezi bizi izan dira

Agorrosinen; adibidez, 1964ko Espainiako gazte mailako txapelketan Bergarak Bartzelona gainditu zuenekoa (2-1). Carles Rexach zegoen, besteak beste, orduko *Barça* hartan eta kataluniarrek irabazten hasi arren, Pablo Gallastegi *Pablito*-ren eta Javier Garateren gol banari esker Bergara irten zen garaile. Hasierako hamaikakoa honako hauek osatu zuten partidu historiko hartan: Angel Iñarra (atezaina), Enrike Olabide, Iñaki Akizu, Luis Abajo, Jesus Irizar *Pardina*, Agustin Aran-



Agorrosin 1955ean, erdian sekulako zuloa duela. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA

Azpiko meategia, betiko buruhauste

Agorrosin azpiko meategia zelaiares etsaietako bat izan da historikoki. 1955eko goiko argazkia da horren adibide, zulo erraldoi bat egin zen-eta orduan. Zuloagatik itxita egon zen garaian Labegarietako zelaian jokatu izan zuen Bergarak. Gerora ere eragin zituen arazoak.

tzabal *Gaztelu*, Javier Lete, Juanito Juaristi, Javier Garate, Pablo Gallastegi *Pablito*, Juan Antonio Igarza eta Julio San Vicente. Bergarak inoiz izan duen talderik onena izan zen 1947an jaiotako urrezko belanaldi hura; pandemiagatik bi urtez ezin elkartu ostean Madura elkartean batu ziren bazkalteko, martitzenean. "Asko falta dira mahai honen bueltan, asko maite ditudan lagunak eta arrasto handia utzi dutenak, baina halakoa da bizitza... Ahal dugun heinean urtero elkartuko gara", adierazi du, erabat hunkituta, Luis Abajok. Mahai horren bueltan esertzea besterik ez dago BKEn jokatu zituzten urteak oso presente dituztela ohartzeko. "Oso garai politak izan ziren... Jokalari handiak genituen taldean, gerora Lehen Mailan jokatu zutenak; baina, bereziki,

lagun talde berezia gara. Ea urtero elkartzen jarraitu dezakegun!", dio Javier Garatek.

Liga amaiera, jaialdia eta obrak Zapatuan amaituko da liga eta obrak ez dira ekaineko hirugarren astea baino lehenago hasiko –ekainaren 10ean eta 11n Ekinez musika jaialdia egingo da zelai horretan-. BKEko presidente Iosu Elorzak espero du 2022-2023ko denboraldiko lehen jardunalditik ez bada, urrirako Agorrosin eta Ipintza erabilgarri izatea: "Ilusio handiarekin gaude, ea dena ondo doan".

VANESA GIMBERT OMENDUKO DUTE ETA 2022KO MAHONERO SARIAK EMANGO DITUZTE BIHAR



MANU DIAZ GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

"Sekulako pena ematen dit, txikitako idoloak mahoiz janzen ziren eta Agorrosinen ikusten nituen. Baina aldatu beharra dago; erabaki zuzena eta txalogarria da".



IOSU ELORZA BERGARA KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Nostalgia puntua badago ere, pozik gaude aldaketa zazpi urteren osteko lanaren ondorio delako. Ez dugu lekurik entrenatzeko eta oso garestia da mantentzea, gainera".




FERNANDO JUARISTI JOKALARI ETA ENTRENATZAILE OHIA

"Erabakia ulertzen dut, baina pena ematen du; bizitza osoa daroat zelai honi lotuta. Gogoratzen dut Bartzelona menderatu zutenekin jokatu nuela; sekulako taldea zen".



LUIS ABAJO JOKALARI OHIA, 1947KO URREZKO BELAUNALDIA

"Galtzen hasi baina 2-1 irabazi genion Bartzelonari Agorrosinen, egundokoa izan zen. Garai ederrak izan ziren... Joan direnek arrasto handia utzi dute, hala da bizitza".



JAVIER GARATE JOKALARI OHIA, 1947KO URREZKO BELAUNALDIA

"Etetik ikusten nuen Agorrosin. Umetan zelaira sartzen ginen jokatzera, arduradunak harrapatu arte. Orduan, besteekin alderatuta, futbol zelai bereziki ona zen".

'Ekinola'-ren bigarren edizioa aurkeztu dute

Ekintzailetasuna sustatzeko asmoz antolatu dute, beste urte batez, gazteei zuzendutako egitasmoa. Ekainaren 13tik 15era izango da, Miguel Altuna Lanbide Heziketan, eta parte hartzeko izena eman beharko da maiatzaren 23tik ekainaren 3ra

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
*Ekinola Etorkizuna zure eskue-
tan* egitasmoaren bigarren edi-
zioa egingo da ekainaren 13tik
15era Miguel Altuna Lanbide
Heziketa zentroan. Heziketa
zentroak, Bergarako Udalak eta
Enpresarek antolatu dute elkar-
lanean, Debagoieneko Manko-
munitatearen eta Tknikaren
laguntzarekin. Tazebaez ahol-
kularitza taldekoak arituko dira
dinamizatzaile lanetan.

Deialdi irekia egin dute aurten;
beraz, ideia berri nahiz berri-
tzaileak dituzten eta ekintzaileak
diren gazteei zuzendutako eki-
mena da. Miguel Altuna Lanbi-
de Heziketako irakaslea da Jon
Zaldua, eta, haren esanetan,
"enpresetan lan egin beharrean,
norbere ideiak zabaldu eta nor-
bere egitasmoekin aurrera egi-
teko beste bide bat da ekintzaile-
tasuna. Egitasmo honetan
aukera horiek lantzen dira, eta,
bide horretan, hasiera izateko
aukera ematen zaie".

Idea ekintzaileak proposatzen

Parte-hartzaileek proposatuko
zaizkien erronken inguruko
ideiak aurkeztuko dituzte tal-
deka. Gainera, horiek kudeatze-
ko erremintak emango zaizkie-
la adierazi dute antolatzaileek.
Azken egunean, *pitching* proze-
sua jarraitu ondoren, ideia one-
na sarituko dute, 1.000 euroekin.

Miren Fernandez Tazebaezeko
kideak esan duenez, "lau alor"
identifikatu dituzte: "*Silver eco-
nomy*", jasangarritasuna, digita-
lizazioa eta elikadura-katea.
Helburua da lau gai horien in-
guruan gaur egun gizartean di-
tugun erronkak identifikatu eta
horiei irtenbidea emateko ideia
ekintzaileak proposatzea".

Enpresek ere hartuko dute
parte. Ainhua Letek, Garapen
zinegotziak, hau nabarmendu
du: "Ekintzaileei balioa eman
eta gazteen eta enpresen arteko
harremana sustatu nahi dugu".



Ekinola egitasmoaren aurkezpen ekitaldia egin zuten martitzenean. I.A.

Jardunaldien egitaraua

Ekainak 13 - *Erronkak aztertuz eta ideiak sortuz*

- **09:00** Aurkezpen orokorra –Bergarako Udaleko Garapen zinegotzi Ainhua Lete, Miguel Altuna Lanbide Heziketako Josu Arana zuzendaria eta Tazebaez–.
- **09:15** Proiektu ekintzaileen aurkezpenak eta mahai ingurua –Mutiloako ostatua, Garau eta Eskura Mobile–.
- **10:00** Erronken identifikazioa.
- **10:30** Kafea.
- **10:45** Ideazio prozesua.
- **11:30** Ideien sailkapen eta aukeraketa.

Ekainak 14 - *Negozio ereduak landuz eta prototipoak sortuz*

- **09:00** Negozio eredu eta prototipoen aurkezpena.
- **09:30** Negozio ereduaren lanketa.
- **10:30** Kafea.
- **10:45** Prototipoen lanketa.
- **11:45** Prototipoen grabazioa.

Ekainak 15 - *'Pitching'-a eta irtenbideen aurkezpena*

- **09:00** Debagoienean ekiteko baliabideak.
- **09:15** *Pitching*-aren azalpena.
- **09:30** *Pitching*-aren prestakuntza.
- **10:30** Kafea.
- **10:45** Aurkezpenak.
- **11:15** Sari banaketa.
- **11:30** Enpresei omenaldia.
- **11:50** Jardunaldien itxiera.

Gazteei zuzendutako egitasmoa da. Parte hartzeko, maiatzaren 23tik ekainaren 3ra eman beharko da izena, 943 89 92 72 edo 699 91 50 70 telefonoetara deituta edo urratsbat@maltuna.eus helbide elektronikora idatzita.



ARIZNOA GIMNASIA ERRITMIKAKO TALDEA

Emaizta onak lortu ditu Ariznoak

Iruten jokatu zen Gipuzkoako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan lehiatu ziren Ariznoa taldeko gimnastak alebin, infantil, gazte eta senior mailetan, taldeka nahiz bakarka. Infantiletan, Noa Lezetak Euskadiko Txapelketarako txartela lortu zuen; gazte mailan, Itziar Alberdik bigarren postua eskuratu zuen; eta Ariana Burgos onena izan zen senior mailan.

Bergarako Musika Bandaren kontzertua, domekan, Soraluzen

Garai bateko ohitura berresku-
ratuz, Soraluzen izango da Ber-
garako Musika Banda. Plaza
Zaharrean egingo du emanaldia,
13:00ean hasita. Aurrez, egural-
diak uzten badu, kalejira egingo
dute.

Enrike Txurruka Bergarako
Musika Bandako zuzendariak
azaldu duenez, une honetan So-
raluzen ez dago musika banda

egonkorrik, eta musika ikasleei
nahiz herritarrei banda bezalako
musika taldeak hurbiltzea da
hango Musika Eskolaren asmoa.

Txurruka, gainera, soraluze-
tarra da, eta, musika hastapenak
bertan egin zituen, "ilusio
berezia" egiten dio herrian jo-
tzeak. Gainera, domekan bertan
estreinatuko duen martxa bat
konposatu du. Horretaz gain,
suite klasikoa, Itoiz taldearen
kantuei egindako moldaketak
eta doinu brasildarrak taulara-
tuko dituzte, besteak beste.

OHARRAK

'Gazteak eta osasun mentala' hitzaldia

Gazte Koordinadora Sozialistak antolatu duen *Gazteak eta osasun mentala* hitzaldia gaur izango da, 16:30ean, Zubitxako zentro sozialistan.

Liburu aurkezpena martitzenean

Maiatzaren 24an, *Sendabelarrek dakitena* liburua aurkeztuko du Garbiñe Larreak, Irizar jauregian, 18:30ean.

Asteburuko pilota partidak

Udaberri Txapelketa jokatu da gaur Udak Pilotalekuan, 19:15ean. Zapatuan, Nafarroako binakako Mastercup-eko finalerdia dauka Maddi Barrocalek. Domekan, Zaramagan, berriz, Xabat Teranek eta Inar Olanok final laurdena jokatu dute; Ander Ilarduiak eta Amets Agirrek, finalerdia.

1942ko eta 1952ko kinto bazkariak

Bihar, zapatua, 1942an jaiotakoen kinto bazkaria izango da Zumelagan, 14:30ean. Aurrez, 13:15ean, Egon tabernan elkartuko dira. 1952an jaiotakoak, berriz, maiatzaren 28an elkartuko dira; azken horiek eskatu dute lehenbailehen emateko izena: ES17 3035 0009 1800 9009 8783 (Laboral Kutxa).



Europako Gazteen XVI. Musika Jaialdian hartuko du parte Bermusika talde berriak. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Bergarako musikari gazteak, Luxenburgora

Bergarako Musika Eskolako hamar ikaslek osatzen duten Bermusika talde berriak Europako Gazteen XVI. Musika Jaialdian hartuko du parte, Marije Ugaldere zuzendaritzapean; domekan, aurkezpen kontzertua emango du Pol-Pol tabernan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Europako Gazteen XVI. Musika Jaialdia ospatuko da maiatzaren 26tik 28ra Luxenburgon. Euskal Herriko hamar kideko sei taldek hartuko dute parte; tartean,

Bergarako Musika Eskolako ikasle-taldeak. Ez da Debagoieneko talde bakarra izango, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako beste talde bat ere bertan izango baita. Erretereria-

ko, Bilboko, Donostiako eta Hernaniko taldeek hartuko dute parte bailarako musikari gazteekin batera.

Marije Ugaldere zuzendaritzapean arituko dira bergararrak,

eta, zuzendariak adierazi duenez, musika eskolek hamar lagunekoko taldeak aurkeztu dituzte jaialdian jotzeko. "Horien artean zozketa egin da. Guri Euskal Kantak taldea egokitu zaigu. Hori dela eta, talde berria sortu dugu: Bermusika taldea". Euskal Kantak oinarri hartuta, biolin, biolontxelo, saxofoi, flauta, perkusio eta piano doinuak eta ahotsak uztartuko dituzte herriko musikariek.

Hiru egunean izango dira entzungai gazte bergararren doinuak Luxenburgoko hainbat plaza eta oholztatan. Guztira, lau kontzertu emango dituzte: bana maiatzaren 26an eta 27an eta beste bi jaialdiaren azken egunean. *Euritan dantzan, Errefuxiatuarena* eta *Negua joan da ta* abestiak izango dira taularatu dituzten abestiak, besteak beste.

Aurkezpen kontzertua

Europa ipar-mendebaldera bidaiatu aurretik, Bermusika taldeak aurkezpen kontzertua emango du Pol-Pol tabernako terrazan domekan, arratsaldeko zazpitan.

Korrontzik emanaldia egingo du gaur Seminarioan

Kontzertua arratsaldeko zortzietan izango da, eta Oinkari taldeko dantzariak izango dituzte lagun oholztan. Korrontzi euskal musika eta dantza tradizionalaren jai bat da, abangoardiako ikuspuntu batekin. Agus Barandiaran taldeburuak aurreratu duenez, "ibilbideko diskoen laburpena" eskainiko dute. Sarre-rak zortzi eurotan eros daitezke.

Udal zergak eta tasak ez igotzeko eskatu dio EAJk EH Bilduri

Udal Euskarategiko, ludotekako eta kirol zerbitzuetako ikastaroen tasen %5eko igoera egitea proposatu du Udal Gobernuak, baina EAJ aurka agertu da. Jeltza-leek adierazi dutenez, pertsonen arteko arrakalak handitu ditu pandemiak, eta "herritarrei laguntzeko unea da". Maiatzeko osoko bilkuran eztabaidatuko dira ordenantza fiskalak.



DEBAGOIENEN PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81 BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08 blasaga@conet.es RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81 AHOLKULARITZAK ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxe: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es ALBERDI ASESOREAK BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83	ARKITEKTOAK BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA Arkitektoa eta tradesperson formazioa Tel.: 636 89 92 11 larraitz.arkiestudioa@gmail.com ETXE ADMINISTRATIOAK URIBESALGO ADMINISTRATIOAK ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es
--	---

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Elgeta, ikur garrantzitsua euskal mendizaleendako

Asteon bete dira 98 urte Euskal Mendizale Federazioa sortu zela. Elgeta aukeratu zuten erakunde berria eratzeke, eta ekitaldiak Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako milaka mendizale elkartu zituen. Batzar gehiago ere etorri ziren ondotik

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Orain dela gutxira arte, udaletxeko gela batean egon dira gordeta Euskal Mendizale Federazioaren sorrerako artxiboak. "Orduak eta orduak egin nituen gela horretan *Historia testimonial del montañismo vasco* liburua idazteko", azaldu du mendizale eta dibulgatzaile donostiar Antxon Iturrizak. "Gaur-gaurkoz, material hori txukun gordeta daukagu; leku egokiagoan, hezetasunetik salbu eta ondo sailkatuta", gaineratu du.

Garrantzitsua izan zen Elgeta Euskal Mendizale Federazioaren sorreran. 1920ko hamarkadan ez ziren gutxi mendizaleen artean lotutako elkarteak, baina nork bere bidea egiten zuen eta ez zegoen ia lankidetzarik. Antxon Bandres tolosarraren ekimenez federazio bat sortzeko ideia gorpuzten joan zen, eta 1924ko maiatzaren 18an egin zuten sorrera ekitaldia Elgetan.

Galdera izan daiteke: zergatik Elgetan? Bultzatzaileek, itxura denez, festa jendetsua egin nahi zuten, eta lau herrialdeen erdigunean egoteagatik aukeratu zuten Elgeta.

Oihartzun handiko ekitaldia

Federazioa sortzeko ekimenak atxikimendu ugari lortu zituen



Hitzaldia, plazako ostatuko balkoitik, 1924ko maiatzean. ANTIXON BANDRES ARTXIBOA

hasiera-hasieratik, eta Bilbotik, esaterako, tren zerbitzu bereziak antolatuta zituzten. Deialdiak oihartzun zabala izan zuen garaiko hedabideetan, eta ezaguna egin zen ¡A Elgeta! ¡A Elgeta! En tren, a pie o como sea leloa.

Eguna heldutakoan jende andana elkartu zen herrian. Gehien-gehienak oinez igo ziren Eibartik, Elorriotik, Arrasatetik eta Bergaratik. Garaiko kronikek diote Felipe Zubeldia parrokoak esan zuela meza Asentzión, 11:00etan. Handik Intxortako puntara igo ziren mendizaleak,

eta, azkenik, ekitaldia egin zuten plazan. Bazkaria –orduko Espaloia pasealekuko zuhaizpean– eta erromeria ere egon ziren. Lau mila parte hartzaile elkartu zirela adierazi zuten antolatzaileek.

57 mendi elkarte osatu zuten Federazioa; bizkaitarrak 29 izan ziren, gipuzkoarrak 22, arabarrak 2, nafarrak 3 eta, berezitasun modura, Bartzelonakoa bat.

Lehen estatutuak

Udaletxeko areto nagusian irakurri eta onartu zen Federazioaren lehen estatutua. So-



Mendizaleen topaketa 1935eko apirilaren 7an. A. RUIZ - CD EIBAR ARTXIBOA

Mendizaleen topaleku, askotan

Euskal Mendizale Elkarateak behin baino gehiagotan egin ditu bilkurak Elgetan. Gaur-gaurkoz, Ibiltarien Jaia egiten du urtero. Hain zuzen ere, aurtengoa martxoaren 13an izan zen, pandemiak eragindako bi urteko etenaren ostean.

rrerako taldeen ordezkariak aho batez onartu zuten arautegia, nahiz eta egon ziren eztabaidarako puntuak; tartean, bazkide egiteko emakumeen eskubidea. Elkarate bakoitzaren esku gelditu zen, azkenean, erabakia, eta, gehien-gehienek emakumeen parte hartzea onartzen bazuten ere, bazkide baten emazte edo alaba gisa agertzen ziren; ez zituzten bazkide modura onartzen.

Federazioa mendizaleen artean lotutako hainbat aldarrikapen egiteko tresna izan zen: bideak seinaleztatzea, sarbide arriskutsuko eremuetan kableak jartzea, iturriak eta babeslekuak eraikitzea, mendizaleen joan-etorriak errazteko tren zerbitzuetan hobariak aplikatzea, fonda eta jatetxeen gida argitaratzea...

Ondorengo urteetan ere behin baino gehiagotan izan zen Elgeta euskal mendizaleen topa-

leku. Batzarrak egiteko elkartu ziren Elgetan, 1932ko krisialdia etorri zen arte. Gerora ere, berriro berpiztu zen mendirako zaletasuna eta 1935eko eta 1936ko apirilean ere batzar jendetsuak egin ziren Elgetan. Azken hartan, hostoz egindako arku batek eman zien ongi-etorria mendizaleei, *Ongi etorri, mendigoizaliak* leloarekin. Inor gutxik imajina zezakeen heltzear zen gerra tesuingurua.

Euskal Mendizale Federazioak laster beteko ditu ehun urte. Pentsatzekoa da urteurrena ez dela oharkabea pasako.

57 MENDI ELKARTEK OSATU ZUTEN FEDERAZIOA; GUTXIRA ARTE, ARTXIBOA UDALETXEAN IZAN DA

Elgetako zuhaitzik garaienak ikusteko irteera zapatuan

Dani Gillegik gidatuta, Egoarbitza inguruko sekueioiak eta haginak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek

L.Z.L. ELGETA

Udalak antolatuta, gidatutako irteera egingo du bihar, zapatua, basogintzako ingeniari tekniko Dani Gillegi elgetarrak. Taldea 09:30ean elkartuko da herriko plazan, eta Egoarbitza

aldera joango dira; hiruzpalau orduko buelta izango da. Gomendatutako gutxienezko adina 6-7 urte dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Elgetako lurretan dauden zuhaitzik garaienak ezagutzeko

aukera emango du irteerak. Gillegiren esanetan, duela hamar urte egindako ibilbide berbera izango da. Orduan, 50 lagunek hartu zuten parte.

Sekueioiak eta haginak

Gillegik aurreratu du Egoarbitzako haitzaren gainetik ibiliko dela, gehienbat, taldea; izan ere, Elgetan haitzarte horretan bakarrik ikus daitezke haginak. Inguruko herrietan oso leku gutxitan daude, gainera, halakoak.



Elgeta inguruko zuhaitzak bereizten ikasteko urrian egindako irteera. ELGETAKO UDALA

Bederatzi lanpostu lehiaketa publikora

Sektore publikoko behin-behinekotasuna murrizteko egonkortasun legeak horrela eskatuta, Elgetako Udalak lan eskaintza publikora aterako ditu bederatzi lanpostu. Martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen erabakia udalbatzak

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Enplegu publikoa egonkortzea eta lanpostuak finkatzea da, besteak beste, sektore publikoko behin-behinekotasuna murrizteko Madrildik datorren 20/2021 legearen xedea. Hori horrela, plantilla organikoaren hasiera bateko aldaketa, Udaleko lanpostuen egonkortze plana eta 2022. urteko lan eskaintza publikoa onartu ditu udalbatzak martitzenean egindako ezohiko udal osoko bilkuran.

Hala, bederatzi lanpostu irtingo dira lehiaketa publikora. Lanpostu horiek dira kontabilitateko administraria, idazkari-zako administraria, liburutegiko arduraduna, ludotekako hezitzailea, kiroleko hezitzailea, hiru garbitzaile lanpostu eta brigadako peoia izateko lanpostu bat. "Egonkortasun legea betetzeko eta Udalean daukagun behin-behinekotasun tasa %8ra mugatzeko –eta, ahal izanez gero, ia-ia hutsera murrizteko–, beharra ikusi dugu lehenagotik lan kontratu bidez laboral bezala beteta zegoen administrari lanpostua desegin eta egin-kizun jarduera berarekin funtzionario izaerako lanpostua sortzea", azaldu du Iraitx Lazkano alkateak. Aldi berean, peoi lanpostu berri bat sortuko da. "Badira urte batzuk peoi bat errefortzu bezala kontratatzen dela aldi baterako, baina egonkortzen joan den figura bat izan da", eta hori ere lanpostuen zerrendan sartu dute udal arduradunek. Gainerako zazpi lanpostuak ere deialdi publiko-ara aterako dira.

Legez ezarritako egutegia

Legeak egutegi bat markatzen du; 2022ko ekainaren 1erako zehaztu behar dira lanpostu kopuruak eta argitaratu behar dira lan eskaintza publikoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Horren ondotik, 2022ko



Elgetako udalbatza martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran. L.Z.L.

abenduaren 31rako argitaratu behar dira lanpostuak betetzeko deialdien oinarriak. Legeak ezartzen du, bestetik, 2024ko abenduaren 31 baino lehen egon behar duela amaituta egonkortze prozesu osoak.

Udal Gobernutik jakinarazi dute asteotan hainbat bilera egin dituztela Euskal Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko aholkulariekin, eta egonkortze prozesua nahitaez egin behar dela.

Hala, gaur-gaurkoz, lanpostu horiek betetzen dituzten udal langileek horren berri jasoko dute banan-banan.

2021ak likidazio positiboa

Ezohiko bilkura berean, 2021. urteko likidazioaren berri eman du Udal Gobernu Taldeak. Alkateak jakinarazi du Elgetako Udalak gastu orokorrerako 350.588 euroko gerakinarekin itxi duela iazko ekitaldia. "Di-

**ELGETAKO UDALAK
350.588 EUROKO
GERAKINAREKIN ITXI
DU 2021EKO
EKITALDIA**

ruzaintzako gerakina, guztira, 428.790 eurokoa da. Hortik saldo kobragaitzak izendatzen ditugunak –bi urtez baino gehiagoz kobratu gabe daudenak– 78.000 euro dira. Beraz, gastu orokorrerako gerakina 350.588 eurokoa da", azaldu du alkateak. Diru hori izango du Udalak lehentasunezko zatitza josten diren inbertsioak egiteko.

Gerakin positiboaren tamaina ulertzeko diru-sarreraren kapituluaren izan den hazkundera azpimarratu du alkateak. Aurreikusitako gabeko hazkundera izan da: %108koa, hain zuzen ere. "Hainbat faktorek eragin dute horretan. Zuzeneko zergetan –OHZ/IBIn eta jarduera ekonomikoaren gaineko zergetan– %10 gehiago jaso dugu. Igoera dezentekoa izan da, baita ere, zeharkako zergetan. 2020tik 2021era sekulako igotzea gertatu da egin den obra kopuruan. Kapitulu horretan, 30.000 euro jaso ditugu", azaldu du.

Lazkanok aurrekontuaren betetze maila ere azpimarratu du: "2021ean, %93,43koa izan da, eta bereziki handia izan da inbertsio errealean: %98. Ia-ia %100ean bete da".

Ferixa Nagusiko jaietako kartela aukeratzeko bozketa abian da

Buztin gelan eta udal webgunean daude ikusgai proposamenak; domekara arte eman daiteke botoa

L.Z.L. ELGETA

Hilabete falta de Ferixa Nagusiko jaiei hasiera emateko, eta lau kartel proposamen heldu dira Jai Batzordeak antolatutako lehiaketara. Laurak daude ikusgai bai buztin gelan bai *Elgeta.eus* udal webgunean. Herriarrek aukeratzeko dute kartel irabazlea, eta domekara arte dago zabalik botoa emateko aukera udal webgunean bertan. Irabazleak ehun euroko saria jasoko du.



Erakusketa buztin gelan. L.Z.L.

Domekan 'Bidaide' antzokian

Domekan, bestetik, *Bidaide* antzezlanaren egingo dute Metrokoadroka Sormen Laborategiko lagunek Espaloia kafe antzokian. 18:30ean izango da emanaldia eta kultur gile eta artista anonimoen inguruko gogoeta da. Anonimotasunaren gaia ekarriko dute lehen erro-

ra Udalbiltzaren Geuretik Sortuak programaren baitan landutako antzezlanean.

Maite Aizpurua, Ainhoa Alberdi, Idoia Beratarbide, Iraia Elias eta Idoia Hernandez izango dira taula gainean. Prezioa 5 euro da.

Martxan da Elgetako Euskaraldia batzordea

Hainbat lagun elkartu ziren atzo Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak deitutako batzarrean. Euskaraldiaren aurkezpena eta herriko batzordearen eraketa egin zituzten, besteak beste. Kontaktua da *elgeta@euskaraldia.eus*. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da 2022ko Euskaraldia. *Hitzek ekiteko garaia* lelopean egingo dute hiru-

garren edizioa eta asmoa da euskararen aldeko ariketa sozialak lekukoa hartzea Korrikari. Atzoko batzarrean, aurreko edizioetako datuak aztertu zituzten, eta hirugarren edizioari begira dauden erronka nagusiak identifikatu.

Helburuen artean dago *ahobi-zi* eta *belarriprest* rola ondo ulertzea eta betetzea. Horrekin batera, ariguneak identifikatzea. Hain zuzen ere, zabalik da era guztietako entitate antolatuek arigune gisa izena emateko epea.

OHARRAK

Elikagaien Bankuaren janari bilketa

Elgetako Elikagaien Bankuaren ordezkariak jakinarazi dute gaur eta bihar egingo dutela urteroko janari bilketa, Ugari dendan.

Mendi irteera domekan

Kantsatzeko mendi taldeak Arkamu mendizerrara egingo du maiatzeko irteera, etzi. Taldea 08:00etan abiatuko da, plazatik.

Irakurketa talde feministaren saioa egunean

Duela bi aste abiatu ziren irakurketa talde feministaren saioak liburutegian. Egunean 18:30ean hasita egingo dute bigarrena. Gaia izango da sexua eta generoa.



Dinamikan parte hartuko duen EH Bilduko lantaldea, joan den zapatuan kultura etxean egindako aurkezpenean. JAGOBA DOMINGO

"Herri proiektuaosatzen" jarraituko du EH Bilduk

Arloz arlo, hainbat eremutan lanean ari diren pertsonekin egon, ekarpenak jaso eta, modu horretan, hurrengo urteetan koalizioaren jarduna "gidatuko duen herri proiektua eraikitzea" helburu duen prozesua abiarazi du

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Duela lau urte Harittu prozesuarekin martxan jarritako dinamika jarraipena emango diola eman du aditzera Oñatiko EH Bilduk, "herri proiektuaosatzeko" prozesu berriari hasiera emanaz.

Herritarren ekarpenak jaso

Arloz arlo, herriko eremu desberdinetan lanean ari diren pertsonen ekarpenak jaso eta, modu horretan, hurrengo urteetan EH Bilduren jarduna gidatuko duen herri proiektua eraikitzea du helburu prozesu honekin. Herritarrekin batera egin gura du eta dinamika zabala jarriko du martxan datozen egunetan: arloz arloko lantaldeak eratuko dituzte, azken urteetako balantzea partekatuko, balorazioa egin, egungo diagnostika aztertu eta erronka nagusiak identifikatzeko. Identifikaturiko beharrezane erantzuteko "herri proiektu sendoa bat eraiki" gura du koalizioak eta he-

rritarrekin bilerak egiten hasiko da horretarako.

Zortzi arlo zehaztu ditu EH Bilduk: politika sozialak, sozioekonomia, lurralde antolaketa, kirola, kultura eta euskara, hezkuntza, gazteria eta berdintasuna dira. Arlo bakoitzaz arduratuko diren kideak izendatu ditu, baita koordinazioaz eta komunikazioaz arduratuko direnak ere. Orain, arloko bilerak egiten hasiko da eta herritar guztiak gonbidatu eta animatu ditu parte hartzera eta ekarpenak egitera.

Urtebetera, hauteskondeak

Urtebete barru egingo diren udal hauteskundeetara erantzuteko programa eta zerrenda prozesu

ZORTZI ARLO ZEHAZTU DITU, ETA HERRITARRAK GONBIDATU PARTE HARTZERA

honetatik aterako direla ere aurreratu du EH Bilduk, baina azpimarratu du dinamika hau ez dela hauteskundeetara mugatuko. "Lan egiteko eta politikan jarduteko modu berri bat sustatu nahi dugu EH Bildutik, herritarrekiko etengabeko harremanean oinarritzen dena", zioen zapatuko prentsa agerraldian hitza hartu zuen Irati Letek.

Etorikizunari begira

Duela hamaika urte hasitako ibilbidean, "Oñati herri aurrerakoiagoa, parekideagoa, jasangarriagoa eta biziagoa" dela nabarmendu du EH Bilduk, "desberdinen arteko elkarlanean bidez, herritar guztien ametsak egia bihurtzen eta, inor alboan utzi gabe, herria ezkerretik eraikitzen" jardun dutela. "Oñatiarrekin batera egin dugu bide hau, eta harrotasunez esan dezakegu Oñatik, dabilen herriak, ilusioz eta baikortasunez begiratzen diola etorikizunari", berba egin zuen Ander Zarketak.

Txartel bidezko sistema jarriko dute auzo-konpost guneetan

Konposta zehetzeko gailu elektrikoa erostea da Udalaren hurrengo erronka, prozesua "ondo" bukatzeko

O.E.G. OÑATI

Txartel bidezko sistema jarriko dute herriko auzo-konpost guneetan, erabiltzaileak bakarrik sartzeko. Auzo-konpostaren prozesua hobetzeko pausoa dela dio Ingurumen batzordeburuak, Asier Iraetak: "Erabiltzaileen maiztasuna, kuxak zenbatean behin betetzen diren, temperatura egokia noiz hartzen duten... Datuak izango ditugu prozesua hobetzen laguntzeko". Errekalden eta Bidebarrietan jarriko dute sistema berria, lehendabizi, eta besteetan ere egingo dituzte aldaketak.

Zuzeneko jarraipena egin gura dio auzo-konpostari Udalak, "konbentzitutak" dagoelako hondakinen prebentzioan oso pauso garrantzitsua dela. Prozesua herrian "ondo" bukatzea ere gurako luke, eta, horregatik, ongarria zehetuko duen gailu elektrikoa erostea du aurtengo bigarren erronka: "Hilerriaren atzean egokitu zuten gune bat kutxetako hara bota eta bukatzeko. Hangoa galbahetik pasatzea falta da eta aurtengo bigarren erronka da horretarako gailua erostea".

Proiektuen proposamenak egiteko azken egunak

Hilaren 27an bukatzen da partaidetza aurrekontuetarako proposamenak egiteko epea. 500.000 euro bideratu ditu Udalak horretara eta herritarren ideiak zeintzuk diren jakin gura du lehenengo. Udal webgunean sartuta egin daiteke, edo ekimenerako herriko hainbat eraikinetan propio jarri diren ontzietan proposamena sartuz.

Lan istripuen aurrean neurriak "berehala" hartzea eskatu dute

Aramaion lanean ari zela hildako behargin oñatiarraren heriotza dela eta, hainbat mobilizazio izan dira. Gehiengo sindikalak, Debagoieneko Kontseilu Sozialistak eta Oñatiko Eskubide Sozialen Aldeko Batzordeak elkarretaratzeak egin dituzte eta lan istripua salatu eta Jaurlaritzak neurriak "berehala" hartzea eskatu dute.



O.E.

Postetxe parekoa ere erabilgarri

Bizikletendako aparkaleku estalia jartzen aritu dira udal brigadako langileak azken egunetan eta dagoeneko erabilgarri dago. Postetxeako autobus geltokiaren atzealdeko berdegunean dago eta aurretik herriko beste gune batzuetan jarritakoaren berdina da. Honekin, bizikletaren erabilaren aldeko ekipamendua osatzen jarraitzen du Udalak.

Ikasitakoa erakutsi dute musika ikasleek

Ikasturtean zehar ikasi dutena etxekoei erakusteko eta herritarrei eskaintzeko emanaldiak ari dira egiten musika eskolako ikasleak. Bihar, berriz, eskolan dituzten musika instrumentuak aterako dituzte plazara, probatu gura dituztenendako

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Santa Ana antzokian eta gaztelekuan ari dira egiten emanaldiak Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak; ikasturtean zehar ikasitakoa etxekoei erakusteko eta, aldi berean, herritar guztiei zuzeneko musika emanaldia eskaintzeko. Gaur, egubakoitza, izango dira azkenak: musika eta mugimendua, musika goiztiarra eta prestakuntza lantzen aritu direnen txanda izango da, 17:00etan hasita, Santa Anan.

Probatzeko aukera egongo da

Bihar, bestalde, musika eskolan jotzen erakusten duten instrumentu guztiak aterako dituzte plazara, gura duenak probatu ditzan. "Mahai batzuetan jarriko ditugu, multzoka; dozena bat mahai, guztira. Eta musika eskolan ari garen hamasei irakasleok izango gara hantxe, instrumentu horiek herritarrei eskaintzen eta probatu gura duenari horretan laguntzen. Eskuorri batzuk ere prestatu ditugu, informazioarekin eta instrumentuen zerrenda osoarekin. Probatu ahalaz bat, markatu egin daiteke zerrendan, instrumentuaren parean. Denak probatzen dituen saritua izango da amaieran", azaldu du



Trikiti eta pandero ikasleak martitzeneko entzunaldian, gaztelekuan. M.A.

musika eskolako irakasle Arantzazu Bikuñak.

Herrixa Kantuan, bueltan

11:00etatik 12:30era izango da erakustaldi hori, eta, segidan, Herrixa Kantuan ekimena hasiko da. Pandemia ostean antolatutako lehena izango da eta ohiko formatuarekin itzuliko da: plazan hasi eta kantuan egin inguruko kaleetan. Amaieran, 13:15ean, emanaldi bana egingo dute Juan Manuel Gereñok zuzentzen duen nagusien taldeak eta Harkaitz Allurren

gidaritzapean joko duen triki-konbo taldeak. Atzeko kalean izango da hori.

Luxenburgora

Panderoko eta trikitiko ikasle talde bat, gainera, Luxenburgora joango da datorren astean. Hiri horretan egingo den Europako gazteen musika jaialdian hartuko du parte Oñatiko taldeak hilaren 26tik 28ra bitartean. Hamar ikasle eta hiru irakasle joango dira. Euskal Herriko lehenengo eta oraingo doinuak joko dituzte.

Lehenengo arkeotopaketak egingo dira datorren astean

'Harrizko lehen gaiak Pirinioetako historiaurrean' da gai nagusia eta 32 ikerlarik hartuko dute parte

O.E.G. OÑATI

Arkeologiaren gaineko Oñatiko Unibertsitatea izeneko topaketak antolatu dituzte datorren aste-rako Oñatin. Euskal Herriko Unibertsitateko historiaurre sailak eta Oñatiko Udalak sinatuta duten lankidetzak hitzarmenak jasotzen dituen urteko jardueretako bat izango da hiru eguneko jardunaldi hau. Topaketa horien bidez, Pirinioetako ingurunea aztertzen duten ikerketa-taldeen arteko sare-lana sustatu gura dute, aldiro gai konkretu bat landuz. Lehenengo

honetarako, Pirinioen historiaurreko eta penintsularen iparraldeko lehengai litikoen gaia aukeratu dute.

Maiatzaren 25etik 27ra bitartean egingo da aurtengo arkeotopaketa eta zenbait unibertsitate-taketako 32 ikerlarik hartuko dute parte. Aurkezpen ekitaldiko hitzaldia Andoni Tarriño irakasleak egingo du eta suharrari buruzko dibulgazio solasaldia izango da. Hilaren 25ean izango da, Sancti Spiritus unibertsitatearen areto nagusian, 19:00etan.



NIRE USTEZ

UXUE MONTERO

Herriko liburu-dendetan erosi

Gero eta ohitura gehiago daukagu edozein gauza Interneten bidez erosteko, liburuak barne. Erosoagoa da, aukera ugari dago eta produktu bera merkeagoa aurkitu dezakegu pentsatzen dugulako egiten ditugu erosketak online. Azken honetan, aldiz, ezin dira liburuak sartu.

Liburuen prezioa editoreak erabakitzen du eta, gutxi ezagutzen bada ere, prezio horren gorabeherak arautzen dituen lege bat dago. Lege horren arabera, ezin dira %5etik gorako deskontuak egin -%10era iritsi daitezke oso egun berezietan; adibidez, Liburuaren Egunean-. Hori dela eta, gehienez hemeretzi eurotan aurki dezakegu 20 euro balio duen liburu bat. Euro bat aurreztuko dugu, asko jota!

Hori jakinda, ez du ematen hainbeste merezi duela liburuak Interneten erostea, ezta? Gainera, liburu-saltzaileen ezagutzak eta aholkuak ezin dira alderatu web orri batekoekin. Beraz, liburu bat erosi behar duzuen hurrengoan, ez zalantzarik izan eta liburu-dendara joan!

Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei
erantzuteko prest!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Aloña Mendi utziko duten Endika Ruiz, Aimar Lizarra, Iñigo Markinez, Andoni Egaña, Ibai Moreno eta Julen Murua. A.T.G.

Futbol zelaiak utzi eta harmailetara pasako dira

Domekan denboraldiko azken partidua jokatu ostean, taldea utziko dute Aloña Mendiko bost jokalarik: Iñigo Markinezek, Andoni Egañak, Ibai Morenok, Julen Muruak eta Josu Juaristik. Endika Ruiz entrenatzaileak ere utziko du taldea

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI
Aloña Mendiko Ohorezko Erregional Mailako taldeak aurreko jardunaldian lortu zuen mailari eustea, eta denboraldiko azken partidua jokatu dute domekan Azkoagainen, Hernaniren aurka. Sasoi honetan ohikoa izaten da taldean bajak egotea hurrengo denboraldira begira, eta, kasu honetan, bost jokalarik, entrenatzaileak eta harekin batera taldean lan egiten duten beste hiruk utziko dute Aloña Mendi.

Bost jokalarik, agur

Lehen mailako taldean hamalau urtez jardun du, esaterako, Josu Juaristi jokalaririk. Ibai Morenok Ibarran jokatzen zuen alebinitatik, baita Andoni Egañak, Iñigo Markinezek eta Julen Muruak ere, baina domekan jokatuko dute azken partidua. Guztiek adierazi dute "berezia eta hunkigarria" izango dela. Markinezek hauxe esan du: "Pare bat aste noa buruari bueltak

ematen, nire azken partidua izango dela asimilatzen. Sentiendu asko batzen zaizkit: poztasuna, tristura, harrotasuna... Partidu berezia izango da, emozio handikoa".

Muruak gaineratu du "familia" dela Aloña Mendi: "Familia bat sortu dugu. Alde batetik, kategoria txikietan kuadrillakoekin eta lagunekin egiten dituzu urte pila bat, baina gero, lehenengo taldean hainbat belaunaldi elkartzen direnean sortzen dena familia da. Horrek ematen dizu betiko lagun talde bat". Egañak denboraldiaren balorazioa egin du: "Orokorrean, gure helburu nagusia lortu dugu, mailari eustea, baina ez da oso denboraldi ona izan, hasieran

**INFANTILETATIK HASI
ETA KATEGORIA
GUZTIETAN EGON DA
ENTRENATZAILE
LANETAN ENDIKA RUIZ**

geneuzkan gainerako helburuak zeintzuk ziren ikusita. Egia da hainbat taldekideren lesioak izan ditugula, asko luzeak izan dira eta horrek ere gure kontra egin du". Eta Markinezek gelditzen diren jokalarientzako hitzak izan ditu: "Futbolagatik gaude hemen, baina familia bat gara; onean eta txarrean edozein dago laguntzeko, eta Aloña Mendi ikaragarria da. Disfrutatzeke esango nieke, eta asko maite ditudala".

Baita entrenatzaileak ere

Endika Ruiz entrenatzaileak ere utziko du taldea. Baita Aimar Lizarra prestatzaile fisikoak, Gorka Lazkano partiduetako delegatu eta Azkoagaingo laguntzaile eta bigarren entrenatzaileak eta Mikel Aginagalde atezainen prestatzaileak. "Hunkituta eta pozik goaz. Orain dela lau urte hartu genuen gidaritza eta orduko ilusioak eta helburuak beteta goaz", esan du Ruizek.



Broken Legacy taldeko sei musikariak. BROKEN LEGACY

Rock kontzertuekin hasiko dira gaur Errekalde auzoko jaiak

Gauean, 21:00etan hasita, herriko Broken Legacy, Ezpalak, Añube eta Azken Sustraiak taldeak izango dira

A.T.G. OÑATI

Askotariko musika eskainiko dute hainbat taldek asteburuan Errekaldeko jaietan. Gaur 19:00etan ekingo diete festei eta 21:00etatik aurrera agertoki gainera lau talde igoko dira. Broken Legacy oñatiarrek *Hortzimuga* izeneko bigarren diskoko abestiak joko dituzte lehenengo; Zestoako Ezpalak ere igoko da taula gainera; ostean, Arrasate, Bergara eta Ataungo taldekideak dituen Añube; eta azkenik, Azken Sustraiak.

Zapatuan, berriz, oñatiarrak izango dira agertokiko protagonista; izan ere, 19:00etan Txuleton's taldea igoko da taula gainera, eta 22:00etatik aurrera erromeria giroa nagusituko da Errekalden, Oñatiko Lizartxo taldearen eskutik.

Bestelako ekitaldiak ere izango dira asteburuan: txorimaloak eta erraldoiak egubakoitzean eta zapatuan, orientazio proba zapatuan 11:00etan, haur jolasak, goitibehera txapelketa, Oñatz dantza taldeko gaztetxoan dantza saioa domekan, mus txapelketa eta Txikiren umorezko bakarriketa saioa ere sartuta daude egitarauan.

Bestelako ekitaldiak ere izango dira asteburuan: txorimaloak eta erraldoiak egubakoitzean eta zapatuan, orientazio proba zapatuan 11:00etan, haur jolasak, goitibehera txapelketa, Oñatz dantza taldeko gaztetxoan dantza saioa domekan, mus txapelketa eta Txikiren umorezko bakarriketa saioa ere sartuta daude egitarauan.

Kiroldegiko erreserba sistemak bertan behera utzi dituzte

Pandemiagatik, orain arte erreserba egitea derrigorrezkoa izan da Zubikoako sauna zerbitzua erabiltzeko, baina aurrerantzean ez da erreserbarik egin beharko. Erreserba sistema bertan behera gelditu da, baina generoaren araberrako txanden antolaketan –txanda egunetan eta ordutegian– ez da aldaketarik izango –kontsultatu *Zubikoakiroldegia. onati.eus*–.

Igerileku handian hiru kale daude erreserbatzeko moduan, baina bihartik, hau da, zapatutik aurrera, erabilera librea izango da kale guztietan. Bestalde, uda sasoiaren igerilekuko hiruzpalau kale erreserbatuko dira jolasetarako.

OHARRAK

Kantoikrit lasterketa

Uztailaren 16an egingo da eta izen-ematea zabalik dago *Sailkapenak.com*-en, uztailaren 15eko 15:00ak bitartean. 25 eurotan.

Pilota txapelketa

Maiatzaren 22ra bitartean eman ahal izango da izena Oñatiko Pilota Txapelketan, Arrano, Boga eta Ongi tabernetan. 15 eurotan.

Torreauzoko krosa

Uztailaren 3an izango da eta *Herrikrosa.eus* webgunean eman behar da izena, egun horretako 09:00ak baino lehenago. Aurten, bertan ezin izango da parte hartzeko izenik eman.



Telebista

Profesionalekin



Sare sozialak

Euskaraz

Komunikazio Campusa 2022

Podcastak



Fotokazetaritza

Kamera aurrekoak



Noiz: 1. txanda, uztailaren 4tik 8ra. 2. txanda, uztailaren 11tik 15era. **Taldeak:** gehienez ere, 15 lagun.

Non: Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan, eta Goienan, Arrasaten.

Ordutegia: 09:00-13:30 (ordu erdiko atsedenaldiarekin).

Norendako: DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak. **Izen ematea:** Martxoaren 18tik ekainaren 17ra. **Prezioa:** 125 euro.

IZEN EMATEA ZABALIK: www.labur.eus/komunikaziocampusa



Master-eskolak adituen eskutik:

Alex Padilla Sare sozialetan aditua. **Ainhoa Vitoria** Komunikatzailea eta Gazteko irratia esataria.

Xabier Urzelai Goienako kazetaritza-argazkigintza aditua.

Informazio gehiago:    600 02 27 20  komunikaziocampusa@mondragon.edu

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



Anima zaitetz eta eman izena!

Xabier Urtzelai ARRASATE

Yaman Mjahed Nogales *Diamante* (Arrasate, 2002) borroka arte mistoen munduan aurrerapauso galantak ematen dabil. GOIENA 2019an izan zen azkenekoz arrasatearrarekin; orduan, Eskoriatzan antolatu zuten K1-eko borrokaldian esku hartu berri zuen, eta garbi zeukan etorkizunean MMAko borrokalaria izan gura zuela. Iritsi da momentu hori, eta zaleak harrituta utzi ditu. Lautan igo da MMAko kaiolara, eta hiru borrokaldi irabazi ditu: "Debutean eskura nuen garaipena, baina despistatu egin nintzen. Izugarri ikasi nuen egun hartan". Bihar, zapatua, Madrilén Ukrainiaren alde egingo duten borroka arte mistoen jaialdi entzutetsuko borrokalarietako bat izango da. **Gertu zaude zapatuko borrokaldirako?**

Bai! Ondo prestatu dut borrokaldia, gogor entrenatu naiz. Hori da gogorrena; orain, gozatzeari tokatzen da.

Duela hiru urte izan zen azkenekoz GOIENA zurekin. Zer aldatu da ordutik hona?

Bada, orduan esan nituenak poliki-poliki betetzen joan direla. MMAko borrokalaria profesional izatea dut amets, eta horretan dihardut.

Zelan egiten da pauso hori? Borroka kopuru bat irabazita, babesleak eskuratuta...

Ez, ez. Oso bide pertsonala da hori, borrokalaria bakoitzak erabakitzen du noiz eta zelan eman pausoa. Ni, oraingoz, amateur mailako borrokalaria naiz, eta ingurukoei entzunda, entrenatzaileari men eginda, norberaren bizipen eta gogoei kasu eginda erabakitzen du borrokalaria pausoa ematea, edo ez ematea. **Youtuben ikusi dut duela hilabete gutxi Alex Sanchezen kontra izan zenuen borrokaldia. Ikusgarria da.** Bai; oso pozik geratu nintzen. *Anakonda* izeneko giltza batekin lortu nuen irabaztea –kontrarioaren sumisia helburu duen lurreko giltza bat da–. Beste borroketako bat ere giltza horrekin irabazi nuen, eta ni ere halaxe hartu ninduten mende, debut borrokan.

WOW6 [Way Of Warrior] borroka ekitaldian izango zara bihar. Zertan datza?

Orain momentuan Estatu mailan borroka arte mistoen txapelketa onenak antolatzen dituen antolaketa taldea da WOW, en-

"Hau ez da biolentzia, hau kirola da eta gu atletak gara"

YAMAN MJAHED NOGALES 'DIAMANTE' MMA-KO BORROKALARIA

BORROKA ARTEAK Arrasatekoak WOW6 izeneko jaialdian hartuko du esku bihar, zapatua, Madrilgo Hotel Marriott Auditorium-en: "Gertu nago, eta gogotsu"



Yaman Mjahed Nogales, borrokaldi bat irabazi berritan, kaiola gainera igota. WOW

presa pribatu bat da. Eta zapatuko jaialdia izugarria izango da, Goya ekitaldiak antolatzen dituzten hotelean egingo dute jaialdia eta ikusle mordoa egongo da. WOW barruan borrokalaria amateurrek profesionalak bagina bezala zaintzen gaituzte, ikus-entzunezkoen emanaldiak asko zaintzen dituzte... WOW Talent delakoan hasi nintzen esku hartzen, eta ondoren hartu nuen esku WOW5 ekitaldian. **Zer-nolako borrokalaria zara?**

Esango nuke borrokalaria argia naizela, eta arlo guztietan moldatzen naizela ondo. *Grappling*-ean –kontrarioari heldzea–, *striking*-ean –kontrarioa kolpatzea–, *wrestling*-ean... Uste dut borrokalaria osoa naizela, eta horri esker joaten naiz borrokaldietara konfiantzarekin. Jakingo banu zerbaitetan ez naizela ondo moldatzen, ez nuke konfiantza hori izango. Eta bestalde, egunero-egunero dihardut lanean, egunero birritan entrenatzen naiz, hemen ez dago beste biderik. Nire helburua ez da kontrarioa baino hobe izatea, azkenean, horrek mugatu egiten zaituelako. Nire helburua

"MMA-KO BORROKALARI PROFESIONAL BILAKATZEKO GOGOR DIHARDUT LANEAN"

da bihar gaur naizena baino apur bat hobe izatea, horrela ez duzu mugarik izango.

Gaztea zara, 20 urte dituzu, eta bide luzea egiteko. Hortik dator *Diamante* ezizena?

Bai; hainbat pertsonak esan didaten zerbait da, lantzeko dagoen harribitxia naizela. Hala, WOWetara joan nintzenean, nire fitxa osatzen nenbilela konturatu nintzen ez neukala ezizenik. Eta negatik esaten zuten hori jartzea okurritu zitzaidan, *Diamante*, ja, ja... Ez dakit zergatik, baina gustuko dut.

Gogoan dut Eskoriatzako borrokaldiaren ostean esan zenuena, ringera, zuen kasuan kaiolara, ezin zarela amorratuta igo. Amorrua ez dela borrokaldi batean bidelagun ona.

Inondik inora. Emozioak gorde egin behar dira, eta burua hotz izan behar duzu. Borrokaldi bat bero-bero hasten baduzu, baliteke inoiz horrek emaitza ona ematea, baina ez da askotan gertatuko. Kaiolako borroka ez da kaleko borroka. Kaleko borroka biolentzia da, kaiola barruko kirola da. Egia da garai batean kirol jardura hau lotzen zela kaleko gazte baztertuekin, biolentziarekin... Baina gauzek eboluzionatu egiten dute. MMA da borroka estilo mordoa batzen dituen artea, kickboxinga, muay thaia, jiu jitsu brasildarra, boxeoa... Joko arau batzuk daude. Ni ez naiz gazte biolentia, ni atleta naiz, eta halaxe entrenatu eta zaintzen dut neure burua. **Izan ere, erraztasun handia duzue min egiteko.**

Gorputza ematen diozunera ohitzen da. Ni ohituta nago kolpeak jasotzera, nire prestakuntzaren parte da. Baina jendeak ez daki jotzen, ezta kolpeak hartzen ere. Oso gutxirekin min egin diezaioket norbaiti, eta borrokalaria badaki hori. Asko dauka galtzeko. Ni ez nauzu giro horretan harrapatuko. Zapatu gauean atsedean hartzen egongo naiz, astelehenean entrenatu beharra daukat.

Oso gogor entrenatzen zarete.

Nik borrokaldiak maite ditut, baina baita eguneroko entrenamendu saioak ere. Esaldi batek dio: *Egin ezazu maite duzun hori, baina maite ezazu, baita ere, egitea tokatu zaizun hori*. Horretan saiatzen naiz, nahiz eta lehertuta nagoenean ez dudan entrenatzeko gogorik izaten; ja, ja...



Vanesa Gimbert, etxekoekin eta Bergarako zaleekin inguratuta, joan den domekako agur partiduan. BERGARAKO ATHLETIC ZALEAK

Vanesa Gimbert omenduz, ligari agur

FUTBOLA Ohorezko Erregionaleko azken jardunaldia jokatu dute asteburuan, eta Bergararen eta Urolaren arteko partiduan dago interes-fokua: Agorrosingo belar naturaleko zelaiko agur partidua izango da, eta Vanesa Gimbert omenduko dute

Xabier Urtzelai BERGARA

Ligako 34. jardunaldian, Aretxabaletak, Mondrak, Bergarak eta Aloña Mendik ez dute aparteko helburuengatik borrokatuko. Gehiago kostata edo erraztasun handiagoarekin, denek bete dute premisa nagusia: mailari eustea. Hortik aurrera, batzuk konforme egongo dira liga amaierara arte aurrealdeko postuen borrokan ibili direlako, beste batzuk taldean belaunaldi aldaketa izanda ere gazteak ondo egokitu direlako edo aurreikusituen zutena baino gutxiago sufritu dutelako. Aldagela bakoitzean balorazio ezberdinak izango dira. Baina azken jardunaldi honetako partiduek balio dute zenbait omenaldi egiteko, eta baita, Bergararen kasuan, Gipuzkoako belar naturaleko azken zelaletako bati agur esateko (Ikus 29. orria).

Aitortza Gimberti

Bihar, zapatua, Bergararen eta Urolaren arteko partidua (12:00)

berezia izango da. Izan ere, partidu aurretik, herriko alaba Vanesa Gimbert (Bergara, 1980) omenduko dute, azken hamarkadan Athleticen erreferentziako jokalaririk izan denak futbola uztea erabaki du eta. Bergarakoak 23 urteko ibilbidean bost liga eta bost Errege Kopa irabazi ditu, eta, talde zuri-gorriaren aurretik, Montillan, Levanten, Estudiantesen, Sevillan, Rayo Vallecanon eta Espanyolen jokatu du.

Gimbertek domekan jokatu zituen azken minutuak elastiko zuri-gorriarekin, eta Bergarako lagunarteko kuadrilla ederra izan zuen ondoan. Aste barruan tarte hartu du GOIENArekin egoteko: "Emozio handiko eguna

BERGARAREN ETA UROLAREN ARTEKO PARTIDUAREN AURRETIK OMENDUKO DUTE GIMBERT, BIHAR

izan zen domekakoa. Alde bate-tik, pena ematen dizu, badakizulako hor amaitzen dela zure futbol ibilbidea, baina, bestalde, oso kontziente naiz orain dela futbola uzteko momentua. Eta zapatuan Bergaran egingo didaten omenaldia ere oso berezia izango da. Bergararra naiz, eta norbere herrian halako bat jasotzea gauza ederra da".

Etorbizunera begira, lehenengo, atsedean hartu nahi du bergararrak: "Udan etxekoekin egon nahi dut, denboraldiaurrerik egin barik, futbola utzi dudala barneratu, eta, ondoren, entrenatzaile titulua eskuratzeko asmoa dut".

Ibarran ere omenaldia

Ibarra futbol zelaian, berriz, UDAk 75. urteurrenaren barruan 1972an afizionatu mailako Espainiako txapeldun izan ziren jokalariek omenduko ditu domekan (16:30). Aretxabaletaren eta Allerruren arteko partiduko atsedean darian.

Joanekoan aurreikuspenak bete dira, itzulikoa geratzen da

PILOTA Oñatiarrek Amezketako pilotariak hartuko dituzte bihar; Aretxabaletakoek Hernanin dute hitzordua

X.U. ARRASATE

Herri Arteko joaneko partiduetan aurreikuspenak bete dira bailarako taldeei dagokienez. Aretxabaletarrek nekez egin ahal izan zioten aurre Hernani indartsuari, bereziki kadete eta gazte mailetakoko partiduetan. Izan ere, seniorrek hortxe-hortxe izan zuten garaipena (18-22), partidu lehiatua jokatu zuten eta itzuliko norgehiagokan -zapatua, 17:30, Hernanin- kategorian horretan irabaztea da aretxabaletarren helburua. "Bero egin du eta partidua asko gogortu da. Ondo ibili garelako esango nuke, baina eurek ere ondo jokatu dute", adierazi zuen partidu amaieran Haritz Zugastik.

Oñatiarrek "bizirik" daude

Oñatiko pilotariek ere erronka gogorra izan zuten joan den astean Amezketan, baina seniorrei



Haritz Zugasti, domekan. GOIENA

esker -Biainek eta Erlek 20-22 irabazi zioten Amezketako Ruiz eta Gorostidiri- puntu bat ekartzeko kapaz izan ziren. Zaila bada ere, zapatuan (18:00, Zubikoa) etxeko zaleen babesari esker kanporaketari buelta ematen saiatuko dira.

Hiru final geratzen zaizkie Mondrateri eta Eskoriatzari

ARETO FUTBOLA Bigarren Nazional Mailara igotzeko 'play-off'-erako sailkatu nahi dute bi taldeek

Xabier Urtzelai ARRASATE

Hirugarren Nazional Mailari hiru jardunaldi baino ez zaizkio geratzen, baina a zer-nolako hiru jardunaldi. Azkenekoan, ekainaren 5ean, Mondratek eta Eskoriatzak elkarren kontra derbia jokatu dute, eta bi taldeen helburua da derbi horretara *bizirik* iristea; alegia, *play-off*-erako sailkatzeko aukerarekin egotea. Fase horretara lau talde joango dira: dagoeneko sailkatuta daude Afantxo (71 puntu) eta Laskorain (63), eta beste bi txartelengatik lehiatzen dabilen Antiguoko (54), Gora (52, partidu bat gehiagorekin), Eskoriatza (52) eta Mondrate (52).

Mondratek etxean bihar

Mondratek bihar, zapatua, Laskorain hartuko du Musakolan (17:30). Eta Julen Otxandiano entrenatzaileak eskaera egin



Afantxoren kontrako lehiatzen. GOIENA

die zaleei: "Etor daitezela partidura, euren babes eskertuko dugu eta".

Eskoriatzarendako ere hil edo biziko partidua da bihar Tolosako Uzturpe pilotalekuan jokatu dutena (16:00); talde horrek jada ez du ezer jokoan.

Arrasate Blues "hazita" dator, egun gehiagorekin

Uztailaren 14tik 17ra bitartean izango da egitarauaren muina, baina ekainaren 11n abiatuko dute Ibai-artek eta Udalak beste erakunde eta eragile batzuen laguntzarekin antolatu duten laugarren musika jaialdia; hamasei emanaldi izango dira, guztira

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Euskal Herriko zein kanpoko blues musika eszenako artisten-dako "oso estimatua" da. Hala dio bigarren oholtza gainera igoko den Paul San Martinek, Aretxabaletako musika eskolako irakasle ohiak: "Ikaragarri hazi da. Iazko oroitzen polita dut, oso giro ona izan genuen. Blues musikariontzat kontzertuak jotzeko asko borrokatu behar dugula kontuan hartuta, halako jaialdi batekin topo egitea paregabea da".

Kontzertuak, zazpi egunetan

Hamasei kontzertu egingo dituzte, ohi moduan, herriko txokoetan banatuta, -aurten bederatzia agertoki izango dira-. *Zero kilometro* aldarrian sinetsita, euskal musikariekin osatu dute gehienbat, kartela. "Bertako taldeetan jartzen dugu guk fokua, baina kanpotik jasotako proposamen batzuk ere onartu ditugu, hortaz, eskaintza osatuagoa izango da. Aurreko aldietan ere kanpoko artistak izan dira. Jatorri amerikar eta italiarrekoak izango dira aurten, eta, motorrak berotzeko, Bartzelonako Wax & Boogie taldeak zabalduko du ekainaren 11n jaialdia eta oraingoz izena isilpean gordeko dugun beste talde bat izango da ondo-

ren", dio Ibai-Arte merkataritza elkarteko Jon Apraizek.

Uztailaren 14tik 17ra izango da egitarauaren muina; baina bi emanaldi izango dira aurretik: Bartzelonako Sweet Marta & The Blues Shakers taldea gonbidatu dute uztailaren 2an, -Herriko Plazan 22:00etan-, eta toki berean Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra entzuteko aukera izango da, uztailaren 10ean, 13:00etan.

Errepikatzaileak eta berriak

Iaz izan zen estreinakoz Arrasaten jaio zen Itziar Yague, eta "ikaragarri" gozatu zuen aspaldiko partez jaioterrira etorri eta *Delicious* diskoa zuzenean aurkeztu. Bigarrenegigoko da Herriko Plazako agertokira, uztailaren 15ean.

Debagoieneko musikari gehiago izango direla iragarri du Apraizek, uztailaren 16ak eskualdeko marka izango duela iragarrita. "Jon Nevado eta Jaime Lizaranzu arrasatearrek eta Ibai Akizu aretxabaletarrak osatzen duten Los Zarrios taldea; Arrasate Musikaleko irakasle diren Aitor Etxagibel, Ruben Salvador, Jose Ramon Elkoro eta Zigor Martinez kide diren Elen's River Dixieland band, eta Mikel Etxeberriak eta Asier Elorzak osatzen duten Bergara-

ko Diablues eta Bluezifer bikotea izango dira egun horretan".

Aurreko aldietan Arrasate Bluesen izandako Iker Piris, Paul San Martin eta Willy musikariak gonbidatu dituzte berriz ere, formazio eta eskaintza berriarekin badatoz ere.

Otordu musikatuak aukeran

Aurtengo berrikuntza da *Blues bazkariak* ekimena; uztailaren 15ean eta 16an egingo dituzte, Udala auzoko Uxarte jatetxean eta Hotel Mondragonen.

Hiru irakasleri omenaldia

Iaz, Jesusi Etxeberriari omenaldia egin zioten, urteetan haren musika akademian egindako lanagatik, eta aurten, Mertxe Madinabeitiaren, Miren Gastañaresen eta Maria Pilar Etxebesteren lana txalotu eta esker-tuko du Arrasateko jaialdiak, uztailaren 14an, Herriko Plazan, 19:00etan. "Haiek ere musika hezkuntzan urte luzez jardundakoak; Arrasate Musikaleko hastapenetako irakasleak izan ziren hirurak, eta han jardun zuten erretiroa hartu zuten arte".

Garagardoak eta elastikoak

Ekainaren 11n aurkeztuko dituzte Arrasate Blueseko marka duten garagardoak eta elastikoak.



Arrasate Blues jaialdiko antolatzaileak eta protagonistak. HASIER LARREA

Kontzertuen egitaraua

Ekainak 11

- 19:00 Wax & Boogie, Herriko Plazan.
- 20:30 Isilpeko kontzertua, Otolara Lizentziaduna kalean.

Uztailak 2

- 22:00 Sweet Marta & The Blues Shakers, Herriko Plazan.

Uztailak 10

- 13:00 Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra, Herriko Plazan.

Uztailak 14

- 19:00 Itxaso, Herriko Plazan.
- 20:30 Star Blues, Otolara Lizentziaduna kalean.

Uztailak 15

- 19:00 Iker Piris & Dual Electric & Marco Pandolfi, Euskal Herria plazan.
- 20:30 Emilio Arsuaga & The Mad Reeds & Chris Bell, Portaloian.
- 23:00 Itziar Yague laukotea ft. Greg Izor, Herriko Plazan.

Uztailak 16

- 13:00 Paul San Martin & Greg Izor, Jokin Zaitegi plazan.
- 18:00 Elen's River Dixieland band, kaleetan zehar.
- 19:00 Los Zarrios, Portaloian.
- 20:00 Diablues Ta Bluezifer, Portaloian.
- 23:00 Los Brazos, Ferrerías kalean.

Uztailak 17

- 13:00 Swingtronic, Arbolapetan.
- 19:00 Jac, Arbolapetan.

Emanaldi guztiak doan izango dira; ez da gonbidapenik behar.

NDANK NDANK: DEBAGOIENETIK SENEGALERA

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA

MAIATZAREN 20AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Rockalean txaranga, Aretxabaletako kaleetan emanaldia egiten. GOIENA

Txaranga Eguna bihar, kaleak bizitzeko asmoz

Askotariko txokoetatik etorriko diren zazpi txaranga gonbidatu ditu Bergarako Udalak; herriko kaleetan eta auzoetan zehar ibiliko dira, 11:00etatik 21:00era; janaria saltzen duten bi furgoneta izango dira Seminarixoko patioan, 23:30era bitartean

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

"Osasun egoerak hobera egin du, eta berreskuratzen ari gara, pixkanaka, kaleko bizitza hori. Gure garapenerako, beste pertsona batzuekin harremanak izatea beharrezkoa dugu, eta espazioak behar ditugu horretarako. Osasun fisikoak zaintzean indar berezia egin du Udalak, baina pertsonen animoa eta bizipoza ere zaindu behar ditugula ahaztu barik; hori horrela, kaleei bizia emateko garaian gaude eta bide horretatik antolatatu dugu *Txaranga bizitza da* leloa duen biharko, zapatuko, ekitaldia", azaldu du Herriarren Batzordeko lehendakari Ekaitz Aranberri Zezeagak.

Zazpi txaranga

Egitaraua prestatzeko orduan hainbat kontu hartu dituzte aintzat antolatzaileek: txarangen izaera, batetik, hau da, formatu eta estilo klasikokoak izango dira, errepertorio modernoagoak dituztenak ere bai, eta baita elektrotxaranga izaerakoak ere... Horrez gainera, jatorri askotarikoak izatea ere zaindu dute.

